

Zu hemen zaude.

goiena



Arrainei irisgarritasuna hobetzen

Jose Luis Muñoz elkarriketa, klima aldaketaz



ARRASATE MUSAKOLA KIROLDEGIA



OÑATI ZUBIKOA KIROLDEGIA

IZASKUN LARZABAL ETA LKS

Arrasaten eta Oñatin geroko kiroldegiak irudikatu dituzte / 13 eta 34



Bergararik Beasainera hamaika minutuan, martxo amaieratik aurrera, Deskarga zabaldua / 4

22 herrialdeetako 104 pertsona artatu ditu Oñatiko Larraña etxeak bost hilabetean / 7

Antzuolak bidegorria Zumarragarekin eta Bergararekin lotu gura du, 'bide berdea' handitzeko / 24

Eskualdeko tabernari eta musikariek ez dute egoki ikusten zuzeneko emanaldiei mugak jartzea / 40

SINADURAK

- ANA BELEN CARPINTERO / 29
- XABIER ARREGI MURGIENDO / 8
- ELIAS ZUMALDE / 35
- ANDERE ARRIOLABENGOA / 22
- IDOIA ETXEBERRIA / 48



ATEZAIN IZATEA, ZAINETAN

Angel Fernandez Mondrako atezain izan zen 80ko hamarkadan; Aitor, semea, elitera iritsi da Levanten / 38

Fernandez aita-semeak, Mendizorrotzan, Alaves-Levante partidua amaitu eta gero. XABIER URZELAI

2 mó progresibo
erreflexuen aurkako leiarrekin

229€

(bat eguzkitakoa izan daiteke)



Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu izazu zure optikan kanpainaren ezugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel: 943 79 29 95
ARRASATE
Ibargarai, 16
Tel: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehen zerbizu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com

Zaintza aldarri nagusi, emakumeak berriz ere planto egiteko prest

Astebete barru helduko da Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, eta iaiz mugarri izan zen egun hura errepikatzea izango da helburua aurten ere. "Bizitza erdigunean duen eredu" aldarrikatzeko, egun osoko greba feminista deitu dute

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Pasa den urtean hasitako bideari eutsiz, aurten ere Debagoieneko herri ezberdinetatik Elorregiko biribilgunera martxa eta elkarretaratzea egin dute hainbat herritarrek –aurreko domekan–, eskualdeko talde eta batzorde feministek deituta, Martxoaren 8ari begira "motorrak berotzeko" asmoz. Iaz baino jende gutxiago batu den arren, asko izan dira parte hartu gura izan dutenak, eta antolatzaileek "modu positiboan" baloratu dute.

Astebete baino ez da falta Emakumeen Nazioarteko Egunerako. Euskal Herriko Mugimendu Feministak aste honetan egin du greba feministarako deialdia. Greba hori, hain zuzen ere, "bizitzako esparru guztietan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, sexualitatean, kontsumo ereduari, familia eraikitze moduan, jakintzak ekoizteko eran, arrazakeriaren aurrean, edertasun ereduari eta zapalkuntza guztien aurrean".

Bizitza erdigunean jarriko duen "gizarte eredu berria" aldarrikatuko dute, eta, bide horretan, bost ardatz izango ditu Martxoaren 8ko grebak. "Pentsionista, ikasle, zaintza, enplegu eta kontsumo greba feminista izango da", adierazi dute Bilbon eginiko agerraldian.

Deialdiarekin bat egiteko dei egin diete emakume guztiei, "lantoki eta ikasgeletan greba egiten, herri eta hirietako mobilizazioetara joaten, zaintzeari utziz eta hori irudikatzen amantala balkoian eskegiz edota beso soko morea, trapua eta txapa ipiniz". Horrez gain, Martxoaren 8an ez kontsumitzeko eta hiri, herri eta auzoak geldiarazteko dei ere egin dute. "Kontsumo



Pasa den domekan "motorrak berotzeko" Elorregin egin zuten elkarretaratzea. IMANOL SORIANO

"Kontsumo tala balkoian eskegiz edota beso soko morea, trapua eta txapa ipiniz". Horrez gain, Martxoaren 8an ez kontsumitzeko eta hiri, herri eta auzoak geldiarazteko dei ere egin dute. "Kontsumo

"PENTSIODUN, IKASLE, KONTSUMO, ZAINZTA ETA ENPLEGU GREBA FEMINISTA" IZANGO DA

arduratsu eta jasangarria gartzeko dei egiten dugu".

Hainbat eskaera zehatz jaso dituen agiria aurkeztu du mugimendu feministak. Besteak beste, zaintzaren berrantolaketaz soziales indarkeria matxistatik eta hetero-araurik gabeko bizitza aldarrikatu dute. Horrez gain, prekarizazioa gaitzetsi dute, eta emakumeentzako "enplegu duina" eskatu. Azkenik, arrazakeriarik eta gerrarik gabeko bizitza baten aldeko jarrera adierazi dute.

Multiópticas azken belaunaldiko erretinografo bat eskuratu du erretinako azterketak egiteko



Erretinako Premium Azterketa doan egiteko aukera eskaintzen diegu bezero guztiei. Erretinaren bereizmen handiko irudi baten bidez, edozein ezaugarri patologiko garaiz antzematen da tresna berri honekin.

Era berean, begiaren gaitzak detektatu daitezke eta honenbestez, ikusmena modu atzerazinean kaltetua izatea saihesten da.

Multiópticasen, etengabeko prestakuntza eta teknologia berriak eskuratu nahi ditugu bezeroei ahalik eta arreta pertsonalizatuena eskaintzeko.

Zatoz eta aprobetxa ezazu doako aukera paregabe hau! Eskatu hitzordua.

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

www.multiópticasgipuzkoa.com



Hori dela eta, kapitalismoari, patriarkatuari, hetero-arauari, kolonialismoari eta kapazismoari planto egiteko dei egin dute, eta mobilizazioak egingo dituzte Baionan, Iruñean, Donostian, Bilbon eta Gasteizen.

HIRIBURUETAKO ETA HERRIETAKO MOBILIZAZIOETAN PARTE HARTZEKO DEIA EGIN DUTE

"Entzule aktiboak"

Miren Elgarresta Aldundiko Berdintasun zuzendariak haxe adierazi du Martxoaren 8ko aldarrikapenen harira: "Erakunde publikoa garen neurrian, erantzukizun gehigarria dugu, eta horren oso jabe gara. Geure jarrera entzutea ere bada, entzule aktiboak izatea eskakizunak eta aldarrikapenak jasotzeko".

Etorkizuna "berdintasunetik eta berdintasunerantz" eraikitzearen aldeko jarrera erakutsi

du Elgarrestak: "Ezinbesteko gakoa baita hori amesten dugun gizarte kohesionatuaren alde aurrera egiteko". Hobeto beharreko bi arlo aipatu ditu bereziki: batetik, "lan ordainduaren eta lan ez ordainduaren esparruetan dauden desberdintasunak oso agerikoak dira eta erantzunkidetasuna txertatu egin behar dugu. Bestetik, emakumeen kontrako indarkeriaren esparruan areago jo behar dugu, elkarrekin jorratuz biolentziaren gizarte-deslegitimazioa eta bik-

timen arreta eta aitortpena. Biolentziarekiko tolerantzia den gizarte batek uko egiten dio bere etorkizunari eta Gipuzkoan hori erabat onartezina dela aldarrikatu behar dugu", azaldu du.

Emakunderen kanpaina

Erabakitzen dudana izango naiz kanpaina abiatu du Emakundek, emakumeen ahalduzuean eta genero mugarik gabe beraien etorkizuna aukeratzeko eskubidean arreta jartzen duena, "modu aske batean eta berdintasunean".

Eskualdeko mobilizazioak

Debagoieneko herrietan ere ekintza eta mobilizazio ezberdinak egingo dituzte Martxoaren 8ari begira –herri bakoitzeko orrietan informazio gehiago–.

Goienak ere greba

Goiena Komunikazio Taldeko langileek bat egingo dute Martxoaren 8ko greba deialdiarekin. Horrek izango du eraginik egun horretako ekoizpenean. Dena den, greba egunak emandakoa jasoko du telebistan eta sarean.



Garaio publikoa:
520.000 lagunek
ateratzen diote
onura
Mugi deskontu
sistemari.

Azken lau urteetan lurraldebussek egindako 96 milioi bidala baino gehiagori esker, milaka pertsonari lurraldean zehar mugitzeko aukera eskaintzeak zentzua du soilik ahalegin horren atzetan zu baldin bazaudete. Eta zu bezala, gure lurralderako etorkizun hobea nahi duten milaka pertsonak.

Gipuzkoa,
zenbakiekin
soilik kontatu
ezin diren 4 urte.



Foru diputatuak eta Bergarako eta Antzuolako alkateak, martitzenean, obretara egindako bisitan. GOIENA

Martxo amaierarako zabalik izango da Deskargako autobidea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak Bergarako Udalean egin zuen asteroko bilkura, asteartean, eta ondoren, erakunde-bisita egin zuten obretara. Lanen %95 eginda daude eta aurreikusitako epean zabalduko dute, martxo amaieran

Amaia Zabala BERGARA

Markel Olano diputatu nagusia, Aintzane Oiartzabal Bide Azpiegituretako diputatua, Imanol Lasa Gobernantza eta Komunikazio diputatua, Ainhoa Aizpuru Ekonomia Sustapeneko diputatua, Javier Larrañaga Ogasun diputatua eta Maite Peña Gizarte Politikako diputatua Deskargako obrak bisitatzen izan ziren astearte goizean. Obrek kaltetutako bi herrietako ordezkariek ere bertan izan ziren: Beñardo Kortabarria Antzuolako alkatea eta Elena Lete Bergarako alkatea, hain zuzen.

Lau astera zabalik

Markel Olano diputatu nagusia pozik agertu zen eta azpimarratu zuen "lanen %95 egin da" eta, aurreikusi moduan, "hemendik lau astera, martxo amaierarako, hain zuzen, herri-

tarrentzat zabaltzeko moduan" egongo direla.

Olanoren esanetan, errepide berri horri esker, Goierri, Urola Garaia eta Debagoiena bailarak konektatuta geldituko dira, eta, hiru bailarak "industrialak" izanik, "enpresen lehiakortasunerako oso garrantzitsua izango da errepide hori".

Proiektua aurrera ateratzeak ekarri duen "erronkaren" tamaina azpimarratu zuen diputatu nagusiak. Batetik, "geldirik" zegoen mendiko errepide bat eraikitzeak dakartzan "zailtasun orografiko eta geologikoengatik",

GIPUZKOAR GUZTIEK AUTOBIDE EDO AUTOBIA BAT EDUKIKO DUTE "GUTXIENEZ 15 KILOMETRORA"

eta, bestetik, obrek iraun duten bitartean izan diren baldintza klimatologiko "gogorregatik" zein bertako luraren "ezegonkortasunagatik".

Ondorioz, "punta-puntako teknikak" eta konponbide teknologikoak erabili dira obretan. Esaterako, hamaika inausketa, bederatzi ezponda eta bost biaduktu egin dira. Baita diametro handiko piloteak eta urak drainatu ahal izateko 22 metroko hamasei meatze-putzu ere.

Bestalde, argiztapenerako LED teknologia erabiliko da eta zuntz optikoari esker etorkizunean teknologia adimentsua ezartzeko prestatuturik egongo da errepidea.

Gipuzkoako Biribilgunea

Gipuzkoako Biribilgunea proiektua, hau da, Gipuzkoako gaitasun handiko errepideen sarea, amai-



Aintzane Oiartzabal diputatua Harira saioan. AMAIA TXINTXURRETA

"Segurtasuna" gidarientzat

Aintzane Oiartzabal, Gipuzkoako Bide Azpiegituretako foru diputatua, Deskargako obren gainean mintzatu da Goiena telebistako Harira saioan.

Diputatua pozik agertu da, aurreikusitako epean amaituko dituztelako lanak, eta gaineratu du "seinalizazio horizontala, hau da, lurreko murrak margotzea" soilik falta dela: "Eguraldiaren araberako lanak dira geratzen direnak; beraz, ezin dugu eguna zehaztu, baina ziurtatzen dugu martxoaren azken astean izango dela". Bestalde, errepide honek gidariei ekarriko dien "lasaitasuna eta segurtasuna" azpimarratu ditu.

Obren zailtasunak ere azpimarratu ditu: "Arazoz betetako obra bati heldu genion eta egin genuen lehen gauza adituen bitartez azterketa geologiko eta geotekniko sakona egitea izan zen. Gaineratu du Antzuolan inguruan betidanik gertatu den lurren "mugimendu historikoa" geldiarazteko ere balio izan dutela obrek: "Eusteko neurri oso potenteak erabili dira, okerreneko eszenarioetan pentsatuta".

Lurren mugimenduz gain, bidesaria ere herritarren artean kezka handia sortzen duen gaia da, eta, horren harira, tinko erantzun du Oiartzabalek: "Autobide bat da; beraz, bidesaria izango du. Ziurrenik, guztientzat izango da, baina aztertzen ari gara, eta ondoren, Europako Komisiara bidali behar dugu txostena".

tutat emango da Deskargako errepide zati berri horrekin. "Sare honek 234.759 kilometro izango ditu eta gipuzkoar guztiek autobide edo autobia bat edukiko dute 15 kilometro baino gutxiagora", azaldu du Olanok.

Antzuolarrei eskerrak

25 hilabete behar izan dituzte Deskargako autobideko Bergara eta Antzuola arteko lanak egiteko, eta ia 42 milioi euroko inbertsioa izan dute. Hori dela eta, Olanok eskerrak eman zizkien antzuolarrei izandako pazientziagatik: "Izan dute pazien-

tzia eskertzen diegu; izan ere, horrelako obra inportante batek ondoko herri eta etxeetan erabaki zuzena izaten du beti". Gaineratu zuen hemendik aurrera onurak ekarriko dizkiela: "Orain, egunean 9.200 ibilgailu igarotzen dira egunero Deskargatik, horietako asko astunak; bide berri honekin, gehienak bertatik joango dira, eta esker-tu egingo dute antzuolarrek".

Paisaiaren berreskuratzea

Proiektuaren beste arlo nagusietako bat paisaiaren berreskuratzea izango da. Horretarako, 167.000 metro karratu hidroereingo dira eta lur begetaleko 18.500 metro kubiko zabalduko dira, eta hainbat tona konpost ere erabiliko dira. Gainera, espezie askotariko 15.000 landare eta beste 16.000 landare igokari landatuko dituzte.

ORAIN, EGUNEAN "9.200 IBILGAILU" IGAROTZEN DIRA DESKARGATIK, ETA ASKO ASTUNAK



**Debagoiengan
goi-mailako
hondakinak
nahi ditugu**

*Kalitatez bereiz
dezagun!*

**Kalitatez bereizi,
hondakinak sailkatu,**

*bestean ahalegina
ez kaltetu!*



DEBAGOIENA
Ingurumena

**DEBAGOIENeko
MANKOMUNITATEA**

Hondakinen Informazio Bulegoa:
Nafarroa Etorbidea 17 (Arrasate)

943 504 721 • www.debagoiena.eus/ingurumena



**EZ BADUZU
ESKUORRIA JASO,
MANKOMUNITATEAN
EDO ZURE HERRIKO
UDALETXEAN ESKA
DEZAKEZU**



Organikoan zero plastiko:
ez ontzirik, ez plastikozko poltsarik!



Inguruak garbi mantentzea denon
ardura da, ez utzi zure hondakinak lurrean!



Traste zaharrak ateratzeko guneak
eta egutegia errespeta itzazu!



Errefusera gal ez-birziklagarriak
solilik bota!

**BETE GALDETEGIA
ETA LORTU ZURE
LANYARD-A!**

Hondakin organikoak atera daitezke (aukeratu erantzun okerra)

- Poltsarik gabe zuzenean.
- Plastikozko poltsa baten barruan.
- Poltsa konpostagarriaren barruan.

Ontzi arinetara bota daitezke (aukeratu erantzun okerra)

- Plastikozko ontziak.
- Poliespan erretitu txikiak.
- Jostailuak.

Kartoiak

- Merkataria banaiz, kartoiak komertzioaren aurrean jasoko didate astean hiru egunetan.
- Tolestu eta edukiontzi barrura sartu behar da.
- Aurreko bi erantzunak dira zuzenak.

Errefusera bota daitezke (aukeratu erantzun okerra)

- Apurtutako edalontziak.
- Pixoihalak.
- Arropa.

Izen-abizenak

Telefonoa

E-posta

Herria

Bete galdetegia eta eraman zure herriko udaletxera, herritarren arreta zerbitzura edo mankomunitatera.
Galdetegia ondo erantzuten dutenei Lanyard bat oparituko diegu, edukiontzirako txartela edo giltzatakoa jartzeko.

Galdetegia on-line ere bete dezakezu
www.debagoiena.eus/ingurumena/galdetegia webgunean.





Legebiltzarkideak Arrasateko Kulturateko areto nagusian. TXOMIN MADINA

Autogobernu Ponentzia berbagai Arrasaten

Gure Esku Dago-k antolatuta, Autogobernu Ponentziari buruzko mahai-ingurua egin zuten, asteartean, Gasteizen legebiltzarkide diren EAJko Luke Uribe-Etxebarriarekin, EH Bilduko Pello Urizarrekin eta Elkarrekin-Ahal Duguko Julen Bollainekin

Amaia Zabala ARRASATE

Gure Esku Dago-k antolatuta, Autogobernua Eguneratzeko Ponentziari buruzko mahai-ingurua egin zuten asteartean Arrasateko Kulturateko egoitza nagusian, 18:30ean.

Bertan izan ziren Gasteizen legebiltzarkide diren EAJko Luke Uribe-Etxebarria, EH Bilduko Pello Urizar eta Elkarre-

kin-Ahal Duguko Julen Bollain. Ekitaldira hurbildu ziren herri-tarrek arretaz entzun zituzten politikarien hitzak.

Autogobernua eratzeko beharra

Ponentziari berari dagokionez, Euskadiko autogobernua eguneratzeko beharra azpimarratu zuten Urizarrek: "Ikusi dugu Alderdi Popularrak nola esan duen

Senatuan eskumenen transferentziarekin bukatu behar dela. Eta hori izan da modu batera edo bestera bere postura ofiziala hamarkada hauetan guztietan. Beraz, guk ikusten dugu beste marko batera joan behar dugula eta guk erabaki behar dugula nolako markoa eratu. Marko horrek ezaugarri batzuk izango ditu eta ezaugarri horretan oi-

narrizkoena herritarren borondatea izango da. Beraz, guretzako, aukera bat da hau eta uste dugu gure esfortzu guztiak jarri behar ditugula marko politiko berri bat eratzeko."

Uribe-Etxebarria ere bat etorri zen Urizarrekin eta autogobernua eguneratzeko beharra nabarmendu zuen: "Guretzat, oso baliagarria izan da Gernikako Estatutua, nik uste dut hori ezin duela inork ukatu, herri hau berriro martxan jarri eta altxatu egin baitzuen. Baina testu hori duela berrogei urte onartu zen, eta, dakigunez, ez da erabat bete. Gainera, ahulezia batzuk ere baditu; beraz, gure autogobernua eratzeari ekin behar diogu, beharrezkoa baita. Ondorioz, guk oso positibotzat eta ontzat jotzen dugun autogobernuari buruzko batzorde hau egiten ari den lana".

Berrogei urtean lehen aldiz

Legebiltzarkide jeltzaleak berrogei urtean lehen aldiz alderdi guztiak elkarlanean jarri izana nabarmendu zuen: "Azkeneko berrogei urte hauetan ez da horrelakorik izan, biolentzia ere tartean egon baita, eta orain, hori ere desagertzean, lehendabiziko aldiz denok gaude mahai baten inguruan. Nik uste dut abagune izugarri polita eta garrantzitsua dela hau, lana txukun, serio eta sakon egiteko eta, ahal den neurrian emaitza on bat lortzeko".

Posizio maximalistak

Julen Bollainek, Elkarrekin-Podemosko legebiltzarkideak, berriz, ponentzia martxan jarri zenean zegoen adostasuna go-raipatu zuen, alde batetik, baina, bestetik, EAJk eta EH Bilduk lurraldetasunaren eta identita-

tearen gaitan izandako jarrerak adostasun hori hautsi izanagatik atsekabea ere adierazi zuen: "Uste dugu pena bat izan dela Alderdi Jeltzaleak eta EH Bilduk euren posizio maximalistekin jarraitzea eta kontsentsu zabalak ez bilatzea. Lehenengo aldiz, Euskadi nazio gisa hartzen zuen testu legal bat izateko aukera izan genuen, zeina Madrilgo Gorteeke babestuko zuten, eta, tamalez, posizio maximalista batzuen erruz hori ez da posible izan".

EH Bilduko legebiltzarkideak, berriz, Podemosi bertigoa eduki izana egotzi zion; EAJri, berriz, akordiorako borondatea aitortu zion eta gainontzeko alderdiei. aldiz, gauzak aldatzeko jarrera falta.

EH Bilduren eta EAJren artekoa

Momentu honetan, EAJk eta EH Bilduk adostutako testuari forma juridikoa ematen ari da aditu talde bat eta Urizarrek ontzat jo zuen EAJrekin adostutakoa: "Ez da ehunetik ehunetik guk gurako genukeena, baina badakigu hankak lurrean jarri behar direla eta oso garrantzitsua dela ahalik eta akordio zabalenak egitea. Zentzu horretan, boto partikular batzuk EH Bildu bezala ere aurkeztu ditugu, baina argi dagoena da onartu den testua guretzako ona dela eta, hain zuzen ere, aukera asko ematen dituela gaur gauden egoeratik beste egoera hobeto batera pasatzeko".

EAJ-K ETA EH BILDUK ADOSTUTAKO TESTUARI FORMA JURIDIKOA EMATEN ARI DA ADITU TALDEA

Willy Toledo Venezuelaz mintzatu da Bergaran

Gaur, martxoak 1, Arrasateko Kulturaten eskainiko du hitzaldia, 18:30ean, Agustin Otxotorenarekin batera

Amaia Zabala BERGARA

Willy Toledo aktore eta aktibistak eta Venezuelan bizi den Agustin Otxotorena euskal enpresariak Venezuelari buruzko hitzaldia eman zuten ostiral arratsaldean Bergarako kartzela

la zaharreen. Toledok 2003an Iraken egindako "inbasioarekin" alderatu zuen Venezuelako egoera: "Ameriketako Estatu Batuen aurrean belaunikatzen ez den Gobernu bakarretakoa du Venezuelak, eta, horrez gain, ba-

liabide natural ugari ditu: petrolio, diamanteak, urrea, zilarra... Gainera, AEBetatik bi mila kilometrora besterik ez dago". Gaineratu zuen egoera hau ekonomiko eta militarki gelditu dezaket "bakarrak" Txina eta Errusia direla: "Ez badute hau geratzen, Irak bat ez, Vietnam bat izango da hura".

Otxotorenak salatu zuen hemengo komunikabideetan Venezuela Afrikako herrialde baten moduan irudikatzen dutela, eta hori ez dela horrela.



Hitzaldiaren amaieran familia argazkia atera zuten entzuleekin. IBAI REDONDO



Larraña etxean dauden asilo eskatzaile bi, euren logelan.



Egoiliarak eskolak hartzen, Larraña etxean bertan, irakaslearekin. ARGAZKIAK: ENEKO AZURMENDI

22 nazionalitatetako 104 pertsona artatu dituzte Larraña Etxean urritik

2018ko urrian ireki zuten Oñatiko Larraña Etxea, asilo-eskatzaileentzako harrera zentroa, eta orduko hartatik bost hilabete pasa diren honetan, orain artekoa "modu positiboan" baloratu dute Jaurlaritzak eta CEAR-Euskadi zentroaren kudeatzaileak

Eneko Azurmendi OÑATI

Bost hilabete daramatza martxan Eusko Jaurlaritzak finantzaturako eta CEAR-Euskadik kudeatzen duen Oñatiko Larraña Etxeak. Hori dela eta, orain

artekoak emandakoa ebaluatzeaz gain, bisita gidatu bat eskaini diete komunikabideei. "Zentro hau ez da albiste baten arrazoia izan, berri onak ez direlako albiste izaten. Zentro hau, orain

arte, jardunbide egokiko gertara da", azaldu du Jonan Fernandezek, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lan-kidetzaren idazkari nagusiak. Era berean, "errefuxiatuenga-

nako eta migratzaileenganako elkartasuna bultzatzen duten tokiko erakundeen, boluntariozaren eta bizilagunen inplikazioa" azpimarratu du, baita "bizilagunen inplikazioa eta sortu den lankidetzarako marko publiko-sozialaren egokitasuna".

Laguntzaren garrantzia

Patricia Barcenak, CEAR-Euskadiko zuzendariak, nabarmendu du "Oñatiko herritarrengandik eta tokiko elkarteetatik jasotako laguntzaren garrantzia". "Larraña Etxea aldi baterako harrera-eredu oso positiboa da. Izan ere, demostratu du nola koordinatu daitezkeen zentroaren lan-dinamikak herriaren, boluntarioen, herritarren plataformen, Udalaren eta beste eragile batzuen inplikazioarekin", zehaztu du.

Harrera zentroko zuzendari Arantza Chaconek, berriz, adierazi du Larraña Etxean elkarrekin bizi direla jatorri eta kultura ezberdinetako pertsonak, familia-egoera eta adin desberdinak dituztenak. "Hori aberasgarria da elkarrengandik ikasi eta elkarri laguntzeko".

104 pertsona sei hilabeteetan

Larraña Etxean orain arte artatutako pertsonen profil nagusia honako hau da: 20-30 urte bitarteko gizona eta Saharaz hegoaldeko etorritakoa –Ginea-Konakry, Kamerun, Boli Kosta...—. Hala ere, adin txikikoak dituzten hiru familia eta bikote bat ere bizi dira. Kontuan hartu behar da batzuk irten egiten direla eta beste batzuk sartzen joaten direla. Hala, gaur egun, 83 pertsona bizi dira zentroan.

"Zorte handia izan dut Oñatira iritsita"

SAIF ELDIN LARRAÑA ETXEKO EGOILIARRA

Sudango Khartum hirian jaiotakoa da Saif Eldin. Herrialdeak bizi duen egoera latzetik ihesi, 2017an iritsi zen Espainiara, eta 2018an Bilbora. Orain, Oñatin dago.

Zein egoera bizi du Sudanek?

Egoera politikoa oso bero dago han, oso giro nahasia da. Presidenteak 30 urte daramatza karguan, eta jendea kalera irteten hasi zen presidente aldatuta eta baita Gobernu aldatuta ere eskatzeko. Iparraldeko Sudanen eta Hegoaldeko Sudanen arteko gerra bukatzean, herrialdea bitan banatu zen. Gobernuaren miliziekin arazo handiak daude.

Zuk zeuk zergatik utzi behar izan zenuen Sudan?

Bederatzi urtez Saudi Arabian lanean aritu nintzen, eta, Sudanera itzuli nintzenezan,



E.A.

proiektu komertzial bat abian jartzea erabaki nuen. Herrialdeak bizi zuen egoera ekonomikoa ez zen batere ona, eta, Darfur eskualdean komertzio asko zeudenez, hara joatea erabaki nuen. Hala ere, Gobernuaren miliziek atxilotu egin

ninduten, eta hilabetez egon nintzen preso. Tribu arabiarak eta afrikarrak bereizten dira Sudanen eta aurkakotasun handia dago bien artean. Ni arabiarra naiz, baina jatorri afrikarra daukat. Arrazismo handia dago, eta eguneroko bizitza oso gogorra da Sudanen. Beraz, kalera irteterekin batera, herrialdea uztea erabaki nuen.

Noiz iritsi zinen hona?

Saudi Arabian lan egin nuen, eta, bisa daukadanez, hegazkinez bidaiatu ahal izan nuen. 2017an iritsi nintzen Espainiara, eta 2018ko apirilean Bilbora. Lehenik, poliziarengana joateko esan zidaten, asilo eskaera egitera, eta ondoren, CEAR Euskadirekin harremanetan jarri nintzen. Esan zidaten itxaron egin beharko nuela, errefuxiatu asko zeudelako Bilbon. Hiru

hilabete itxaroten egon ostean, esan zidaten logela bat zutela niretzat.

Zer moduz bizi zara Oñatin?

Hemen oso lasaia da bizitza. Hemengo jendea oso adeitsua da eta beti dago prest laguntzeko, eta hemendik eskerrak ematea gustatuko litzaidake guztiei. Zentroan bertan ere oso gustura bizi naiz. Bilbon baino askoz ere hobeto. Ez zait ezer falta.

Zein da zuen egunerokoa hemen?

Zentroak eskaintzen dizkigun aktibitate guztiak bikainak dira. Informatika klaseak jasotzen ditugu, eta gaztelania ikasten gabiltza. Futboleak jokatzen dugu, eta telebista gela bat ere badaukagu.

Etorkizunean, ze asmo daukazu?

Nire egoera formalizatzeako agiriak lortu nahi ditut lehenik, eta lana aurkitu. Modu horretan, nire familia hona ekarri gura dut, Sudanen bizi duten egoera ez delako batere erraza. Oraingoan, asiloaren zain nago eta ez dakit non bukatuko dudan. Baina zorte handia izan dut Oñatira iritsita.



ZABALIK

XABIER ARREGI MURGIENDO

Elkarbizitza ipar

Giza eskubideen, konponbidearen eta bakearen alde elkarrekin lan egiteko herritarrak biltzen ditu Sare mugimenduak. Iraganeko zauriak sendatuz, jendarte bezala aurrera eginez eta adostasunak landuz, elkarbizitzan pausoak emateko prest gauden herritarrak. Bide horretan oztupo ugari aurkitu arren pausoak ematen jarraitu behar dugula sinesten dugunok. Horien lekuko, euskal presoen gradu aldaketen gainean Sarek emandako azken datuek erakusten diguten egoera.

Presoen birgizarteratze prozesuari lotua dagoen sisteman hiru gradu bereizten dira, lehen mailako neurri zorrotzak –krudelak– progresiboki leunduz hirugarrenera arte.

Euskal presoen %84 lehen graduan aurkitzen da, eta, gainera, egoera hori espesxealdi hasieratik ezarritakoa da. Euskal presoak prest agertu badira sistemak ezarritako gradu progresioa jarraitzeko, eginiko 115

PRESOEN ZEIN ESPETXEEN AUZIARI BEHIN BETIKO IRTENBIDEA EMAN BEHAR ZAIO

eskaeretatik, hiru besterik ez da onartu, 69k ezezkua jaso dute eta 43 presoren eskaerek erantzunik gabe jarraitzen dute. Sarek jakinarazi duenez, are konplikatuago egiten

zaie bigarren gradua lortu duten preso apur horiei hirugarrena eskuratzea.

Urruntze politikak bere horretan jarraitzen duela, eta oraindik ere espesxean larriki gaixo diren 21 preso daudela ere gehitu behar, legearen kontrako egoeraren gordintasunaz kontzientzia hartzeko.

Inoren eskubideak urratzen jarraitzen diren bitartean, zaila egingo zaigu elkarbizitzarako espazioak eraikitzea, bakearen eta konponbidearen bidean.

Edonola ere, elkarbizitzarako oinarritzakoak diren auziei begira irtenbideak jorratuz eta ozenki aldarrikatuz aurrera egin behar dugu, elkarrekin. Biktimen izaera politikoki erabiltzeko jarrerak baztertuz, biktima guztiei zor zaien aitortza eta errespetuzko trataera egokia adostuz, eta presoen zein espesxeen auziari behin betiko irtenbidea emanez, bereziki.

Guk, Puigdemont-ek bezala, atek zabalik ditugu!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Dependentziak

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

HTTPS://LABUR.EUS/EAJER
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Drogatzat (edo ez) ditugun gauza anitzi diogu dependentzia: kafeari, alkoholari, tabakoari, zenbait pertsonari, diruari, Espainiari eta Frantziari... Denak dira kezkarriak, baina bada bat egunotan bereziki sortu didana kezka, haren gabeziak erabat nahasi nauelako, eta, beraz, dependentzia erabatekoa erakutsi.

Donapaleuko libertimendutik heldu ginen, egun-pasa zoragarria egin ondotik autoan kantari, eta telefono mugikorrik gabe

pasatua nuen eguna, ustez etxean ahantzia nuelako. Egunean zehar sumatu nuen jada haren falta: argazkiren bat ateratzeko, Amikuzeko inauterietan zeinen ongi pasatzen ari ginen komunikatzeko lagunei... Baina bueltarakoan etxean ez zegoela ohartuta, mundua erori zitzaidan; istant batez aldatu zitzaidan aurpegia. Ez bainengoen bakarrik telefonorik gabe: bat-batean eta aldi berean galduak nituen iratzargailua, nire kontaktu guzien zerrenda... [...] Behar dudana guzia gailu bakar batean; eta haren beharraz larrituta, kezkatu egin nintzen.

Zorionez (?) aurkitu dut; autoan zegoela ez ginen ohartu, eta 30 bat ordu baino ez ditut pasatu gailua gabe. Eta, bistan da, ez zait mundurik erori: ostatura joan eta han zeuden lagunak, afaltzeko plana ere egin nuen horietako batekin... [...] Autoan, are, seguruago joan naiz: ez dudalako izan pantailari begiratzeko eta audiorik bidaltzeko tentaldirik. [...]

Eman dit, ordea, zer pentsatua tarte laburrak: nolako dependentzia dugun, eta zenbateraino eraldatzen dituen harremanak eta pertsonak; abstinentzia sentitzeraino.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Igone Osinaga.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Ekonomia sozialeko ekimen errealak ezagutu ditugu"

ARIANNE KAREAGA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO LANKI IKERTEGIAN IKERLARI

Eneko Azkarate OÑATI

Ekonomia soziala eta lurraldeak berbagai izan dituzte Oñatin, ekonomia sozial berria eta ekintzailtasun soziala sustatzeko Koopfabrika programaren ekimenez.

Zer da Koopfabrika?

Lankidetzan sortzen den programa bat, Gipuzkoan ekintzailtasun sozial eta kooperatiboa sustatzeko. Hirugarren urtea du. MU eta EHU unibertsitateak, Olatukoopen saretuta dauden beste hainbat eragile eta administrazio publiko daude. Azken hauetatik, Foru Aldundia eta Gipuzkoako garapen agentzia batzuk.

Ekimen sozialek, erakunde publikoekin lankidetzan?

Bai, halaxe da, bai, beste alor batzuetan arrakasta izan duen formula erabilita.

Ze emaitza eman du orain arte?

Koopfabrikan azken hiru ikasturteetan 144 lagunek eman dute izena. Horietatik, 50 lagun aurtengo edizioan ari



Arianne Kareaga, atzo, Arrasaten. ENEKO AZKARATE

dira. Lehen bi ikasturteetan, gehienak ideia garbirik barik hurbildu ziren, formatzeko eta esperimentatzeko gogoz. Aurtun, aldiz, etengabeko izen emate formula eta laguntza hasieratik jarri ditugu eta

horrek bere emaitzak eman ditu. 43 proiektu tutorizatzen dihardugu. 21 laguneko tutore sarea daukagu horretarako.

Lanpostuak ere sortu dira?

Bai. Kontsolidatutako proiektuak, guztira, 37 izan

dira. Debagoienean, 2; Bidasoan, 7; Beterrri Buruntzan, 21, eta Oarsoaldean, 7. Orain arte, 60 lanpostu sortu dira, zerbitzuen alorrean eta industrian: kooperatibak, elkartek eta autonomoak. **Zein da Koopfabrikan azken helburua?**

Proiektu ekonomikoak gauzatzea, baina lurralde bateko premiei lotuta eta, betiere, begirada sozialarekin, ez dadin izan ekonomia eredu hutsa.

Ze landu duzue Oñatiko jardunaldian?

Hainbat esperientzia ezagutzeko aukera izan da, azaldu digutenak lurralde baten, eskala ezberdinetan – udal, eskualde eta nazio mailan– ekonomia soziala bultzatzeko eta proiektuak sustatzeko zer egin ahal den. 45 lagunek hartu dute parte. Udal eta garapen agentzietako teknikariak; udal zinegotziak; kooperatibetako kideak; eta Koopfabrikako parte hartzaileak.

Debagoienean bultzatzen ari den Gizarte Berrikuntza Plataformaz ere aritu zarete.

Pixkanaka eraikitzen dago. Esan daiteke saiakera indartsu eta gaurkotua dela, baliabideak izango dituen eta Debagoienetik abiatuta.

HAU BE BADOGU!

Euskal Taldeak Erreginaren Kopan



Hiru euskal taldek parte hartuko dute aste bukaera honetan jokatu den Saskibaloiko Erreginaren Kopan. Lointek Gernika bizkaitarrak, IDK gipuzkoarrak eta RPK Araski arabarrak. Bertan izango da Izar Bedia arrasatearra ere:

@EskoriatzaSaski: "Gure jokalaria ohi Izar Bediak eta kirol zuzendari Julen Forniesek Erreginaren Kopa jokatu dute. Gu ere Araskirekin! Aurrera neskak! #jarriberdea #harrotasunberdea".

Martxoaren 8rako motorrak berotzen

Astebete gelditzen da Mugimendu Feministak deitutako grebarako, eta #m8 traola dagoeneko *rending topic* izan da Twitterren.

@etxebe_2: "Feministok etxeko lanak egiten gabiltza: boteretzen, auto-antolatzen, proposamen politikoak eguneratzen, aldarrikapenak biltzen eta, beharrezkoa denean, auto-kritika egiten. Jarraitu dezagun gauero iraultza feminista amesten. Jarraitu dezagun egunero iraultza feminista antolatzen".

'#Procesepaiketa' eta Urkullu hizpide

Eguaztenean Mariano Rajoy presidente ohiak independentista kataluniarren epaiketan Auzitegi Gorenean egindako deklarazioa hizpide izan da sare sozialean. Bertan, Iñigo Urkulluren izena irten zen behin eta berriz:

@antonomiamaestre: "Azkenean, epaiketa politikoa izan da. Oraingoz, PPren politika agerian utzi du Rajoyk, eta, zeharka bada ere, Urkullu bitartekari izan zela aitortu du" (itzulita).

ITURRI ONETIK

Arizmendiarieta, Arrasateko udaletxean

Arizmendiarietaren Lagunak Elkartearen proposamenari eutsiz, Arrasateko udalbatzak iaz erabaki zuen osoko bilkuren aretoan jartzea Jose Maria Arizmendiarietaren erretratu bat –margolana–, eta kale edo plaza bati haren izena jartzea. Era berean, erabaki zuen herriko emakumezko esanguratsu batekin ere berdin jokatzea. Nor izango den erabakitzeko batzorde bat eratuko dute. Bestetik, Arizmendiarietaren margolana martxoaren 4an jarriko dute, "ekitaldi xume" batean.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-03-01

Izotz-gangar ikusgarriak eta 8 gradu zero azpitik

Sasoi honetako inoizko temperaturarik epelenak ditugu uda giroko negu honetan: 26 gradu, otsail amaieran. Aldaketa klimatikoaren erakusle garbia, batzuek ikusi nahi ez badute ere. Negu gogorak ere izan ditugu, ordea; iazkoa, esaterako, elur urtea izan zen. 2005ekoa ere bai. Oñatin, Arrasaten, Bergaran... 8 gradu zero azpitik izan ziren martxoaren 1ean. Eta Arantzazun izotz-gangar ikusgarriak sortu ziren.





M8 plataformako hainbat lagun, martitzenean, Portaloian egindako prentsa agerraldian. MAIALEN REGUEIRO

Emakumeon eskakizunak erdigunean jarriko ditugu

lazko greba inflexio puntu bat izan zen, eta aurten, foku berezia jarriko dugu zaintzan eta alor sozioekonomikoan. Planto egingo diogu kapitalismoari, patriarkatuari, hetero arauari, kolonialismoari eta kapazitismoari, eta kontsumo greba ere egingo dugu

Goiena komunitatea

M8 plataforma / ARRASATE

2018ko Martxoaren 8a inflexio puntua izan zen mugimendu feministan. Aurten, gure aldarrikapenak sakondu, aliantzak estutu eta bizitzak erdigunean jarri nahi ditugu zentzu zabalean.

Erdigunean jarriko ditugu emakumeon aldarrikapenak, eta begirada berezia jarriko dugu egoera zaugarrienean daudenengan: etxeko langileak, emakume baserritarrak, pentsionistak, gazteak, migratzaileak, aniztasun funtzionala dutenak, gorputz disidenteak, lesbianak... 2019ko greban, alor sozioekonomikoa eta zaintzen gatazka aza-

leratu nahi ditugu, bereziki. Zaintza lanak ezin baitira prekaritatean edo doan emakumeon bizkar geratu. Bizitza sostengatzeko ardurak kolektiboak behar dugu; horretarako, zaintzaren berrantolaketa soziala aldarrikatzen dugu, politika publikoen zeharkako ardatza izan dadila.

Planto bost aspekturi

Martxoaren 8an honako honi egingo diogu planto: kapitalismoari; gutxi batzuen aberastaren mesedetan, bizitzen eta planetaren ustiaketa desorekatua, suntsipena eta prekaritatea bultzatzen duen sistemari. Patriarkatuari; emakume bezala sozializatu gaituztenon gaineko

dominazioari eta biolentziari. Hetero arauari; alor sozial, politiko eta ekonomikoa, eta giza eta produkzio harremanak arautzen dituelako, LGTBIQ+ fobia sustatuz. Kolonialismoari; herrien asimilazio historikoaren bitartez pribilegio sistema bat ezarri delako, bazterketak eraginez. Eta, azkenik, kapazitismoari; aniztasun funtzionala dutenak alboratzen dituelako.

Guk, emakume anitz feministok, bestelako mundu bat erakitzea nahi dugu. Mundu eta herri bat, non bizitza, zaintza, ekonomia eta harremanak bestelako modu batean ulertuko ditugun. Jendarte eredu berri bat eraikitzea gatzoz.

Martxoaren 8aren bueltako egitaraua

Martxoak 7, eguna

- **17:00** Kalejira, zaintza lanei aitortza egiteko.
- **19:00** Triki-poteo feminista, Arbolapetik abiatuta.
- **22:00** Lapiko-jotzea Herriko Plazan.

Martxoak 8, barikua

- **12:00** Elkarretaratzea Herriko Plazan.
- **14:00** Bazkaria, etxetik eroandako jakiekin. Eguraldi onarekin, Herriko Plazan. Eurria bada, Azoka plazan.
- **16:00** Mikrofono irekia, poesiak, abestiak, bertsoak... abesteko.
- **17:00** Sormen-gunea manifestaziorako materialak prestatzeko: pankartak, kartelak...
- **19:00** Seber Altube plazatik, manifestazioa.

Plataformaren azken batzarra

Agerraldiaren ostean, azken ukituak eman genizkion Martxoaren 8ko egitarauari. Horrez gain, Inauterizapatuan, pregoiaren aurretik, agerraldia egingo dugu Seber Altuben, 11:00etan, eta ostean, parte hartuko dugu Inauterietako desfilean.

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelehenean, Herriko Plazan elkartuko dira, 12:00etan.

Ziar-ola elkarteak

Ohiko batzar orokorra egingo dute martxoaren 10ean; 10:00etan lehen deialdia eta 10:30ean bigarrena.

Odol emateak

Martxoaren 5ean aukera izango da anbulatorioan, 16:30etik 20:00etara. Hurrengo txanda martxoaren 28an, Laubide plazan, 16:30etik 20:00etara.

Leire Arregi Vicente

Hark irabazi du M8-ko kartel lehiaketa. Zorionak!

Ludoteketan ate irekiak eta hainbat ekintza berezi

Hilabeteko azken ostegunetan ate irekien jardunaldiak egingo dituzte ludotekek -17:00-19:30-, oraindik bazkide ez diren horiek euren jarduna ezagutu dezaten. Horrez gain, martxorako, hainbat ekintza berezi ere prestatu dituzte. Gaur, martxoak 1, 4 eta 7 urteko haurrentzako yoga tailerra egingo dute Usaetxeokan. Martxoaren 15ean, sormen koktela egingo dute Okendokoan eta martxoaren 29an *street boulder*-a praktikatuko dute Santa Marinakoan. Bestalde, aste honetarik aurrera neguko ordutegia alde batera utzi, eta udakoaren funtzionatuko dute ludotekek: astelehenetik barikura, 17:00etatik 20:00etara.

arbolapeta

arrasate

beinke

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Salca Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

| | |
|--|-------------------------------|
| Diagnostikoa - Orientazioa | Arreta goztiarra |
| Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak | Logopedia |
| Laguntza eskolarrak | Ikasketa teknika eta ohiturak |

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 140/18

"Parte hartzea handitu nahi dugu urtetik urtera"

IÑAKI GURRUTXAGA 'HARRISTI' INAUTERIEN KOMISIÑOKO KIDEA

2019ko Inauteriak ate joka datoz eta aurten, iaz ez bezala, eguraldia lagun izango da. Antolatzaileek argi adierazi dute ez dutela inongo eraso sexistarik nahi: "Ez, ezetz da!"

Xabi Gorostidi ARRASATE

Iñaki Gurrutxaga *Harristi* Inauteriak antolatzeko taldeko partaide da, eta itxaropentsu dago aurtengo edizioari begira.

Nola datoz 2019ko Inauteriak?

Iazkoekin alderatuta, aurten ez da arazorik aurreikusten eguraldiarekin lotuta; beraz, hobeto datozela esan daiteke. Iazko desfilean euri pixka bat egin zuen, eta plazako ekitaldian pixka bat baino gehiago. Zapatutako, baina, iragarpenak onak dira, eta ea giro polit honek martitzeneraino irauten duen.

Karroza deigarrik ez da faltako...

Hori, dakizuenez, sekretua izaten da. Esan dezakedana da nire



Iñaki Gurrutxaga *Harristi*, aste honetan ateratako argazkian. XABI GOROSTIDI

taldekoak, adibidez, ez gabela karrozarekin aterako; baina desfilean berdin-berdin hartuko dugu parte.

Zenbat laguneko taldea zaudete antolakuntza lanetan?

Batzuk gaude. Ez gara asko, egia esan, eta, horregatik, dei egin nahiko genuke datorren urtean jende gehiago batu dadin. Duela bi urte, 14 urteko lau gaztetxo batu ziren taldera, eta oso pozik gaude, batez ere, oso motibatuta daudelako.

Iaz, lehen aldiz, karroza gaztearen saria eman zenuten. Aurten?

Bai. Iaz, gazte talde gehiago animatzea lortu genuen, eta aurten bide beretik joatea nahiko genuke. Baina ez gazteak bakarrik: parte hartzea handitu nahi dugu urtetik urtera: gazte, heldu eta adindun... eta horretarako gaitza lanean.

Zenbat sari banatuko dituzue? Eta nola aukeratzeko dituzue irabazleak?

Gazte kuadrilla onena, kuadrilla onena, taberna onena, emakume onena eta gizonezko onena. Sari horiek emango ditugu. Aurteko urtean saria irabazi zutenek aukeratzeko dute irabazle nor izango den.

Zapatuko eta martitzeneko egitaraua

Martxoak 2, zapatua

- **12:00** Pregoia Biterin, eta ostean, desfilea.
- **13:00** Sari banaketa, Herriko Plazan.
- **18:00** Kalejira Arrasate Musikaleko txarangarekin.
- **19:30** Dantzaldia Herriko Plazan Bide Batez taldearekin.

Martxoak 5, martitzena

- **17:00** Mozorro desfilea Herriko Plazan.
- **17:00** Potx eta Lotx Amaia antzokian.
- **17:30** Samasiku txaranga.
- **18:30** Erraldoi eta kilikien konpartsa.
- **19:30** Dantzaldia Herriko Plazan, Alaiki taldearekin.
- **21:00** Sardinen hiletta Herriko Plazan. Segizioa 20:30ean aterako da Zerrajeratik.

Badator udaberria Gerta zaitez

Gorputz tratamenduak algekin,
lokatzarekin eta aparatuekin

Dieta pertsonalizatuak

Gorputz mesoterapia

... askoz gehiago

*Lagunduko dizugu,
galde egiguzu*

AMAGARA
Estetika Zentroa

Erdiko kale 54, beheka 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara



Irudiko lau kokaleku horietan jarriko dituzte igogailuak, eta lehen biak egiteko lanak aurrean hasi nahi dituzte. XABI GOROSTIDI

Lau igogailu, Erguingo irisgarritasuna hobetzeko

Uribarri kaletik Anboto kaleraino eskailerarik igo gabe joatea ahalbidetzea du helburu egitasmoak –166 eskailera daude–. Lehen biak maiatza baino lehen aterako dituzte lizitazioa eta lanak urtea amaitu baino lehen hastea nahi du Udal Gobernuak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Mugikortasun Planak hainbat igogailu sistema aurreikusten zituen Arrasaterako, eta horietako bat Erguingoa zen. Horrez gain, 2018ko aurrekontu parte hartzaileetan proiektu botatuen artean izan zen Erguingo igogailua, eta diru partida bat ezarri zen proiektua idazten hasteko. Asmatu ingeniariaren enpresa dabil zeregin horretan eta martxoan amaituko dute. Hala ere, martitzenean aurkeztu zuten egitasmoa, Hauteskunde Legearen eraginez martxoaren 5etik aurrera ezin baitira proiektu berriak aurkeztu. "Adindun jende asko bizi den auzoa da Erguingo, eta proiektu honekin haien mugikortasuna nabarmen hobetuko da" azaldu zuen Maria Ubarretxena alkateak.

Lauko sistema

Auzoaren hedapena eta konplexutasuna kontuan izanda, lau igogailu dituen sistema diseinatu du Asmatu enpresak, Uribarri

kaletik Anboto kaleraino bidea eskailerarik igo gabe egiteko. Gaur egun, ibilbide hori egiteko 166 eskailera igo behar dira; beraz, mugikortasunean hobekuntza nabarmena izango da. Ikusizko inpaktua ahalik eta txikiena izatea izan da beste helburuetako bat. "Bi igogailu erraldoi ere egin zitezkeen, geldileku eta pasarela ugariarekin, baina inpaktua oso handia izango litzateke".

Lehenak Uribarri eta Uriburu kaleak lotuko ditu, eta tarteko geldialdi bat izango du Emun kooperatibaren maila berean. Pasarela bat ere izango du, bigarren igogailuarekin lotuko duena. Bigarrena Uriburutik Erguingo kalera joango da, eta

LEHEN BI IGOGAILUEN LANAK MAIATZEAN LIZITATZEA ETA 2020 AURRETIK HASTEA AURREIKUSTEN DUTE

tartean bi geldileku edukiko ditu, eskaileretan zehar dauden atarteetara joateko. Uriburuko solairuan plaza txiki bat ere sortuko dute.

Hirugarren igogailuak Erguingo eta Udalpe kaleak lotuko ditu, eta tarteko geldileku bat izango du Elizalde kalera joateko. Udalpe kaleko plazatxoak –bihurgune alboan dagoena– altxatu egingo dute, Udalpe kalearen maila berean jartzeko. Laugarren igogailua, aldiz, Udalpe kale erdian joango da, eta Anboto kaleraino igotzeko balioko du. Horko eskailerak erditik moztuz gero, eskuinaldean joango litzateke igogailua, bertako etxebizitza blokeari itsatsita.

Epeak eta aurrekontua

Lehen bi igogailuen lanak batera esleituko dira. Alkatearen arabera, maiatzeko hauteskundeak baino lehen aterako dute obralizazioa, eta 1.100.000 eta 1.200.000 euro arteko aurrekontua izatea aurreikusten dute –BEZa barne–.



MIKEL EZKERRO

'Bizimoduak berreraikiz'

Hainbat jatorritako gazteen eta autoktonoen iritziak jaso ditu Amaia Txintxurreta kazetariak *Bizimoduak berreraikiz* izeneko ikus-entzunezkoan. Arrazakeria, aurreiritziak eta halako gaiak jorratzen ditu, eta aurkezpena martitzenean egingo dute, 18:30ean, Kulturaten. Martxoaren 8an, aldiz, Goiena telebistan emitituko da: 21:30ean eta 23:30ean.

Musakolan amaituta, San Andres izango da hurrengo geldialdia

Goiena komunitatea

Ludoteka ibiltaria / ARRASATE

Musakolako azken saioan denetarik egin genuen: krepak, *parkour*-a, eskupilota, tatuajeak, aurpegi margotzea, soka-jolasak... Orain, San Andres auzora mugituko gara; martxoaren 9an hasita. Hala, askotariko ekintzez gozatu ahaliko dute bertako haurrek, lau larunbatez jarraian.

OHARRAK

Willy Toledo Arrasaten

Agustin Otxotorenak hitzaldia egingo du gaur, 18:30ean, Kulturaten, Venezuelako egoerari buruz, eta bertan, aktore ezagunarekin batera arituko da.

Kultur memoriak

Lantegien saioak atzeratu egin dituzte, ondorengo datetara: martxoaren 22ra, 30era eta apirilaren 13ra.

AKADEMIA

BASIDA

Ingelesa

Frantsesa

Alemana

Doako ikastaroak, diruz lagunduta

Hainbat maila • Hainbat ordutegi

Araba etorbica 3,1 • Arrasate • 943 79 35 33

Etorkizuneko kiroldegia forma hartzen hasi da

Kluben eta erabiltzaileen beharrak kontuan hartuta, Izaskun Larzabal arkitektoak egin du aurreproiektua, 23.935.620 euroko aurrekontuarekin –BEZik gabe–. Proiektu finala egiteko, prozesu parte hartzailea egingo dute; lanak ez dira hiru urte barru arte hasiko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Musakolako kiroldegia 42 urte beteko ditu aurten, eta aluminio arazoak ditu. "Arazo hau kronikoa da, eta agintaldi honetan 1.000.000 euro bideratu ditugu mantentze arazo horiek estaltzera. Horrez gain, kirola egin nahi duten arrasatearren kopurua gora doa, eta guztiz beharrezkoa iruditzen zaigu kiroldegi berria egitea, eta horretarako urratsak egiten hastea", azaldu du Maria Ubarretxena alkatea, aurreproiektuaren aurkezpenean.

Igerilekuak

Berrikuntza nabarienen artean igerilekuak daude, batez ere kanpoko eta barruko aldi berean erabili ahal izango direlako. Kanpoko erabat ludikoa izango da, erreka alboan joango da, 4.500 metro kubiko izango ditu eta 1.500 laguntzako edukiera izango du –oraingoa 950 lagunendakoa da–. Barrukoak hiru gune izango ditu: igerileku handia –25x25 metro eta 10 kale–, igerileku txikia eta spa gunea, askotariko txorrotekin.

Hiru solairu eta bi kantxa

Hall nagusia –600 metro koadro– lehen solairuan joango da eta sarbidea izango du atletismo

pistara eta Mojategira. Igerilekuak eskuinaldean geratuko dira, eta ezker aldean bi kantxa, bi tenis zelai, bi padel zelai eta Antoña gunea. Honek gaur egungo distribuzio bera izango du –bi frontoi, hiru squash pista eta saskibaloirako kantxa bat–, baina berriro egingo dute.

Azpiko solairuan, hiru gimnasio –normala, arte martziale-na eta kirol klubena–, kirol lasaizentzako bi gela, kirol aktiboentzako bi gela, biltegiak, parking txiki bat barne erabilerarako eta rokodromoa –hamar metroko altura izango du, eta hiru solairuetan luzatuko da–. Solairua ez da guztiz lur azpian geratuko eta argi naturala izango du.

Bigarren solairuan kafetegijate handi bat joango da, bi kantxetako harmailak eta ikastaroak egiteko gela batzuk.

Sabai berde eta erabilgarriak

Igerilekuaren eta kantxa eremuen sabaia berdea eta erabilgarria izango da. Igerilekuarena, adibidez, eguzkia hartzeko gune izango da, eta ur-jolas batzuk ere izango ditu. Kantxen gaineko sabaia yoga, beroketa edo k-streht aktibitateak egiteko erabiliko dira. Gune berde horiek eraikinaren isolamendu termi-

koarentzat lagungarri direla azaldu du Larzabalek, "baita ingurunearekin integrazteko ere".

Hiru urte lanak hasi arte

Asteon aurkeztutakoa aurreproiektua da, baina oraindik prozesu parte hartzaile bat egin behar da, proiektua idazteko



Itxura hori du, kanpotik, Izaskun Larzabalek diseinatutako kiroldegia. I. LARZABAL

lehiaketa publikoa deitu behar da, ostean horri ekarpenak egin eta proiektu finala idatzi behar da, eta, amaitzeko, lanak esleitu. Alkatearen hitzetan, "azkar egingo da ere, hiru urte pasako dira lanak hasten diren arte".

Epeak eta tarifak

Lanak faseka edo segidan egin, proiektu finalak esango du, eta ikusteke dago lanek iraun bitartean zein soluzio ematen zaien herritarrei. Tarifak igo edo mantendu, aurrerago zehaztuko dute.



Barruko igerilekuak spa gunea izango du, eta kanpokoarekin batera erabiliko da. I.L.

Glasgowko finalean egotea du amets Axpek

Gaurtik hasi eta domekara bitartean, pista estaliko Europako Txapelketak jokatu dituzte Eskoziako hiriburuan; Maialen Axperen txanda bihar, zapatua, goizean izango da, 11:00etan. Zail du finaletan egotea, baina horretan saiatuko da arrasatearra

Xabier Urzelai ARRASATE

Maila absolutuan jarraian egin-go duen nazioarteko bigarren hitzordua du Maialen Axpek (Arrasate, 1993) asteburuan. Abuztuan Berlinen egindako aire libreko Europako Txapelketan, Bedoñakoa gustura gertatu zen, finaletarako sailkatu ez bazen ere urduritasunak alde batera utzi, eta sentsazio onak lagunduta bere maila erakutsi ahal izan zuelako (4,35).

Asteburuan, baina, pauso bat aurrera eman gura du. Inoizko sasoirik onenean egonda, duela bi aste Antequeran Espainiako Txapelketa irabazi zuen, eta Glasgowerako gutxieneko mar-

ka lortu zuen (4,50). Hala, Bedoñakoa azken urteotan etengabeko eboluzioa izaten dabil. Antequeran Naroa Agirrerren Espainiako errekorra (4,56) gainditzen ere ahalegindu zen, eta, orduan lortu ez bazuen ere, badaki helburu hori ametsetik baino errealitatetik gertuago dagoela.

Bi aste hauetan Glasgowko txapelketa izan du buruan: "Pilak kargatzea eta txapelketara begirako azken lan-saioak egitea", horixe zen Bedoñakoaren asmoa. Eta, baliteke biharko pista estaliko hitzordu handian orain arte erabilitakoak baino pertika gogorragoa erabiltzea. Horrek

baditu bere abantailak, pertika gogorrak inpultso handiagoa ematen duelako, baina, neurri berean, zorrotzago egin behar da dena, halako pertika batekin akats txikiena garestiago ordaintzen da eta. Hori horrela, baliteke bihar goizeko saioan –Teledortek zuzenean eskainiko du goizeko saioa, 11:00etatik 13:00etara– Espainiako errekorren bueltan egotea finaletarako sailkatzeko gutxieneko marka.

Finaletan egotea, aurrez, zaila

Bihar goizean lan txukunena egiten duten atletek domeka arratsaldeko finaletarako txartela lortuko dute (19:00). Aurrez, gainontzeko kontrario ia guztiek neguan erakutsi dute Arrasatekoak orain arte egin duena baino marka hobeak egiteko kapaz direla. Txekiako Amalie Svabikova da marka baxuagoa lortu duen bakarra (4,40) eta Axperen marka berbera (4,50) egin dute Malavisi italiarrak eta Polak greziarrak.

Baina atletismoak behin eta berriro erakusten du datu hotzak baino atleten gorputzaldiak eta konfiantza mailak dutela benetan garrantzia. Eta hor, Axpe behetik gora dator, modu ikusgarrian, gainera.



Axpe, inpultsoa hartzeko momentuan, Antequeran. FELIX SANCHEZ ARRAZOLA



Maialen Axpe, Antequeran egindako Espainiako Txapelketan. FELIX SANCHEZ ARRAZOLA

Prest, Erregina Koparako

Asteburuan, Erregina Koparekin, Gasteiz saskibaloiko hiriburu bilakatuko da; motorrak berotzen joateko, RPK Araskiko ordezkariak jokalariren irudiak jarri dituzte kalean –argazkian, Irene Murua eta izar Bedia arrasatearrak–.

Aldi berean, Mini Kopa jokatu dute Ointxe!-ko eta Areskoko harrobiko Garazi Agirrek, June Guenetxeak eta Alaitz Zabalak.



MUK etxean jokatu du domekan Santurtziren kontra

Azken hiru partiduak irabazi eta gero, joan den astean Goierriren kontrako derbiko porrotak eten du Arrasatekoen boladana. Hala ere, MUKoek bosgarren posturaino egin dute salto. Domekan (18:30, Iturripe), sailkapenean kontrario zuzena den eta azken hiru partiduak irabazi egin dituen Santurtzi izango da bisitari.

Azken sailkatua izango du aurrean Ford Mugarrik, bihar

Etxeko taldea boladaka jokatzen dabil aurtengo denboraldian. Txarto hasi zuten denboraldia, azaroan eta abenduan buelta erdi eman zioten egoerari eta zazpi partidutatik sei irabazi zituzten, baina ordutik zailtasunekin dabilta. Bihar (17:30), azken sailkatu Siglo XX taldearen kontura has dezakete behetik gorako bidea.

'Artean 3' erakusketa inauguratuko dute gaur

Artean ekimenaren hirugarren edizioa da aurtengoa; hala, Arrasateko hamar emakume artistaren lanak batzen dituen erakusketa inauguratuko dute gaur, 19:00etan, Kulturateko klaustroan, eta martxoaren 29ra arte izango da ikusgai

Amaia Igartua ARRASATE

Ia bost urte igaro dira Artean kolektiboa sortu zenetik, eta, azken bi edizioetako ildoari eutsiz, helburu bera izaten jarraitzen du Artean erakusketak: emakume sortzaileen lanak bistaratzea.

Herriko hamar artistaren lanak izango dira Kulturateko klaustroan. "Lanak diziplina desberdinetakoak dira, profil askotarikoak gara: bitxigilea, marrazkilaria, grafitilaria, goi mailako joskintza diseinatzaile bat... eta bakoitzak bere esparrutik landu ditu obrak, gai bera -prozesua- badute ere. Ikusleari gure lan egiteko modua erakutsi nahi diogu", adierazi du Helena Azkarragaurizarrek, Artean Kolektiboko kideak.

Publikoarengana gerturatzeko bisita gidatuak egingo dituzte martxoaren 21ean eta 28an, eta bestelakoak ere prestatu dituzte: zinema-foruma, kontzertuak eta katalogoaren aurkezpena.



Giraldo, Barrenetxea eta Azkarragaurizar, Kulturateko klaustroan. A.A

Musika eta artea

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, izango da *Artean 3* erakusketa-aren inaugurazioa, eta bertan, Flamenkins taldeak kontzertua eskainiko du. "Arrasateko Perlata musika taldeko kideek pres-

tatu diguten sorpresatxoa izango da eta bestelako gehiago ere izango dira. Guztiok zaudete inaugurazio ekitaldira gonbidatuta, oso egun polita izaten da, aurrekoetan halaxe izan da", gaineratu du Barrenetxeak.

'Rita' antzezlanaren domekan, 19:30ean, Amaia antzokian

Begoña Bilbaoren zuzendaritza-pean, Aitziber Garmendia eta Joseba Apaolaza protagonista dituen komediazko antzerkia da *Rita*. Euskaraz da emanaldia eta sarrera 10 euro ordaindu beharko da.

Frank literatura irakaslea da unibertsitatean, eta ikasle berri bat etorri zaio ikasgelara: Rita izeneko ile-apaintzailea.

Irakaslea etsiak jota dagoen poeta da, amore emandakoa, baina Ritaren agerpenak berpiztu egingo du.

Sarreraren aurrealmena *arrasate.eus* atarian, eta domekan bertan, Amaia antzokiaren leihtailan eskuratu ahalko dira sarrerak.

Potx eta Lotx pailazoak Amaia antzokian

Potx eta Lotx pailazoek familiei zuzendutako *Herriko festetan* antzezlanaren eskainiko dute martitzenean, 17:00etan. Emanaldia doan izango da.

Urteko jaiegun nagusia da Auskalomendin, eta merienda handia prestatzeko aukera izango dute Potxek eta Lotxek, aurretik euren amonak eta osabak egin izan duten moduan.

Never Surrender arrasatearrak, agertokietara bueltan

Bost urteko geldidunaren ostean, bi kontzertu eskaintzeko agertokietara itzuliko dira arrasatearrak.

Martxoaren 30ean Tafallan arituko dira. Bigarren kontzertua, berriz, etxean izango da, apirilaren 13an, gaztetxean.

Sare Sozialetan egin dute publiko itzulera: "Azken bost urteetan geldidun egon ostean, barruko harra gero eta handiago egin da eta egundoko gosea dauka! Bi kontzertu eskainiko ditugu eta ez dugu uste ezer asetzeko balioko duenik, baina tira! Balio dezala, behintzat, pogo on batzuk egin, lagun zahar eta berriekin batu eta punk-rock gau zoro batzuetaz gozatzeko".

'Hamaika amaren seme (alaba)' obrari agur esan dio Dokek

Euskal Herriko areto esanguratsuenetan zehar aritu dira azken hilabeteetan *Hamaika amaren seme (alaba)* antzezlanarekin.

"Ilusioz beterik ekin genion obra honen prestaketari eta orain, emanaldiak amaitu direnean, atzera begiratu gero, esfortzuak ongi merezi izan du", azaldu du Doke Antzerki Taldeak.

ONDO PASA ARATUSTEETAN

ZATTOZ FESTARA!

ARATUSTEAK 2019 ARRASATEN

RUMBA • OKORETEGI • MONTE • TXOKO II • ITZALA • ITURRIOTZ

Nerabeen aisialdi nahiak ezagutzeko ahalegina

DBHko lehenengo eta laugarren maila arteko 112 ikaslerekin elkartu dira Farapi elkarteko kideak eta horien iritzia jaso dute. Horren guztiaren berri emango diete gurasoei, hezitzaileei eta gazteekin lanean dihardutenei martxoaren 6an, Arkupen

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Aretxabaleako eta Eskoriatzako nerabeen aisialdi beharrik ezagutzeko asmoarekin ikerketa egiteko ardura eman zion Udalak Donostiako Farapi elkarteari. 12 eta 16 urte arteko ikasleekin elkartu ziren horiek, eta hiru orduko saioetan gazte txoek dituzten nahiak eta beharrik jaso. Horren guztiaren berri emateko, hitzaldia eskainiko dute eguaztenean, martxoaren 6an, Arkupen, 18:00etan -Eskoriatzako martxoaren 12an, Ibarraundin-. Gurasoak, hezitzaileak eta gazteekin diharduten eragileak gonbidatu dituzte.



Gaztetxoak Herriko Plazako jarleku batean. MIRARI ALTUBE

Profil askotariko 112 nerabe

"Aisialdiaren inguruan dituzten interesak, ohiturak eta beharrik zeintzuk diren ezagutu dugu", azaldu du Farapi elkarteko Mainer Eguzkitzak, eta gaineratu: "Nerabeak euren aisialdiaren gainean pentsatzen eta hausnartzen jartzeko ere balio izan du.

Hori oso interesgarria da, batez ere, nerabe horien partaidetza aktiboa bultzatzen hasteko, eta sustatze lanetan lagunduko diguten gakoak identifikatzeko".

Iaz udazkenean elkartu ziren nerabe horiekin -Kurtzebarri

Institutukoekin eta Arizmendi Ikastolako Almen gunekoekin-, eta 112 lagunek hartu zuten parte adinaren -DBH 1 eta 2 alde, batetik eta 3 eta 4, bestetik- eta generoaren -mutilen eta nesken taldeak eta mistoak- arabera

Udaltzainaren aukeraketa Udalak bideratzea eskatu du EH Bilduk

Erretiroa hartutakoak ordezkatzeko dituen hautatzeko Arkauterekin hitzarmenik ez sinatzea proposatu du

Arantzazu Ezkibel ARETXABALETAKO

Udaltzain bat kontratatzekeo deialdia egingo du Udalak, Arkauterekin hitzarmen bat sinatuta. Hala, EH Bilduk proposatu du aukeraketa prozesu hori Udalak berak egitea.

Bostetik, bigarren udaltzaina erretiratuko da martxoan, eta horien hutsunea betetzeko udaltzain bat kontratatzekeo asmoa dago. "Aldebakarreko erabakia izan da bietako bat ordezkatzeko", dio Ion Albizu EH Bilduko zinegotziak, eta gaineratu du aukeraketa prozesua bi modutara

egin daitekeela: "Oposizioa deituta Udalak; edo Arkauterekin hitzarmena sinatu eta haien bitartez eginda. Bada, azken hori erabaki dute". Albizuk funtsezkotzat jo du udaltzainen helburuak eta betebeharrak zeintzuk diren zehaztea, eta horren arabera erabakitzekeo udaltzain kopurua.

EH Bilduren ustez, udaltzainen zereginak gaur egungoak baino askoz gehiago dira: "Herritarrengandik gertu egongo den prebentzio tresna komunikatiboa da".

Hori horrela, bi proposamen aurkeztu ditu: udaltzainak bitar-

tekaritza zerbitzua eskaintzea; eta genero ikuspuntua txertatzea. "Bitartekaritza zerbitzua eskaintzearen helburua da herritarrak bide judizialek ez iristea", azaldu du. Hori lortzeko, gaur egun dauden udaltzainek oinarriko formakuntza jasotzea proposatu du, eta haietako batek "formakuntza sakona".

Genero ikuspuntuaren formakuntza ere beharrezkoa ikusten du. "Hala ere, Udalaren oposizio bitartez egingo balitz aukeraketa, merituen artean egongo litzateke genero formakuntza, baita oposizio gaitan txertatuta ere. Arkauteren bitartez egingez gero, ostera, ez". Horregatik, Arkauterekin hitzarmenik ez sinatzeko eskatu du. Aukeraketa bide batetik edo bestetik eginda ere, "2020ko martxora arte ez litzateke udaltzain berririk egongo".

banatuta: "Saiakera berezia egin da taldeek ahalik eta nerabe profil anitzena bil zezaten". Eta partaidetza oinarri duten ariketak landu zituzten horiek: "Saiok mugituak, praktikoak, talde lanean egitekoak eta ludikoak izatea bermatu da", adierazi du Eguzkitzak.

Euren aisialdiaren protagonista

Landutako gaiak asko izan dira, eta Farapiko kideak nabarmendu ditu aurrera begira lanean jarraitzekeo kontuan izan beharreko batzuk. Autonomia da horietako bat, nerabeak euren aisialdiaren protagonista izan daitezen eta denbora hori modu autonomoan kudeatu, erabaki eta bizi. "Aurreko ideari lotuta, autonomiaz kudeatzeko espazio propioak bilatzen dituzte, kua-drillan biltzeko", dio Eguzkitzak.

Erreferenteen garrantzia ere azpimarratu du: "Aisialdiari lotutako begiraleak, entrena-tzaileak eta kale hezitzaileak nerabeen eta mundu helduaren arteko zubi figurak dira, sarritan, gaztetxoek konplizitate eta konfiantza lortzen dutenak". Denbora falta agertu dute egin-

dako saioetan, aste bukaerak izanik "benetako denbora librearekin gozatzeko uneak", eta jaiak ere "garrantzi handiko uneak" dira gaztetxoendako. Bestetik, ez direla gizarte eragile sentitzen adierazi dute, eta Udalarekiko "urruntasuna" agertu ere bai.

Farapiko kideak pozik daude egin dieten harrerarekin: "Nerabeek gogotsu hartu dute parte jarritako dinamiketan". Hala lako gaien gainean berba egiteko espazioak "eskertu" dituzte, gainera.

Egindako lan hori guztia zabaldu gura dute; batetik, jasotako emaitzen berri eman, eta bestetik, iragarri aurrera begira egitea gura den partaidetza fasearen nondik norakoak. Herritarrak lanketa horretara hurbiltzea garrantzitsutzat jo dute Farapikoek.

NERABEAK EUREN AISIALDIAREN PROTAGONISTA IZATEA GARRANTZITSUA DELA JASO DUTE

Aretxabaleako XVIII. merkataldien azoka

IXADEBALDE

mojetan

MARTXOAK 1
10:00-13:00
16:30-20:30

MARTXOAK 2
10:00-14:30

ZOZKETA
50€
7 BONU

Mozorro guztiak gertu, Aratusteak heltzeko zain

Leizarra musika eskolako kideek Egubakoitz Argal ospakizunarekin emango diote hasiera mozorro festari gaur. Egun nagusia, baina, domeka izango da, eta desfilea begira kuadrillak azken ukituak egiten dabilta karrozei

Aitor Zuazabeitia ARETXABAETA

Iristear dira Aratusteak, urtean ospatzen diren jaiegun gogokoe-netakoak aretxabalarren artean. Aurten ere Leizarra musika eskolako kideek emango diote hasiera, Egubakoitz Argala ospatuta. Elur panpinez mozorrotutako dantza emanaldia antolatu dute gaurko; Ibarra kiroldegian izango da, 18:00etan.

Mozorrotzeko deia

Egun nagusia domeka izango da, eta, beste urte batez, balkoiak apaintzera animatu dituzte herritarrek. Horretarako, izena eman behar da aurretik, Arkupen. "Eskatzen diegu 08:00etarako



lazko desfilearen une bat. IMANOL SORIANO

apainduta izatea, epaimahaia goiz pasatuko delako begiratzera", adierazi du Jose Migel Uribarren Kultura zinegotziak.

Txistularien doinuek alaituko dituzte eguneko lehen orduak (10:00), eta eguerdi aldera (11:45) txino dantzariekin egingo dute bat horiek. Kuadrillen desfileari ekingo diote orduan. "Desfile elegante bat" espero da, prestaketetarako denbora gehiago izanda, "mozorro garatuagoak" egongo direlako. Hala adierazi du Ibai Zangituk, Karnabalen Bartzordeko kideak, eta Uribarren zinegotziak mozorrotzeko dei egin du: "Herritarrei eskatzen diet eguna girotzeko: mozorro-

tuta irten daitezela, alaitasun giroa sor dezatela, eta errespetuz jokatu". Herritarrek bazkaltzera joko dute gero, eta ia 700 lagun elkartuko dira Udalak antolatutako herri bazkarian.

Iluntzean banatuko dituzte mozorro lehiaketako sariak (18:45), Herriko Plazan. Epaimahaia dagoeneko izendatuta dago; besteak beste, Kepa Errasti aktorea eta Josune Murgoitio idazlea egongo dira. Gero, Santa Ageda neska-mutilek aurtengo azken dantza saioa egingo dute: "Kintoek izan duten jarrera ona nabarmendu gurako nuke, eta eskertu. Jaiegun asko izan dituzte, eta, nire ustean, jarrera onarekin. Halaxe buka dezatela", dio Uribarrenek. Eguna borobiltzeko, Mikel DJak musikarekin girotuko du plaza.

Aratuste-martitzena

Ikastetxeetako neska-mutikoen egingo diote harrera martitzenari Herriko Plazan egingo duten ekitaldiarekin (10:30). Irulitza txarangak girotuko ditu kale bazterrak arratsaldean (16:00) eta Txin-en hiletarekin (20:00) eta ondorengo zezensuzkoarekin agurtuko dituzte Aratusteak.

Ixadebalde azoka gaur eta bihar, mojen komentuan

Hamazortzigarrenez dator Ixadebalde merkealdien azoka aste bukaeran. Gaur, egubakoitza, goizez (10:00-13:00) eta arratsaldez (16:30-20:30) izango dituzte ateak zabalik mojen komentuan, eta zapatuan, goizez bakarrik (10:00-14:30).

Zazpi komertzio

Zazpi komertzio elkartuko dira oraingoan: Titare, Kilima, Tak, Belar Meta, Asensio, Haurrak eta Iber. Gehienek arropak eta oinetakoak dituztenez, batez ere, udazken eta negu sasoiako generoa eskainiko dute. Horiekin batera, poltsak, zapiak eta bes-telako osagarriak izango dira. Titareren kasuan, pijamak eta barruko arropak ere bai, eta Iberrek jostailuak eskainiko ditu. Horiek guztiak, "prezio ezin hobean".

Bezeroak eskertze aldera, aurtun ere izango dira saritxoak. 50 euroko zazpi bonu zozketatuko dituzte zapatuan, azokako ateak itxi aurretik.



Partikularren eta enpresen aholkularitzan 33 urteko esperientzia.
Zure zerbitzura gaude

KONTABILITATEA

FISKALITATEA

Pertsona nagusiak zaintzeko tramiteak

GESTORIA

Ibilgailu transferentziak

Notarioria eta TRAMITE GUZTIAK

ENPRESA BERRIAK SORTZEKO laguntza

Kontabilitate-aholkularitza

Dibortzioak

Matrikulazioak

Erretiroak

Ogasuna eta erregistroak

Plangintza fiskala

Herentziak

ABOKATUAK

Erreklamazioak

LABORALA

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaeta (Gipuzkoa) Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.eus

Euskarara gerturatzeko ahaleginak ez du etenik

Auzoko egitasmoko kideek aste bete-betea izan dute; torradak gertatu dituzte, eta jaialditxoak egin Durana kalean. Loramendi Elkartearen ardurapean Paloma Martinezek gidatutako taldeak gogotsu jarraitzen du euskaraz ikasteko lanean

Mirari Altube ARETXABALETA

Loramendi elkartearen ardurapean dauden hizkuntza errefortzuko eta ludotekako neska-mutikoei eta Auzoko egitasmoko kideek kolorez eta musikaz bete zuten Durana kalea eguaztenean. Halako ekimenak Auzokon dihardutenendako apartekoak direla adierazi du bertako dinamizatzaile Paloma Martinezek: "Integrazioan laguntzen du".

Kanpotik etorritakoei harrera linguistikoa egitea helburu duen Auzoko egitasmooan bi talde elkartzen dira, bata martitzenetan (10:00) eta bestea eguenetan (15:00). "Hamabost bat lagun gaude, baina bakarra naiz euskaraz dakie-



Auzoko egitasmoko hainbat kide umeei aurpegiak margotzen, eguaztenean. M.A.

na. Horregatik, hemengoak animatu gurako nituzke, harrera hori berotzeko", dio Martinezek.

Taldeakideak "gustura" elkartzen dira; Maragua sahararrak, esaterako, hiru urte daramatza: "Euskaraz ikasten dugu eta giro oso ona daukagu".

Hiru proiektu aurrera begira

Beste hainbat proiektu ere badituztela esku artean jakinarazi du Martinezek. Batetik, familia harrerara edo familia laguna: "Bertako familia batek kanpotik datorren bati harrera egitea da".

Bestetik, Auzoko Txiki dago: "2 urtera arteko umeak dituzten etorkin familiei zuzendutakoa; hemengoekin elkartu eta umeen bueltan kantuan egitea, jolastea... litzateke asmoa".

Horrez gain, beste talde bat sortu gurako lukete: "Auzoko da euskara ezagutzen ez dutenendako, eta mintzapraktika dakitenendako. Bi horien arteko beste baten beharra ikusi dugu: berba egitera ausartu ez baina entzuteko gogoz daudenendako, poliki-poliki ikasten joateko...". Horiei guztiei heldu gura diete datorren ikasturtean.

Bola-joko txapelketa bihar, 17:00etan, bolatokian

Gipuzkoako Federazioak antolatutako Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketari hasiera emango diote bihar, martxoak 2, Aretxabaletan (17:00). Jaurtialdi berezien egutegiko hitzordua da, beste hirurekin batera -maiatzaren 2an Lasturren, irailaren 21ean Elgoibarren eta abenduaren 15ean Leintz Gatzagan-. Sari asko iragarri dituzte.

Haur literatura berbegai Kukumikun eguaztenean

Osasun etxearen eta liburutegiaren artean abian jarriko duten proiektu berriaren gaineko zertzeladak emango dituzte martxoaren 6an, eguaztenean, Kukumiku elkartearen (17:30). *Haur literatura haurraren garapenerako bidelagun* izango da gaia, eta aurkezpena izango da 36 hilabete arteko haurrak dituzten gurasoentzat.

ondo pasan!!







EGUSKIGRAF
inprimategia

Aretxabaleta Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguskigraf.com

30 urte baino gehiago zure zerbitzura

400 lagun batuko dira zapatuko bazkarian

Atzo hasi ziren Inauteriak Eskoriatzan, Urdelardero egunarekin. Hala ere, zapatuan izango da egun handia eta ordurako egitarau zabala prestatu du Eskoriatzako Udalak. Herri bazkarian, esaterako, iaz baino 50 pertsona gehiago batuko dira aurten

Imanol Beloki ESKORIATZA

Herriko txikienean eman zioten atzo hasiera Eskoriatzako Inauteriei, Urdelardero egunarekin. Herriko kaleetan zehar kantuan aritu ziren, eta trukean, herri-tarrek gozokiak bota zizkieten balkoietatik, azken urteotako ohiturari eutsiz. Hala ere, hasi besterik ez da egin Inauteriak; izan ere, bihar, zapatua, izango da egun handia Eskoriatzan.

Ekintzak, goizetik gauera arte

13:00etan, mozorro desfilea hasiko da Luis Ezeizan, eta bertan parte hartu nahi duenak 12:45ean eman beharko du izena Luis Ezeizan bertan. Sari potoloak izango dira, eta horiek 18:30ean banatuko dituzte Fernando Eskoriatza plazan. "Desfilea hasi baino lehentxeago eman behar da izena, baina hainbatek, alde aurretik, kultura etxera deitu eta eman dute izena. Normalean, egunean bertan ematen da izena, eta ea partaidetza handia izaten dugun aurten", adierazi du Arantxa Unzueta Kultura teknikariak.

'Catering' aldaketa

Desfilea amaitzean, 14:30ean, herri bazkaria izango da Manuel Muñoz kiroldegian. Aurten iaz baino 50 lagun gehiago batuko direla adierazi dute antolatzaileek: "400 pertsona izango dira herri bazkarian, eta dagoeneko ez dago txartelak erosteko aukerarik. *Catering*-a aldatzea erabaki dugu; hala, aurten, Auzolagun-ek prestatuko digu bazkaria".

Bazkalostea DJ Motok giro-tuko du musikarekin. 16:00 aldera hasi eta 19:00ak arte izango da mota askotariko abestiak jartzen. Musika entzun eta dantza egin nahi ez duenarentzat, bestalde, zezentxoak eta poneyak izango dira, 17:00etan, Luis Ezeizan. Gero, Fernando Eskoriatza plazara eramango da jai giroa;



Iaz, Aratuste-zapatuan egindako bazkarian, kiroldegian batutakoak. GOIENA

BAZKALOSTEA DJ MOTOK GIROTUKO DU, ESTILO ASKOTARIKO MUSIKAK JARRITA

izan ere, 18:30ean, mozorro lehiaketaren sari banaketa egingo dute, eta amaitzean, 19:00etan, Gabezin taldearen erromeriaz gozatzeko aukera izango da. Arratsaldean jo ostean, 23:00etan berriz jarraituko dute.



Iaz, Eskoriatzako bandak Inauterietan eskainitako kontzertua. GOIENA

Musikariak, mozorrotuta oholtzara

Iaz, Inauterietako lehen kontzertua eskaini zuen Eskoriatzako bandak, Zaldiabar antzokian. Mozorro-jantziekin igo ziren oholtzara musikariak, eta aurten ere halaxe egingo dute, *Zirkoband* izeneko ikuskizunean. Emanaldia gaur, egubakoitza, izango da, 20:00etan.



Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldekoak Elorregin. IMANOL SORIANO

Eskoriatzako emakumeak prest daude Martxoaren 8rako

Egun osoko egitaraua prestatu dute Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideek

I.B ESKORIATZA

Eskualdeko talde eta batzorde feministek deituta, Martxoaren 8ko greba egunerako motorrak berotzeko elkarretaratzea egin zuten Elorregin pasa den domekan, eta eskoriatzarrek ez zuten hutsik egin. Horrekin batera, genero ezberdintasun jardunaldiak izan zituzten Eskoriatzako kultura etxean.

Jardunaldiak, arrakastatsuak

"Oso eguraldi ona egin zuen, eta, Eskoriatza moduko herri txiki bat izanda ere, jendez lepo izan zen kultura etxea", adierazi dute Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldekoek.

Motorrak berotuta, Martxoaren 8ra begirako egitaraua ere prest daukate. Hala, egunerako bi ohar jakinarazi dituzte: "Martxoaren 8an amantalak balkoietatik esekitzeko eskaera egin nahi diegu Eskoriatzako ema-

kumei, ondo ikusi dadila. Hala, etxeko lanei planto egin, eta kalera irtengo gara. Horrekin batera, emakumeak morez janztera animatu nahi ditugu", adierazi dute Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideek.

Egitarau zabala M8-rako

11:00etan, Fernando Eskoriatza plazan batuko dira Martxoaren 8an, giroa berotzen hasteko, eta 12:00etan, elkarretaratzea eta martxa morea egingo dute, plaza, musikarekin lagunduta. Horrekin batera, argazki proiektioa izango da.

Arratsaldean, 18:00etan, elkarretaratzea –15 minutukoa–, eta ondoren, kalejira izango da –Plaza, Intxaurtxueta, San Pedro, Santa Ana, Olazar, Dorleta, Aranburuzabala, plaza–. Amaitzeko, 20:15ean, frontoian, gizonetzoei dei egingo diete emakumeentzat afaria eramateko.



"Askatasun sentsazio batek bultzatzen zaitu"

BEÑAT ARRIETA IKASLEA

Fisika ikasketak mendiarekin uztartu ditu Beñat Arrieta eskoriatzarrak; izan ere, Txilen egon da sei hilabetez, eta, ikasteaz gain, kirola egiteko aprobetxatu du denbora

Imanol Beloki ESKORIATZA

Fisika ikasketak egiten diharduen Beñat Arrieta eskoriatzarrak sei hilabetez izan da Txilen. Ikastera joan bada ere, ondo aukeratu du lekua; izan ere, mendia oso gustuko du, eta ahalik eta denbora gehien mendira joateko aprobetxatu du. Hala, esperientzia ederra bizi izanda, bueltan da Euskal Herrian.

Zer dela-eta izan zara Txilen?

Fisika ikasketak egiten ari naiz, eta Erasmus antzeko aukera bat izan dut Hego Amerikara joateko, eta aukera hori aprobetxatu nahi izan nuen. Ez nuen kasualitatez Txile aukeratu; izan ere, banekien zein aukera zituen bertan, zein mendi dauden... eta, ikasteaz gain, mendian aritzeko ere joan nahi izan nuen. **Fisika ikasketak nola joan dira bertan?**

Fisikako legeak ez dira aldatzen hemendik Txilera; hala ere, klaseak emateko moduak ezberdinak dira. Hango metodoak zaharkituta daude, *old school* erara funtzionatzen baitute; logikako ariketa gutxiago dituzte, buruz gehiago ikasten dute asko, garapen matematiko luzeak egiten dituzte... Faltan igarri dut Euskal Herrian klaseak ematen diren modua. Edozelan ere, Txilekoa askoz errazagoa egin zait, eta, horren ondorioz, hemen baino nota hobek ateratu ditut. Hango ikasleak autodidaktagoak dira, eta euren kabuz mugitzeko beste jarrera eta gaitasun bat dute.

Zein mendi igo dituzu Txilen? Horien artean oroitzapen onenak?

Bertara uztail bukaeran iritsi ginen, eta bertan negua da. Horregatik, mendi baxu eta errazenenak igo genituen. Gero, Gabon aldera, mendi altuago eta teknikoagoak igo ditugu. Fitz Royko mendikatean egon gara, eta Aguja Guillomet mendia igo genuen. Oso-oso polita, eta, gure lehen aldia zenez, mendikate



Beñat Arrieta, Cerro Mercedarion. JOSEBA HERNANDEZ

"GARRANTZITSUENA DA NORBERAREN AUKERAK ZEINTZUK DIREN GARBI EDUKITZEA"

horretan saiatu gara mendi errazenak hartzen, eta zerbait gehiago probatzeko eta ikusteko gogoz geratu gara. Kate horretan, Guillomet eta L'S mendiak izan dira. Azken horretan ez genuen gailurra egin, 100 metrora geratu ginen haize zakkarraren ondorioz.

Paisaia ikusgarriak, ezta?

Mendi eta inguru ikaragarri politak ikusi ditugu. Denetik igo behar da, pixka bat denetik igo behar da. Izotza, elurra, harria, mistoa... Beraz, ezin hobeto.

Aipatu duzun moduan, buelta ere eman behar izan duzue mendiren batean. Halako besterik izan duzue?

Buelta eman genuen lehen aldia Alto de la Posada 4.200 metroko mendian izan zen. Amaieran, 900 metroko korridorea zuen, eta gorantz gindoazela bero sumatzen genuen, zero azpitik gradu bakarra edo, eta hori ne-

guan eta 4.000 metroan ez da ohikoa. Komentatzen hasi ginen: "Temperatura honekin elurra ez da egonkor egongo, harriren bat jausi daiteke...". Eta esan bezain pronto, harri mordoa jausi zitzaigun, eta, gaua zenez, ez genituen harriak ikusten guregana etortzen. Halako baten, harria harriaren kontra txinpartak ikusi nituen, eta izkina baten jarri nintzen, beldurtuta, eta buelta ematea erabaki genuen. **Arriskua, beraz, nonahi?**

Azken finean, arrisku hori hor dagoela badakigu, eta gure lanaren paper handiena arrisku hori ezagutzea da, baloratzen jakitea, eta erabakiak garaiz hartzea, noiz aurrera jarraitu edo ez, eta gero, onartzea, baita ere, dena ondo doanean ere leku samur batean labankada bat izan dezakezula, edo harri bat jausi eta kasualitatez buruan jo... Bultzatzen zaituen askatasun sentsazio bat duzu, eta guztiz libre sentitzen zara.

Bertara doanarentzat aholkurik?

Garrantzitsuena norberaren aukerak zeintzuk diren garbi edukitzea da, eta norberaren limiteak, eta beti limite horien azpitik saiatzea.



Torrebason komun publikoak jarriko dituzten eremua. I.B

Herriko hainbat lan izan dituzte hizpide otsaileko osoko bilkuran

Torrebason jarriko duten komunaren nondik-norakoak eta Santa Ana eta Santa Marina arteko lanak berbagai

I.B ESKORIATZA

Torrebason pasealekuan komun publiko bat jartzeko, komuna erosi, obrak egin eta komunaren mantentze-lanak egiteko, Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalen arteko hitzarmena onartu zuten lehenbizi.

Lanen gaineko zehaztapen batzuk eman zituen Josu Ezkurdiak: "Lizitazioa eta erosketa egiteaz Eskoriatzako Udala arduratuko da, gure lurak direlako, baina gastuak erdi bana egingo ditugu. 55.000 euroko lanak izango direla aurreikusten dugu". Horren harira, Aitor Zubizarreta EH

Bilduko bozeramaileak proposatu zuen komunak egiteko orduan berdegunea ez ukitzeko eta urhargunea dagoen eremuan bertan jartzeko komuna. Eskaera hori kontuan izango dutela eta bat egiten dutela esan zuen Ezkurdiak.

Arbiñosteko lanak, hasita

Galde-eskeen tartean, Arbiñosteko lanen gainean ere jardun zuten. Aste honetan hasi dira oinezko pasabidea eta erabile- ra libreko gunea egiten, eta martxo amaierarako eginda egongo direla aurreikusten dutela adierazi zuten.



IMANOL BELOKI

Berbalagunen afaria batzokian

Hainbat Berbalagun talde daude Eskoriatzan, eta, elkarren artean hobeto ezagutzeko eta euskaraz egiteko nahiak batuta, afaria egin zuten batzokian pasa den egubakoitzean. Talde guztiak batu ziren arren, egitasmoko parte-hartzaile guztiek ezin izan zuten bertaratzerik izan. Hala ere, bapo afaldu eta primeran pasa zuten.

Pentsioen etorkizuna izan dute hizpide batzokian

Madrilgo Kongresuan EAJren diputatu den Iñigo Barandiaranek pentsioak izan zituen hizpide astelehenean, batzokian egindako hitzaldian: sistemaren funtzionamendua azaldu zien hitzaldira joan zirenei, eta haien zalantzak argituz amaitu zuen saioa

Imanol Beloki ESKORIATZA

Pentsioen inguruko neurriak hartzen dituen Toledoko Itunean EAJk duen bozeramailea da Iñigo Barandiaran, eta, hain zuzen ere, Toledoko Ituna albiste izan da azken egunotan, ia hiru urteko negoziazioen ondoren, alderdiak ezin izan direlako ados jarri. Barandiaranen esanetan, eta Podemosi eta Alderdi Popularrari erreferentzia eginaz, alderdi batzuek euren interesak pentsiodunen interesen aurretik jarri dituzte, eta horrek etorkizunari begira gauzak finkatzeko aukera galtzea ekarri du. "Niretzat, oso aukera ona izan da, ez bakarrik edukiari berme hori emateko edo onartzeko, baizik eta etorkizunari begira beste mota bateko arriskuak, hau da, eskuin muturrak dakarrena, mozteko. Batzuek nahiago izan dute euren interesak aurretik jarri, eta begira zer pasa den", adierazi zuen Iñigo Barandiaranek, Madrilgo Kongresuko EAJren diputatuak.

Horrekin batera, pentsioen sistema ez du arriskuan ikusten diputatu jeltzaleak, baina hori horrela izan dadin neurriak hartu beharko direla gaineratu zuen.

Pentsiodunen protestak

Pentsiodunen protesten inguruan, Barandiaranek esan zuen EAJk



Iñigo Barandiaran, Eskoriatzako batzokian hitzaldia egiten. TXOMIN MADINA

Madrilen lortutako akordioei esker haien eskari nagusiak lortu direla; hau da, pentsioen igoera KPIaren igoerarekin lotzea, baita alarguntasun pentsioen igoera ere. Gutxieneko pentsioak 1.080 eurokoak izateko eskaria, baina, desorekatua dela dio jeltzaleak, eta pentsiodunen artean banaketa eragin duela. Horren adibide jarri du Bizkaiko pentsiodunen bozeramaileak kargua utzi izana. "Alde egin du esanez, nola, pentsiatzen zuela erabilia izaten ari zela alderdi politiko batzuen aldetik; gainera, finkatu du Pode-

mosen eta Bilduren erabilera politiko hori. Nik esango nuke hemendik aurrera komeni dela pentsionisten mugimendu horrek bizirik jarraitzea".

Azken asteetako giroa, nahasia

"Madrilgo giroa, etorkizunari begira, lasaitzea komeni da, eta hori gertatuko dela uste dut. Hala jarraituz, bestalde, guztiontzako kaltegarria izango litzateke, baina, batez ere, euskaldunendako, abertzaleendako... Halako talde txikienez izango da kaltegarria", adierazi zuen.

izeneko azken diskoarekin arrakasta handia izaten ari dira. Hain zuzen, hurrengo hilabetei begira, agenda beteta dute. Izan ere, Euskal Herrian joko dituzten emanaldiez gain, Espainian eta Frantzian ere izango dira kontzertuak eskaintzen.

Kantuetan, kritika sozial eta politikoa egiten dute, eta ereserkiz betetako disko horretan, gainera, Fermin Muguruzaren kolaborazioa ere izan zuten *Biolentzia 1984* kantua argitaratzeko orduan.

Kaleko Urdangak taldearen kontzertua, gaur, Inkernun

22:30ean hasiko den emanaldian, punk-oi! doinuaz eta ereserkiz betetako kantuak eskainiko dituzte

I.B ESKORIATZA

Kaleko Urdangak talde bergararra Eskoriatzan izango da gaur kontzertua eskaintzen, eta punk-oi! doinuekin betetako kantuak eskainiko dituzte Inkernu tabernan, 22:30ean.

2011n sortutako taldeak hiru kide zituen hasieran, *Biru* gitarrak, *Moto* baxu-jolea eta Ekaitz batera-jolea; gero, *Remen* abeslaria batu zen taldera. Ordutik, geratu barik ari dira, eta iaz argitaratutako *Nortasuna*



Iaz, Soran Etxean egindako bazkarian izandako haur kuadrilla bat. GOIENA

Magiaz beteko dituzte Inauteriak Leintz Gatzagan

Herri bazkaria Soran Etxean egingo dute, 14:30ean hasita, eta, ostean, DJ Humbertok musikaz girotuko du

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Badute plana gatzagarrek Inauterietarako. Izan ere, Gatzagako Udalak, Gurel Guraso Elkarteak kideek eta herritarrek elkarlanean, egitarau zabala prestatu dute zaturako.

Egunari hasiera emateko, goizeko hamaika eta erdietan, umeentzako jolasak izango dira herriko plazan, eta, goiza jolasean pasatu ostean, Asier Kidam magoaren *Magiaren iraultza* izeneko magia ikuskizuna izango da, haurrendako eta helduendako, kultura etxean, 13:00etan. Magia-ikuskizun plastiko eta

originala eskainiko du, euskaraz. Saioa amaitzean, berriz, herriko kale eta tabernetan arituko da magoa trukoak egiten.

Bazkaria, Soran Etxean

Inauterietako bazkaria Hotelean izango da, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, eta bertan, bi menu egongo dira: helduendako 22 eurokoa eta haurrendako, hamar eurokoa.

Bazkalostea girotzeko, berriz, DJ Humberto izango da musika jartzen. Musikari elgoibartarrak dantzan jarriko ditu gatzagarrik, iaz egin zuen moduan.

KAS taldeko txirrindulari ohiekin mahai-ingurua izango da gaur

Erretiratuendako da, eta, Dorletako txirrindularitza erakusketa ikusi eta gero, solasaldia egingo dute

I.B LEINTZ GATZAGA

Toki-Eder Erretiratu Elkarteak 11:00etan Dorletako Santutegian batzoko dei egin diete Debagoieneko erretiratuei, bertan txirrindularitzaren gaineko erakusketa ikusteko. Gero, 12:00etan, salda beroa hartuko dute Toki-Eder elkartearen, eta 12:15ean, mahai-ingurua izango da, kultura etxean.

Solasaldia Alberto Altubek gidatuko du eta hauek hartuko dute parte: Santi Ayastuyk -KASeko txirrindulari ohi antzularra-, Jose Luis Saez de Olazagoitiak -Erromara bizikletaz

joandakoa-, Ignacio Arranzek -Arabako Txirrindularien Federazioko lehendakari ohi-, Fausto Izak -KASeko txirrindulari ohi arratiarra-, Felipe Albedik -KASeko txirrindulari ohi zornotzarra- eta Manolo Zubillagak -Leintz Bailarako txirrindulari lasterketen antolatzaile eta lekukoa-.

"Garai hartako kontuak izango dituzte hizpide. Esaterako, Saez de Olazagoitiak Juan 23.a aita santua bisitatu zueneko istorioa kontatuko du, adierazi du Eugenio Otxoak".



Iazko Martxoaren 8ko bilkura. GOIENA

Egun osoko egitaraua eta beste pare bat ekintza

Emakumeen Nazioarteko Eguna goizetik iluntzera, elkarrekin eta herrian, aldarrikapen giroan igarotzeko dei egin dute Aramaixoko Talde Feministak eta Itur-Zuri emakume elkarteak; film emanaldiak eta bazkaria ere izango dira astean

Julen Iriondo ARAMAIO

Bi taldeek elkarlanean antolatutako egitarauko lehen ekintza eguaztenean izango da, hilaren 6an, *20th century women* pelikularen bueltan: 18:00etan, kafe tertulia egingo dute, pelikularen aurkezpen txiki batekin eta Martxoaren 8aren gaineko azalpenekin; ondoren, 18:30ean, film emanaldia egingo dute, kultura

etxeko aretoan. Asebetetzerik eza, desorientazioa, amatasuna, konfiantza krisia eta halako gaiak hiru emakumeren ikuspuntuetatik jorratzen dituen pelikula da; bizitzako etapa desberdinetan daude emakumeok, izaeraz askotarikoak, baina misio batek batzen ditu, nerabe baten heziketa emozionalak –ama, laguna eta maitale nahi lukeena

dira hiru emakumeak–. 16 urtetik gorakoentzako ekintza da eguazteneko hau.

Martxoaren 8rako, berriz, egitarau bete-betea antolatu dute Aramaixoko Talde Feministak eta Itur-Zuri emakume elkarteak. 10:30ean plazatik abiatuta, herria girotuko dute; pankartak jarriko dituzte hainbat puntutan, txapak eta xingola moreak sal-

duko dituzte eta, musika lagun, egunerako greba deia –zaintza greba, besteak beste– gogorara-ziko diete herritarrei.

12:00etan, bilkura egingo da plazan, eta Aramaiorako presatutako idatzia irakurriko dute antolatzaileek. 12:45ean, iturripoteoa egingo dute herriko hainbat iturri lotuz; kontsumo greba irudikatu nahi dute honekin, eta etxetik ekarritako edariak edo iturriko ura izango dira poteo honetan edango dituztenak.

14:00etan, bazkaria egingo dute Sastiñan, jan-edanak eta mahaitresnak bakoitzak eramanda; ez da aurrez izenik eman behar. Bazkalostean, bingoa egingo dute, eta musika eta tertulia ere izango dira. 19:30ean, berriz, kalejiran joango dira kultura etxetik plazara, trikitilariekin. Han, dantza emanaldia egingo dute, eta eguerdiko komunikatu

bera irakurriko dute. Egitarau honekin, Aramaio emakumeek –askotariko adin eta soslaidunak– Emakumeen Nazioarteko Eguna elkarrekin eta herrian ospatzea nahi dute antolatzaileek.

Biharamunean izango dira azken ekintzak. Bazkaria egingo dute emakumeek Añai tabernan, 14:00etan. Astelehenera arte, hilak 4, eman daiteke izena, tabernan bertan, okindegian, erretiratuen egoitzan edo kultura etxean. 25 euroko prezioa du, eta zuzeneko musika egongo da. Amaitzeko, *Alanis* filma emango dute kultura etxean, 21:00etan.

KONTSUMO GREBA ERE BADELA-ETA, ITURRIZ ITURRI EGINGO DUTE POTEOA BAZKALDU AURRETIK

Klima aldaketa aztergai herrian, Aste klima ekimenaren barruan

Basogintzari buruzko hitzaldia eta Unai Pascualekin eztabaida saioa egingo dituzte datorren astean

J.I. ARAMAIO

Eusko Jaurlaritzaren ingurumen kudeaketarako Ihobe sozietate publikoak, besteak beste, antolatuta, Klima Aldaketaren Astea egingo da lehenengoz erkidegoan, eta egitarauaren barruan

bi saio izango dira Aramaion: astelehenean, hilak 4, basogintzari buruz jardungo dute Errez kooperatibako Markel Arriola-bengoak eta Iñaki Etxebestek, 18:30ean, kultura etxean; ordu berean, eguaztenean, udaletxean,

eztabaida irekia izango da klima aldaketaren ikerketarako BC3 euskal zentroko Unai Pascualekin.

Aste klimaren eta Aramaion egingo diren ekintzen helburua da klima aldaketak dakartzan arazoaren gainean gizartea sentibilizatzea eta haiei aurre egiteko jendea konpromiso pertsonala hartzera bideratzea, "ekintza oro, txikia izanik ere, baliagarria delako". Aste klima barruan ia ehun ekintza egingo dira 50 herri inguruan.



Unai Pascual, iaz Aramaion hitzaldia egiten, Lorabari Astean. JULEN IRIONDO



Emakumeok planto

ANDERE ARRIOLABENGOA TALDE FEMINISTAKO KIDEA

Aste bat besterik ez da gelditzen Martxoaren 8rako. Astebete besterik ez emakumeok planto egin eta mundua gelditzeko.

Iazko Martxoaren 8an bizitako ikaragarria izan bazen, aurtengoa ez da gutxiagorako izango.

Amantalak eskegiko ditugu, ez dugu gure familientzako ogirik erosiko, ez gara lanera joango, zaintza lanen ardura gainerik kenduko dugu, ez ditugu haurren eskolako motxilak prestatuko... egun batez, ez dugu sistema kapitalista heteropatriarkala sostengatuko.

Oraindik zalantzatan zaudetenei, ez, gizonok ez duzue grebarik egingo, lanera joango zarete eta emakumeok egingo ez dugun lana ere aterako duzue aurrera: haurrak zainduko dituzue, emakumeok bezperan ezer antolatu beharrik gabe; etxeko lanak egingo dituzue, komuna garbitzetik hasi eta arropak lisatzeraino; gurasoen kargu egingo zarete, zaintzaile bezala duten emakumea greba egitera animatuz.

Eta hori guztia irribarre ederrez eta aurpegi onez egingo duzue, kexatzeko eskubiderik gabe.

Plan hoberik ezagutzen al duzue?

"Ikuskatzaile pila bat egoten dira partiduetan"

ANDER FERNANDEZ PACHECO FUTBOL JOKALARIA

Aretxabaletatik Beasainera joan zen iazko neguko merkaturan; Amorebietak fitxatu zuen aurtengo denboraldirako, eta duela aste batzuk iritsi da Sestaora, utzita

Julen Iriondo ARAMAIO

Musakolan egin du hitzordua GOIENAK 23 urteko aurrelari aramaioarrarekin. Bere lehen kluba izan zen Mondraren zelaiaren eta padel kantxen artean izan da elkarrizketa –telebistarako grabaketa aprobetxatuz–. **Padelerako zaletasuna ere baduzu.** Bai, arratsaldeak libre ditudanean gustatzen zait gelakoekin padelean jokatzea.

Sestao Hirugarren Mailan dabil; ez dago, beraz, beste kirol batzuk egiteko bateraezintasunik.

Denbora atera behar da, astean lau egunetan entrenatzen gara eta. Baina, bestela, uzten digute eskiatzen, padelean egiten edo beste edozein kirolean aritzen.

Zenbaterainoko gauza serioa da, zuretzat, futbola gaur egun?

Nik serio hartzen dut. Konpromiso handia da; gainera, Sestao, Riverrek, badu izen bat, eta domeketan mila lagun, gutxienez, joaten dira futbol zelaira, eta serio hartu behar da, ze jendeak asko bizi du futbola. Nik, personalki, dena uzten dut zelaian, saiatzen naiz kontzentratuta egoten 90 minutuetan, eta serio hartzen dut, bai.

Etorkizunari begira, zer nahi zenuke zuretzat futbola izatea? Eta zer uste duzu izan daitekeela?

Gorago heltzea zaila da, ze maila handia dago. Sestaora joan aurretik Bigarren B Mailan egon naiz, eta urtebete lehenago Aretxabaletan jokatzeko ari nintzen; pauso bat eman dut, hortik aurrera egitea zaila dago, baina ni saiatuko naiz dena ematen, eta, gorago heldu badaiteke, aurrera.

Aretxabaletatik Beasainera joan zinen, Hirugarren Mailara, eta orain maila berean zaude; baina, zure aspirazioei begira, gauza bera da Beasainen edo Sestaon egotea? Hala Bizkaiko klub batean jokatzeko, Sestaok duen tradizioarekin, talde handiagoekin izan ditzakeen loturerekin... pauso bat izan daiteke?



Ander Fernandez Pacheco. JULEN IRIONDO

"USTE DUT AUKERA ONA EGIN DUDALA, ETA ORAIN TOKATZEN DA FUTBOLEAN GOZATZEA"

Uste dut baietz. Nahiz eta azken urteetan Beasain goian eta *play off*-etan sartzeko aukerarekin ibili den, Sestaon ere aurten aukera izango dugula uste dut, eta, gainera, da klub bat beti egon dela Bigarren B Mailan, Bigarren Mailan ere egon da, eta aurrerapauso bat da. **Eta ez dakit Bizkaian gehiago jarraitzen ote zaituzteten beheko kategorietako jokalariek-eta... Agian, handikeria bat esatea da, baina, adibidez, Athleticen berak duen filosofiagatik, ez dakit jarraipena gertukoagoa den.**

Bai, agian bai. Bakarrik ikusita Bizkaian nola bizi duten futbola... Diruaz berba egiten badugu, adibidez, gehiago mugitzen da... **...eta Athletic hor dago, etxeko jokalariek bakarrik hornitzen den klub bat...**

...Tokero ere bertatik irten zen... **... Koikili bera...**

Bai, batzuk badaude. Eta ikuskatzaile pila bat egoten dira partiduo bakoitzean, bai.

Sestaora utzita joatea garbi izan zenuen? Amorebietan entrenatzailer zenuen Iñigo Velez saiatu zen konbentzitzen gera zintezan.

Jokatzen hasi nintzen, baina utzi egin nion gero. Hala ere, esan zidaten gustura zeudela nirekin; Hirugarren Mailako beste hiru talderen eskaintza ere banuen, eta esan zidaten aukera bakarra zela utzita joatea. Ze urtebeterako sinatu nuen Amorebietarekin, baina esan zidaten beste urte bat luzatuko zidatela, eta denboraldi amaieran hara itzuliko nintzela.

Ezin hobeto, minutuak Sestaon eta ziurtatuta Amorebietara itzultzea. Hori da. Duela hilabete iritsi nintzen Sestaora, jokatzeko nabil hasieratik eta, gainera, golak sartzen. Uste dut aukera ona egin dudala, eta orain, futbolean gozatzea tokatzen da.

Amurrioren kontra debutatu zenuen, eta gola.

Bai, 0-3 irabazi genuen, eta lehenengo sartu nuen. Eta bigarren partiduan, Bermeoren kontra etxean, 2-0 eta biak sartu nituen. Hasiere ezin hobea.


laz berrartutako bazkariarekin datoz, atzera ere, Inauteriak

Eskolako umeek martitzenean ospatuko dituzte, eta maskarak egiteko eta makillaje tailerra izango dute

J.I. ARAMAIO

Aurreko urteetan zenbaitetan egin izan zena berreskuratu, eta, arratsaldekoa barik, egun osokoa izan zen iazko Inauteri festa; aurten, errepikatu egingo dute formula. 13:30ean izango da hasiera; kalejira egongo da trikiti eskolakoekin. 14:30ean, herri bazkaria, eskolako jangelan. 17:30ean, berriz ere musikak lagunduta abiatuko dira frontoitik, eta 18:00etan izango da mozorro lehiaketa, plazan. Txokolata-jana ere egingo dute, eta amaitzean, disko festa –eguraldi txarra eginez gero, zuzenean frontoian egingo dute–.

Mozorro lehiaketarako izena emateko azken eguna gaur da –liburutegian–. Gaia libre da, eta bakarka edo taldeka –lau pertsona, gutxienez– mozorrotu daiteke. Lehenengo saria 90 eurokoa da eta bigarrena 50ekoa,



Mozorrotuta, Aramaion. GOIENA

bai haurretan eta bai 14 urtetik gorakoetan. Originaltasunaren saria ere egongo da, 50 eurokoa.

Eskolako umeentzako martitzeneko tailerra 17:00etan izango da, ludotekan. 5 urtetik beherakoek heldu batek lagunduta joan behar dute.

Amaitu dute totema

Azken asteetan lanean jardun eta gero, amaituta dago, dagoeneko, Santakurtz plazako izei enborreko totema. Arrano bat, emakume artzain bat, txakur bat eta ardia irudikatzen ditu Gregorio Gallegoren, Migel Angel Burgiren eta Tomas Sagastaren artean egindako lanak. Enborra usteldu aurretik, zortzi bat urte irautea da egileen aurreikuspena.



JULEN IRIONDO

Finalerdietan seiak, eta bost elkarrekin, Aramaiokoaren ostean

Aurreko asteburuan jokatu zen Arabako Bertsolari Txapelketako hirugarren final-laurdena. Xabi Igoa, Andere Arriolabengoa eta Peru Abarrategi izan ziren lehen hirurak; haiek eta beste hiru aramaioarrak ere sailkatu dira finalerdietarako, eta bost elkarrekin ariko dira Legution, martxoaren 9an –Paula Amilburu, Dulantzina, 16an–.



Igoa, Aramaioko saioko onena. I. S.



Uzarraga ingurutik pasatuz, Bergarara daraman *bide berdea*. MAIDER ARREGI



Kaxeta paretik igarotzen den eta Zumarragarantz daraman bidegorria. MAIDER ARREGI

Bidegorriak, herriaren arnasa

Bidegorrien aldeko apustu sendoa egin du Antzuolako Udalak. Egun, 10,6 kilometro ditu egokituta trenbide zaharreko 'bide berdea'-k; Udalak, baina, Zumarragaraino luzatzea gura du. Diputazioari bi proiektu aurkeztu berri dizkio, gaia azter dezan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolarrek bi bidegorri sare dituzte gaur egun: batetik, *bide berdea* deritzon trenbide zaharrekoa dago -10,6 kilometro-. Uzarraga, Lizarraga eta Basalde lotzen dituen. Irimo ingurutik -*Kaxeta*-tik- Bergararaino jaisten den bidegorri zatia zabalik dutena, alegia. "Galardi baserriatik -Irimo- edo Basalde auzoko mugatik Bergarako Bolu auzoraino jaisten den trenbide zaharreko bidegorri zatia dugu zabalik", argitu du Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak.

Bigarren bidegorri sarea, aldiz, Antzuolatik Bergararaino errepidearen albotik joango dena da. Egun 3,2 kilometro dituen eta Bergararainoko lotunea egitea falta zaiona. Bide hori, ordea, autobideko lanekin lotuta dagoela azaldu du Gipuzkoako Diputazioak eta aurreratu du

irekitzeaz dauden autobideko lanekin batera egingo duela Bergararekin lotuko duen bidegorri zati hori -Begarako San Antonio auzoko Urteaga kaleko sarreraraino joango litzateke bidegorri zati hori-.

Bergara eta Antzuola lotzeko

Kortabarria argitu du egungo Diputazioaren proiektuan Galartzako zubiraino doan bidegorri zatia dagoela soilik jasoa. "Galartzatik Bergararainoko tartea, Ilunpeko bihurtzetik igaroz, nola lotu behar dute? Guk dakigula, proiektuan bidegorria Galartzaraino egingo dela dago jasoa. Baina aztertzen ari dira Bergararainoko lotura nola egin eta ba omen dute Lapurzubi pasa eta erreka gainditzen duen proiektua. Horretarako, baina, Urak agentziarekin negoziatu behar dute, erreka dago-

eta tartean. Horretan ari direla azaldu digute Diputaziotik", argitu du Kortabarria.

Antzuola eta Zumarraga lotu

Lehenengo trenbideak Bergara, Antzuola eta Zumarragako herriak lotzen zituen. Orain, bidea galduta dago, ordea. Baina Zumarragarekin lotura egiteko aukera egon badagoela azpimarratu du Beñardo Kortabarria: "Lehenengo bide hori bere osotasunean galdu egin da. Deskargako tunela egin zutenean, esaterako, lehenengo trenbideko tunela galdu egin zen. Baina badago aukera bat justu autobideko tunel gain horretara igotzeko eta trenbidea berriro bere osotasunean Zumarragaraino jarraitzekoa. Modu horretan, Zumarragarainoko bidegorriaren lotunea egiteko aukera egongo litzateke berriro, Bergara, An-

tzuala eta Zumarraga lotuz". Egun, trenbide zaharreko bidegorria herritar askok erabiltzen duela eta bidea garbi eta nahiko txukun dagoela aitortu du alkateak: "Bidegorriko tunelak konponduta daude eta egoera onean daude, ustez. Luizi bat ere gertatu zen eta konponduta dago. *Kaxeta* ingururaino bidea egokituta dago. Aurrera begira geratzen zaiguna da Iñurriagarroarako pareko tunela konpondutzea. Urez beteta dago eta tunela zein egoeratan dagoen ikusi beharko litzateke, ondoren ura tunel barrutik ateratzeko".

Bi proiektu esku artean

Trenbide zaharrean, Galardetik Deskargarainoko zatia konpondutzeko, bi aurreproiektu aurkeztu berri dizkio Antzuolako Udalak Marisol Garmendia Gipuzkoako Mugikortasun diputatuari. "Bi kilometro eta erdiko ibilbidea txukuntzeko eskatu dio Udalak Diputazioari. Bi proiektu paretsu aurkeztu dizkiogu, 70.000 eta 90.000 euro arteko kostua dutenak. Diputazioak aztertuko duela azaldu du eta teknikariak ere etorriko direla guk paperean aurkeztutakoa bertatik bertara ikus dezaten. Errealitatean nola dagoen bidea aztertu gura dute eta".

Auzoak herriarekin lotuta

Antzuolako edozein auzotatik oinez joan gura dutenek badutela aukera azaldu du alkateak. "Adibidez, Lizarragatik edo Uza-

ragatik nahiko bide txukuna dute auzotarrek herrira jaitsi gura badute; baina Basaldeko auzotarrek, nahi eta nahi ez, GI-632, Deskargatik behera datorren errepidea igaro beharra daukate herrira joateko. Eta autobidearen irekierarekin, zirkulazioa jaitsi egingo denez, orain ikusten dugu aukera ona obratxo hori egiteko. Oinezkoendako Basalde herrigunearekin lotzeko aukera ona da".

Basalde auzoko bidegorri zatiaren proposamena egiten ari direla adierazi du Kortabarria.

BERGARARAINOKO BIDEGORRI ZATIA AUTOBIDEKO LANEKIN BATERA EGINGO DU DIPUTAZIOAK

ZUMARRAGA ETA ANTZUOLA LOTZEN DITUEN TARTEA EGITEKO ESKATU DIO UDALAK DIPUTAZIOARI

BASALDE ETA ANTZUOLA LOTUKO DITUEN BIDEGORRI ZATIA EGIN GURA DU UDALAK



Konpondu eta argiztatu den trenbide zaharreko tuneletako bat. MAIDER ARREGI

eta Basalde Errekalde auzoaren lotzeko lanean dihardutela argitu gura izan du.

Aisialdirako nahiz lanerako

Beñardo Kortabarriak argi du bidegorrien erabilera errealitatea dela gaur egun Antzuolan. Aisialdirako ez ezik, herritarrek lanera edo eskolara joateko erabiliko luketela ere badio: "Bergararekin lotuko den bidegorria eguneroko kontuatarako erabiliko lukete antzuolarrek: lanera joateko, eskolara joateko... eta trenbide zaharreko bidegorria

aisialdirako erabiltzen dute bai antzuolarrek eta baita ere kanpotik datozen herritarrek. Bidegorrien erabilerari dagokionez, ez daukat zalantzarik".

Bailarako bidegorriak

Bergara eta Antzuola lotzen dituen trenbide zaharreko *bide berdea* 10,6 kilometro luze da. Aipatu bezala, *Kaxeta* ingururaino dago bidea guztiz egokituta.

Arrasate-Oñati bidegorriak, aldiz, 9,7 kilometro. Eta Arrasate eta Aretxabaleta tartearak 8,5 kilometroko zatia du egina.



Basalde auzoa. MAIDER ARREGI

Basalde herriarekin lotzeko

Abiadura Handiko Trena bete-betean igaroko da Basalde auzotik. Eta, hain zuzen ere, AHTa igaroko den errepide azpi horretatik egin gura du Antzuolako Udalak bidegorria. Helburua da Basalde auzoko herritarrek oinez zein bizikletan herrira jaisteko aukera izatea.

Aratuste-domeka kolorez eta umorez jantziko dute herritarrek

Gaur, eskolako umeen mozorro festa ospatuko da; martitzenean, erretiratuek Landatxopen jaia egingo dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Eskolako umeek emango diete Aratusteei hasiera Antzuolan gaur. Arratsaldean, mozorro festa egingo dute eskolan. Ondoren, 15:45 aldera, Pausoka guraso taldearen eskutik txokolatea eta torradak dastatzeko aukera izango da eskolako patioan.

Aratuste-domeka, baina, izango da antzuolarrendako egunik indartsuena. Goizean, Oinarin dantza taldearen eta txistulariekin batera, hartza, tximinoa eta hezitzailea ibiliko dira herriko



Eskolako haurrak mozorrotuta. GOIENA

Gaur egingo du emakume taldeak azkeneko batzarra

Martxoaren 8an emakumeen ahalduntzea aldarrikatzeko egun osoko mobilizazioak egingo dira

Maidar Arregi ANTZUOLA

Heteropatriarkatu kapitalistari planto! lelopean, hainbat mobilizazio eta ekintza antolatzen dihardu azken hilabeteen Antzuolako emakume taldeak. Gaur, egubakoitza, egingo dute azken batzarra, Martxoaren 8an egingo diren ekintzak eta mobilizazioak zehazteko, 17:30ean, Olanen.

Bost ardatzetan oinarritzen da Martxoaren 8an deitutako greba feminista: pentsionistak, ikasleak, zaintza, enplegua eta kontsumoa.

Hala, Martxoaren 8an, goizean hasiko dira aldarrikapenak Antzuolan. Herriko emakume taldeak 09:30ean kalejira abiatuko du Beheko auzotik. Ondoren, herriko plazan gosaria egingo dute. Amantalak etxetik eroateko dei egin dute. 12:00etan elkarretaratzea egingo dute Zurrategin eta 14:00etan bazkaria –norberak etxetik eroandako jakiak elkarbanatuko dira–.

Arratsaldeko zazpitan, manifestazioa egingo dute herriko kaleetan barrena.

kaleetan barrena. 12:30ean, saio nagusia plazan egingo dute dantzariak. Besteak beste, txantxo, makila txiki, arin-arin, polka, sorgin dantza edo Antzuolako arku dantza eskainiko dute herriko dantzariak.

14:30ean, herri bazkaria izango da pilotalekuan; eta arratsaldean, mozorro lehiaketa egingo dute Herriko Plazan, 17:30ean hasita. Parte hartzaileek desfilea eta koreografia egiteko aukera izango dute. Talde onenak 200 euroko saria izango du herriko jatetxe batean gastatzeko. 18:00 aldera, Beti Jai txarangak herriko kaleak alaituko ditu.

Martitzena, aldiz, herriko erretiratuendako mozorro eguna izango da. Landatxopen mozorro festa egingo dute. Afari-merienda 18:30ean hasiko da eta mozorro lehiaketa egingo dute.

Joxe Luis Lizarralde da Antzuolako liburu sortaren irabazlea

Antzuolari buruz idatzi diren liburuekin osatutako liburu sorta Joxe Luis Lizarralde eskuratu du. *Irinmodo* blogeko hirugarren galdetegian, bederatzi lagunek erantzun dute. Eta erantzun zuzenak eman dituztenen artean, Lizarralde eskuratu du saria.

Laugarren galdetgia ere prest dago jada. Eta Iñigo Ramirez de Okariz historialariak laugarren galdeketa hori ere hainbat argazkirekin osatuta prestatu du.

Galdetgia erantzuteko aukera izango dute herritarrek martxoaren 2ra arte bitartean. "Animatu eta parte hartu! Liburu sorta ederra eskuratu dezakezue".

OHARRAK

Odol emaileak

Aratuste-domeka eguerdian, Antzuolako odol-emaileen elkarteak diru batzea egingo du urteko gastuei aurre egiteko.

Beilatoki berria

Domekan, meza nagusiaren ostean, 11:45 inguruan, Antzuolako beilatokia inauguratuko dute.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA
HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Martxoaren 8rako, bi elkarretaratze herrian

Elorregira egindako Emakume Martxan izan ziren, domekan, Elgetako dozena bat emakume. Martxoaren 8rako, berriz, bi elkarretaratze eta zaintza lanek nagusiki emakume aurpegia dutela ohartarazteko argazki erakusketa bat iragarri dituzte

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetako M8 plataformako kideek lanean dihardute Emakumeen Nazioarteko Eguneke egitaraua prestatzen.

Inguruko herri gehienetan bezala, bi elkarretaratze deitu dituzte Elgetan ere. Mendizaleen plazan izango dira biak, eta herriarrei bertan parte hartzeko dei egin diete. Lehenengo elkarretaratzea 12:00etan izango da eta bigarrena, 19:00etan.

Egunean zehar bestelako ekintzak ere izango dira, eta emakume taldeak more koloreko oihala ipiniko du udaletxeko balkoian. Herriko komertzioetan eskuragarri daude Martxoaren 8ko ekintzak diruz laguntzeko eskumuturreko moreak.

Egunotan, bestalde, bi koaderno more dabilta eskuz esku herrian. Eskolan ere beste bi jarri dituzte zirkulazioan. Nork bere gogoeta egiteko dira. Asmoa da Martxoaren 8ko bigarren elkarretaratzean erakustea.



Elgetako emakume taldea, domekan, Elorregirako bidean. ELGETAKO EMAKUME TALDEA

Elorregiko martxan

Bailarako beste hainbat emakumekin batera, Elgetako hainbat ordezkari izan ziren domekan Elorregiko elkarretaratzean. Martxoaren 8ra begira eskualdeko talde eta batzorde feminis-

tek antolatutako ekimena izan zen, eta motorrak berotzeko balio izan zuen. Amantalak eta jantzi moreak soinean, elgetarrek Bergarakoekin eta Antzuolakoekin batera egin zuten Elorregirako bidea, oinez.

Elgetako Korrika Batzordeak gaur ekingo dio material salmentari

Bilera irekietan parte hartzera deitu dituzte herritarrak, eta jakinarazi dute kilometro bat lagunduko dutela diruz

L.Z.L. ELGETA

Apirilaren 13an hartuko dute lekukoa elgetarrek, eta Bergararik Osintxurako tartean izango da. Elgetako Korrika Batzordeak jakinarazi du autobusa antolatuko duela egun horretan joan-etorria egiteko.

Laugarren batzar irekia egin zuen, atzo, Elgetako Korrika Batzordeak, eta ateak zabalik dituztela adierazi dute; izan ere, garrantzitsua da herritarrek bertan parte hartzea. Korrika eguna antolatzeaz gain, beste hainbat ekitaldi egin gura di-



Korrika Elgetan, 2015ean. L.Z.L.

tuzte herrian, eta elkarlanerako dei egin dute.

Herri Korrika, apirilaren 12an

Korrika ez da aurten Elgetatik igaroko, baina eskolak Korrika Txikia egingo du, eta batzordeak Herri Korrika antolatuko du. Apirilaren 12an izango dira biak. Herriko elkarteetan, enpresen eta norbanakoen parte hartzea sustatzea izango dute helburu. Ozkarbi elkarteetan egitekoa den bertso-afari batekin amaituko da eguna.

Motorrak berotzeko, berriz, argazki sorta bat eta Korrikako bideoklipa egiteko ahaleginean ere badihardu batzordeak. Gonbidapena egina dago.

Gaur, bestalde, Korrikako material salmentari ekingo diote. Inauteriko ekintzak dauden bitartean ipiniko dute mahaia.



Zaintza lanak agerian jarri nahi dituen erakusketarako argazkia egiten. L.Z.

Argazki erakusketa zeramika gelan

Elgetako emakume taldeak antolatuta, zaintza lanen garrantzia azpimarratu gura duen argazki erakusketa izango da ikusgai. Bihartik martxoaren 10era, hemezortzi argazki izango dira ikusgai zeramika gelan, eta Herri Eskolan beste hamabi ipiniko dituzte.

Udalak, adierazpen instituzional bi

Martitzenean egindako osoko bilkuran, bi adierazpen instituzional onartu zituen Elgetako udalbatzak. EH Bilduk aurkeztutako koalizio bost zinegotzien aldeko botoekin egin zuen aurrera; izan ere, oposizioak aurka bozkatu zuen. Udalbatzak, berriz, aho batez onartu zuen Gu Geu Elgetak aurkeztutako idatzia.

Oposizioordezkari Eduardo Zubiaurreren esanetan, adierazpen bien arteko alde argiena deituta dagoen lan grebari erakutsitako atxikimendua da. "Emakumeen eskubideen eta egoera hobetzearen alde gaude, baina, akaso, ez gaude ekimen guztiekin ados. Nik, esaterako, ez dakit zergatik egin behar den greba". Gu Geu Elgetak aurkeztutako adierazpena babestu zuen EH Bilduk, baina hankamotz gelditzen dela argituta.

Bihotzeko eta biriketako suspertzea egiten ikasteko saioa

Herriko boluntario baten laguntzarekin bihotzeko eta biriketako suspertzea egiten ikasteko eta KDA gailua egoki erabiltzen ikasteko saioa antolatuko du Udalak. Adierazi dute Elgeta herri kardio-babestua izateko bidean urratsak egiten jarraitzeko ekimena dela.

Bost ordu inguruko ikastaroa izatea aurreikusten dute antolatzaileek, eta jakinarazi dute izen-ematea zabalik dela udalteez, martxoaren 15era arte. Orduetgia izena ematen dutenen interesen arabera jarriko dute la jakinarazi dute.

2018ko azaroan kokatu zuen Udalak KDA gailua Mendizaleen plazako zutabeetako batean.

OHARRAK

Ibiltarien Jaia

Martxoaren 10ean izango da Ibiltarien Jaia. Irteera, diploma banaketa eta bazkaria daude iragarrita. Informazio gehiago eta izen-emateak, udaletxean.

Erretiratuen batzarra

Xalbadorpe elkartearen kideek urteko batzar orokorra egingo dute martxoaren 8an, 17:30ean, Ozkarbin. Amaitutakoan, pintxoak eskainiko dituzte.

'Pinotxo' ikuskizuna

Kultur Hiruk antolatuta, hilaren 16an, Glu Glu taldearen haur ikuskizuna izango da Espaloian. Sarrerak salgai daude, zortzi eurotan.

Mozorrota eta lotsa galtzeko eguna gaur

Eskolako neska-mutikoen mozorro kalejirarekin abiatuko dira Inauteriak Elgetan. Ondoren etorriko dira dantzak, txokolate-jana, DJ jaialdia eta buruhandiak. Eta iluntasunarekin batera irtengo dira kalera mozorro handiagoak

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Ganbaratik edo mozorro denda-tik pasa ostean, baina ezohiko jantziekin irtengo dira gaur kalera herritar ugari; izan ere, Inauteri eguna da Elgetan.

Aldamenekoak sano zirikatze-ko egunak eta orduak dira, eta egongo da Elgetan ere horretarako aukera.

Urtero moduan, Herri Eskolako umeez eta irakasleek abiaraziko dituzte Inauteriak herrian. Ikastetxeko neska-mutikoen kalejira egingo dute, eskolatik 15:00etan abiatuta. Musikarekin lagunduta plazarainoko ibilbidea egingo dute, eta iritsitakoan dantzak eskainiko dituzte, taldeka. Egunak eman dituzte kantua ikasten eta koreografiak lantzen, eta *Mari Kalanbre*, *Basakabiko atarian*, *Lasai*, *Pailazo*, *Zer den bizitza* eta *Sexuarekin bat* abestuko eta dantzatuko dituzte. Amaitzeko, Xabi Solanoren *Erre zenituzten* kantua dantzatuko dute guztiek batera.

Txokolate-jana eta DJ jaialdia

Udalak eta Maala guraso elkar-teak antolatutako ekintzekin jarraituko du Inauteri festak; izan ere, 16:30ean txokolate-jana eskainiko du guraso elkar-teak eta 17:00etarako I&D jaialdia iragarri du Udalak.



Mozorrotautako neska-mutikoak iazko DJ jaialdian. L.Z.L.

HERRI ESKOLAKO NESKA-MUTIKOEN 15:00ETAN EGINGO DUTE MOZORRO KALEJIRA

Buruhandiek ere bat egingo dute Inauteri festarekin eta 18:30ean irtengo dira mozorro txikien harrapaketa aritzeko. Eguraldi ona bada plazan izango dira ekintza horiek guztiak, eta, bestela, Udal Pilotalekuan.

Inauteri astelehena eta martitzena direla eta Herri Eskolan jai hartuko dituzte bi egunak. Lau eguneko aste bukaera izango dute, beraz.

Erretiratuak, martitzenean

Xalbadorpe erretiratuaren elkar-teak, berriz, jakinarazi du martitzenean ospatuko dituztela Inauteriak. Urteroko txokolate-jana egingo dute, eta 17:00etarako deitu dituzte herriko erretiratuak Ozkarbi elkar-terera. Bingo saioa ere egingo dute. Txokolate-janaren ostean izango da.



Mireia Rubio eta Maitena Mañarikua, Elgetako pilotalekuan. L.Z.L.

Aretxabaletako txapelketan aurrera egiteko gogoz

Elgetako lau bikote lehiatu dira aurten, eta Mireia Rubio eta Maitena Mañarikua finalerdietan izango dira

L.Z.L. ELGETA

Bi taldetan banatuta jokatu dute sailkapen ligaxka Aretxabaletako UDA kirol elkartearen emakumezkoen VI. frontenis txapelketan. Jokatuak lau norgehiagokak irabazita, euren taldeko lehen postuan amaitu dute ligaxka hori Mireia Rubio eta Maitena Mañarikua elgetarrek. Hala, finalerdietarako txartela eskuratu dute, eta martxoaren 8an jokatu dute. Finalerdien ostean jokatu da finala.

Sasoiko dira elgetarrak eta ahalik eta lan onena egin gura dute. "Jokalari onak daude txa-

pelketan, baina gogoz gaude eta ez dugu oparirik egingo", esan du Rubiok. Bereziki indartsu ikusten dute beste taldeko ligaxka irabazi duen Laura Saez eta Inge Sancristobal bikotea.

Lau bikote Elgetatik

Nabarmenezkoa da Elgetako zortzi emakume aritu direla Aretxabaletako txapelketan. Mañarikua eta Rubio sailkatu dira finalerdietarako, baina Bea Zabala, Rakek Zamalloa, Idoia Elkoro, Idoia Serna, Miren Argi Zeziaga eta Iratxe Bravo ere lehiatu izan dira.

Botaldi berezien txapelketan izango dira Elgetako bolariak

Bihar jokatu dute lehenengo tiraldia Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako jolastokian dagoen bolatokian

L.Z.L. ELGETA

Aurtengoa urte berezia da Gipuzkoako bolariendako; izan ere, Gipuzkoako txapelketaren 50. urteurrena betetzen da. Horregatik, ezohiko ekintzak izango dira 2019an; tartean, Gipuzkoako botaldi berezien txapelketa. Txapelketa hori, urterokoa den Gipuzkoako hiru txirilo txapelketari gehituko zaio.

Botaldi berezien txapelketako lehenengo tiraldia bihar, zapatua, jokatu da. Aretxabaletan izango da, 17:00etan. Elgetako bolariak jakinarazi dute taldea osatuko dutela, eta aurten Aretxabaletakoak ere Elgetatik federatuko direla.

Gipuzkoako txapelketari dagokionez, martxoaren 23an hasiko da, eta, urtero moduan, Elgetan jokatu da jardunaldietako bat. Ez edozein, gainera; izan ere, azken jardunaldia da Elgetan jokatu dena. Bolatokia izango da, maiatzaren 25ean.

Berezitasun moduan, egun horretan, gainera, bigarren txapelketa bat ere jokatu da. 22:30ean hasiko da eta irekia izango da.


Gauean beste estilo bateko mozorroak

Irudimen eta umore erakustaldia egiteko aukera polita izaten dira Inauteriak, eta mozorro ugari agertu ohi dira iluntzetik aurrera Elgetan ere.

Inauterietan baino indar handiagoa du Elgetan herriko jaietan mozorroak, baina beti animatzen dira kuadrillak zein norbanakoak mozorro festara. Aurten ere kolorea eta umorea emango ote diete Inauteriei?



Bi inude, zaintzen zuten neskatilarekin, orain bost urte, Elgetan. L.Z.L.



Errotazio bidezko 86 aparkalekuen plano bat; auto elektrikoendako lau plaza aurreikusten dira, besteak beste. BEB ARKITEKTOAK

Parkinga egiteko prezioa, presio eta ardura iturri

Seminario azpiko aparkalekuak egiteko 500.000 euroko kreditu gehigarri bat eskatu izanak eztabaida eragin du udalbatzan; Gobernuak dio proiektua "nabarmen" hobetu dela eta oposizioak salatu du hasierako aurrekontuaren bikoitza gastatuko dela, gutxienez

Jokin Bereziartua BERGARA

Seminarioko parkinga egiteko 500.000 euroko kreditu gehigarri bat onartu zuen udalbatzak asteleheneko bilkuran. Otsailaren 8an onartutako dekretu baten berri eman zen eta, bozketarik ez egon arren, EH Bilduk hitza hartu zuen, "proiektuak izango duen gainkostua" salatzeke.

Artola: "Arduratuta gaude"

"Estimazio bat egin dugu eta 2.800.000 eurotan jarriko ginateke obra osorako... Arduratuta gaude, ez dakigulako 1.400.000 eurokoa izan behar zen obra batek zer izaten amaituko duen. Obra hori prezio horretan egin ahalko zenik beldur ginen, eta gure beldurrak konfirmatzen

ari dira. Eta argi dugu aparkaleku beharra dagoela Bergaran eta soluzio bat bilatu behar zaio la", esan zuen Gorka Artolak. Boluko estalkiarekin "antzeko zerbait" gertatu zela gogoratu zuen oposizio talde nagusiak.

Irabazi hasieratik agertu da seminarioko parkingaren kontra, mugikortasun ikuspegitik

"20 urte edo gehiago" atzera egitea dela sinistuta.

Lizarralde: "Ez du atzera bueltarik"

Gainera, hasierako aurrekontua baino "askoz gehiago" kostatuko dela ere kritikatu zuen Lizarralde osoko bilkuran: "Lau milioi euro inguruko kostua kalkulatu dute gure teknikariek. Gobernuaren benetako kostua ezkutatu guran aritu da; dagoeneko ez dauka atzera bueltarik...".

Lete: "Proiektua askoz hobe da"

Gobernuak kostu gehigarria proiektua "nabarmen" hobetu izanarekin arrazoitu zuen eta hobekuntza horien artean daude, Elena Lete alkatearen arabera, 74 plazatik 86ra pasatzea, bertan zegoen kolektorea kentzea eta aurreikusten diren "urbanizazio lan gehigarrien" artean, besteak beste, Ibargarai kaleko espaloia zabaltzea. "Urtebete daramagu proiektu honekin buru-belarri lanean eta lan horrek ekarri du proiektua hasierakoa baino askoz hobe izatea, eta bidean aurkitu ditugun aukerak baliatu ahal izatea. Horren ondorioz, aurrekontua igo egin da".

Zubietako "eskaera zaharrak"

Bestalde, zubiko lanak amaituta, Zubietako bizilagunak balorazio bat egiteko asmoz hurbildu ziren bilkurara; agertu ziren bizilagunen arabera, zubia polita geratu den arren, askori ez zaie alde baten dagoen txapa zatia gusta-

tzen. Hala ere, bereziki auzoa balioan jartzeko eta bertako irisgarritasuna bermatzeko beste eskaera bat egin zuten. "2019tik hasita, Udalak diru-poltsa egiten hasteko eskatu genuen, baina, ondo dakizuenez, ez da posible izan. 2020ra begira, aurrekontu berriak, gobernu berria eta aurrepegi berriak izango dira udalbatzan. Zubietan, aldiz, eskaera zaharrak", esan zuen Joxe Sanchez auzotarrak.

Gizarte etxea, San Joxeperen esku

Boni Laskuraingo gizarte etxea San Joxepe elkarteak kudeatuko du aurrerantzean, osoko bilkuran onartutako hitzarmenari esker. Udalak doan utzi dio gizarte etxea San Joxeperi eta elkarteak gizarte-onurako jarduerak antolatzen jarraitzeko konpromisoa hartu du. Bestalde, Udalak hornidura eta hainbat gastu ordaintzeko dirulaguntza emango die; esaterako, argindarra, gasa edota garbiketa gastuendako. Lokala zabalik dago beste talde batzuek ere erabil dezaten, betiere, San Joxeperen eta Udalaren oniritziarekin.

1996an sortua, gaur egun 1.600 bazkide inguru ditu San Joxepeak.

ZUBIETAKO ARDATZA IRISGARRIA EGITEKO POLTSA BAT SORTZEN JOATEA ESKATU DUTE BIZILAGUNEK



EH BILDU

Artola babesteko talde argazkia

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako EH Bilduren alkategai Gorka Artolari babesa eta berotasuna adierazteko talde argazkia atera zuten martitzen iluntzean San Pedro elizako atarpean. "Gorkaren konpromisoa eskertzen dugu, eta babes osoa ematen diogu berari eta

bere bueltan sortzeaz dagoen lantaldeari. Posible da Bergara hobe bat eraikitzea; gertu gaude gobernatzeko modu herritarrago baten parte hartzeko". Artolak esker on hitzak izan ditu jasotako babesagatik: "Elkarrekin merezi dugun herria izateko proiektua osatuko dugu".

OHARRAK

Elena Lete alkategai moduan aurkeztuko dute

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako alkategai moduan aurkeztuko dute gaur Elena Lete, Matxiategiko plaza berrian (19:00). Joseba Egibarrek ere hartuko du parte ekitaldian.

Kursaal, eskura: autobusa Bergaratik, doan

Martxoaren 7an, Gustav Mahlerren 3. sinfonia-z gozatzeko aukera egongo da Kurasaalean, eta Bergaratik autobusean joateko aukera dago, doan. Izena emateko: 943 77 91 00.

Bergara hobetzeko ideiak, hilaren 17ra arte

260.000 euro bideratuko dira herritarren ideiak gauzatzera. Interes orokorrekoa, urtebetean egingarria, Udalaren eskumenekoa eta bideragarria izan beharko du; martxoaren 17ra arte aurkez daitezke proposamenak: www.bergara.eus.

Dirulaguntza programa 2019-2021

Udal Gobernuak asteen aurkeztu duenez, 2019an 288.120 euro bideratuko dira dirulaguntzetara, 2018an baino 3.000 euro gehiago. Gizarte, kultura, kirol eta ingurumen arloetako zein sustapen ekonomikoan diharduten elkarteek ematen zaie laguntza, dirulaguntza bateratuen deialdiaren barruan.



Maidor Jorge Gabilondo ikaslea eta Manu Arregi irakaslea. GOIENA

Espazioarekin konexioa egitekoak dira Aranzadin

ARISS izeneko mundu mailako ekimen baten barruan, Nazioarteko Espazio Estazioan bizi diren astronautekin zuzeneko konexioa egingo dute Aranzadiko ikasleek udaberri amaieran; Sevillako eta Mallorcako beste bi eskolarekin batera izan dira aukeratuak

Julen Iriondo BERGARA

Adin guztietako ikasleek izango dute Nazioarteko Espazio Estazioan bizi diren astronautekin jarduteko aukera. Aranzadiko irakasle Manu Arregiren arabera, "irradi afizionatuen bitartez" gauzatuko da konexioa: "Jende askok ez daki, baina 400 kilometroko orbita batean sei astronauta bizi dira, eta proiektu honen helburua da gaztetxoentzientziarekiko lotura eta ilusioa sorraraztea. Proiektu polita da, kaleko neska-mutilei ematen dielako aukera hor goian dauden astronautekin berba egiteko".

Aranzadi ekimen horretan murgildu izanaren erantzule nagusia bertako batxilergoko ikasle Maidor Jorge Gabilondo da, Donostiako ikastetxe batean parte-hartzearen gaineko notizia ikusi baitzuen telebistako albistegian; 2018an donostiarrek egindakoa aurten eurek egitea proposatu zuen ikastolan: "Telebistan ikusi nuen Donostiako ikastola bateko ikasleek astro-

nautekin berba egiteko aukera izan zutela; hurrengo egunean gelara joatean irakasleari galdetu nion ea ikusi zuen berria, eta baietz erantzun zidan. Galdetu nion guk egin ahalko genukeen hori; bidali zizkidan Interneteko lotura batzuk, hasi nintzen informazioa bilatzen eta hemen gaude".

Geletan lanketa berezia egiten ari dira azkenaldian, eta Aranzadiko ikasleek –Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoe, guztiek– astronautei egingo dizkieten galderak hautatu behar dituzte orain; baina kontua ez da zuzeneko konexiora mugatzen, herrian beste ekimen batzuk egitea ere nahi dute-eta Aranzadikoek. Izan ere, ikastetxeen

SEI ASTRONAUTA BIZI DIRA NAZIOARTEKO ESTAZIOAN; IRRATI AFIZIONATUEN BIDEZ IZANGO DA KONEXIOA

aukeraketa egiterakoan horrelako gauzak ere kontuan hartzen dituzte proiektuaren arduradunek: "Internet bidez egin behar zen eskaera, eta proiektu pedagogiko bat aurkeztu behar zen. Kontua ez da mugatzen egun bateko ekintzara, eurekin hitz egitera eta listo, baizik eta aurreikusitako behar ziren aktibitate asko, eta asko baloratzen zuten herri mailako aktibitateak izatea, bailara mailakoak...".

Zuzeneko konexioa udaberri amaieran izango da, maiatz edo ekain aldera, astronauten agendaren arabera; hiru aste inguruko aurrerapenez jakingo ei dute ziurtasunez noiz. Bergarakoekin batera, Mallorcako eta Sevillako beste bi ikastetxeek ere izango dute aukera.

Eta beste ekimen bat ere bai
Bestalde, Manu Arregi irakasle oñatiarra estratosferarako beste bidaia bat prestatzen ari da, duela urte batzuk Oñatitik txantxikua bidali zuena modukoa.



NIRE USTEZ

ANA BELEN CARPINTERO

Loturak

Lagun batek loturen gainean idaztea proposatu dit. Abstraktu samarra egin zait hasieran, nondik hasi... nire loturei begira hasi naiz. Berehala irten dira loturarik mardulenak; lana, familia, herria... baina nahi gabe agertu dira, baita ere, ezkutuago dauden batzuk, lotura emozionalak, psikologikoak... Nire loturei begira nagoela, ohiko dikotomia: loturak onak dira edo txarrak? Galdera honen erantzunak baldintzatu dezake nire bizitzarekiko asebetetze maila? Loturak askatasunaren antonimo diren heinean txarrak dira, askatasunik eza txarra baita; beraz, ez naiz zoriontsu. Benetan? Ez zait ondorioa gustatu, ez dut uste egia denik, beste buelta bat eman behar diot gaiari... eta hortxe nire energia, oreka eta bakearen iturri den naturarekiko lotura... ezin da txarra izan... pertsona berezi horrekin lotzen zaituen lotura berezi-zirraragarria... Nola izango da txarra? Agian loturak berak ez du baldintzatzen nire zoriontasuna, agian estutzen nauten loturen korapiloak askatzeko zailtasunak baldintzatzen du. Betiko lez, nik sortutako korapiloan lotua geratu naiz gaur ere, baina korapiloak askatzea datsegit.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Illaran orduak pasa, eta leku onik ez



Aratuste kontzerturako sarrera leihatilan erosi duen bat, kexu: jendea 14:00etatik egon zela illaran, baina 18:00etan salmenta hasi eta leku onik ezin hartu, Internetez hartu zituelako jendeak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Etxebizitza hutsen gaineko irabaziren mozioa, aho batez

Irabaziren arabera, 747 etxe huts daude egun Bergaran, horietatik 220 alde zaharrea. Mozioarekin, udalbatzak Jaurlaritzari eskatu dio: berehalako neurriak har ditzala hutsik dauden etxeok erabilgarri jartzeko; eta Udala ahaldundu dezala etxe hutsak alokairu sozialerako parke publikoan sartzeko neurriak hartu ahal izan ditzan.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

'Denon ardura, emakumeak erdigunera'

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, martxo osorako ekitaldiak antolatu ditu Udalak beste hainbat elkarterekin elkarlanean; film laburrak, korrika saioa, erakusketa bat, hitzaldi bat, zinema emanaldiak eta monologoak, besteak beste



Martxoko egitarauaren aurkezpena. AMAIA TXINTXURRETA

Amaia Zabala BERGARA

Bergaran hainbat elkarterekin eta ekimenekin elkarlanean antolatu dute Martxoaren 8ko egitaraua. Udalak, Bedelkarrekin, Zinegoak-ekin, Emakumeen Biharra kolektiboarekin eta Korrikarekin lotu du, besteak beste, martxo osoan zehar herrian egingo diren ekintzen egitaraua. Emakumeen Nazioarteko Eguna behar bezala aldarrikatzeke antolatu dituzte, hain justu, hila-bete osorako ekintzak, lelo honekin: "Aurtengo Martxoaren 8ko leloa da *Bizitzak erdigunera* eta guk, lelo hori Bergarara ekarrita eta egokituta, *Denon ardura, emakumeak erdigunera*

egin dugu. Hain zuzen ere, gizar-tean partekatuta ez dauden hainbat lan ikusgarri egin nahi ditugu, guztion artean banatzeko; erdigunera ekarri nahi ditugu. Eta erdigunera eraman nahi ditugu, baita ere, emakumeok sufrizten ditugun hainbat bidegabekeria", azaldu du Bergarako Udaleko Berdintasun teknikari Maider Urbietak.

Martxo osoan, udaletxean, Irizar jauregian, liburutegian eta Agorrosinen Udaleko Berdintasun Planaren gakoak azaltzeko panelak jarriko dituzte, eta, Bedelkar Merkatarien Elkarteko hainbat negoziari esker, giltzarri bereziak banatuko dituzte herritarren artean.

Bedelkarkoek iaz jarri zuten ekimenaren antzerako bat ere abiaraziko dute. Hauxe adierazi du elkarteko presidente Maitane Azkaratek: "Kartel batzuk egin ditugu, Emakumeen Nazioarteko Eguna babesteko. In-guruko emakumeak azaltzen diren artxibotik ateratako argazki batzuk erabiliko ditugu esaldi batzuekin. Dendaz denda ikusteko, erakusketa moduko bat jarriko dugu".

Martxoaren 8an, zer?

Martxanterak taldeak Bergara mailako batzar bat osatu du Martxoaren 8ko egunaren hari-ra, eta, egun osoko greba izanik, hainbat ekintza antolatu dituzte Emakumeen Egunerako.

Egunari hasiera emateko, 10:00etan, zarata aterako dute erdigunetik kanpora; hau da, auzoetara joango dira eta auto karabanak egingo dituzte.

12:00etan, berriz, elkarretaratzea egingo dute San Martin plazan eta jarraian bazkaria izango da plazan bertan. Jakinarazi dute bakoitzak eroan beharko duela bere bazkaria, nahiz eta erdigun-ean ere egongo den bertaratzen direnak zaintzeko lapiko komun bat eta nahi duenak hortik ere hartu ahal izango duen jana. Bazkaldu ondoren, berriz, mahai-ingurua egingo dute herriko hainbat esperientzia partekatze-ko. Azkenik, 19:00etan, manifestazioa izango da.

Adierazpen instituzionala

Udalak adierazpen instituzionala egin du, herritarrek Martxoaren 8ko ekimenetan parte hartzea gonbidatzeko.

'Emakumien biharra' erakusketa

Emakumien biharra du izenburu hirugarren urtez jarraian eta Martxoaren 8aren bueltan antolatu duten erakusketak. Aurten, herriko komertzioetako emakume langileak izan dira erreferente erakusketa artikulatzeko. Adin guztietako 27 emakumek hartu dute parte: pinturak, marrazkiak, collageak, eskulturak, argazkiak, bideoak eta bideo instalazioak, tapizak... Martxoaren 7an inauguratuko dute, Aroztegin (19:30), eta martxoaren 24ra arte egongo da zabalik. Antolatzaileek zehaztu dutenez, duela hiru urte hasitako bidea oso emankorra izan da: "Herrian praktika artistikoan murgilduta dauden emakumeak kontaktuan jartzea, euren artean modu kolektiboan antolatzea eta euren ideiak, iritziak eta ardurak erakusketa batean biltzea du helburu zeregin horrek".

Martxoko egitaraua

- **Martxoak 6** 20:00etan, Zabalotegin, zinekluba. 2019ko Zinegoak-en film laburrak: *Anders, Vidi Ja Ti Nea, Devi, Malik, Oasis* eta *Nomeolvide*.
- **Martxoak 7** 18:30ean, Klika, Emakumeok korrika, Korrika Batzordeak antolatuta. San Martin plazatik abiatuko da.

- **Martxoak 7** 19:30ean, Aroztegi aretoan, *Emakumien biharra* erakusketaren irekiera.
- **Martxoak 8** 24 orduko greba deialdia. *Bizitzak erdigunera* lelopean.
- **Martxoak 10** Lilatoia Donostian.
- **Martxoak 12** 19:00etan, hitzaldia Irizar jauregian. *Emakume eta antifrankista*,

- zigor bikoitza: Saturrarango espetxea* izenburuko hitzaldia. Antolatzailea: Korrika Batzordea.
- **Martxoak 13** 20:00etan Zabalotegin, zinekluba. *Girls Rising*.
- **Martxoak 17** 19:00etan, Seminarixoan, monologoak. *Bakean dagoena bakean utzi*.
- **Martxoak 27** 20:00etan, Zabalotegin, zinekluba. *Girl*.

Martoko auzoa "hobetzeko" lanean hasiko da Udala

2019ko udal aurrekontuetan 14.000 euroko partida sartu da, egin beharreko lanen zerrenda ordaintzeko

Amaia Zabala BERGARA

Martoko auzoko herritarren eskaerari erantzunez, auzoa hobetzeko lanak hasiko dituela jakinarazi du Bergarako Udalak. Horretarako, azken urte honetan auzotarrekin hainbat batzar egin

dituzte, haien "eskaerak jaso eta auzoaren beharrak detektatzeko asmoz".

Auzoko ordezkariarekin hurrengo batzarra martxoaren 7an egingo dute eta lan horiek gauzatu ahal izateko Imara inge-

niarritza eta arkitektura enpresaren zerbitzuak kontratatu ditu Udalak.

Bidegorri sarea

Bergarako bidegorri sarean emango diren aurrerapausoen berri ere eman du Udalak. Ibar-garaiko autobus geltokitik Urteaga kale barrenerainokoa izango da; hain justu, Foru Aldundiak gauzatuko duen zatiraino. Aurrekontua "ia 550.000 eurokoa" izango da eta "aurten" hasiko dituzte lanak.



Udaleko eta Imana enpresako ordezkariak Martoko auzoan. IKER BARANDIARAN

Zazpigarrena irabazi, eta Aratusteak ondo ospatu

2019an jokaturako zazpi jardunaldietatik seitan garaipena lortu dute Soraluze BKEko mutilek. Bihar, ordutegi berezian (13:00) jokaturako dute sailkapenean kontrario zuzena den Bidasoa Irunen kontra, ondoren Aratusteak behar den moduan ospatzeko

Xabier Urzelai BERGARA

Urtea ezin hobeto hasi dute Soraluze BKEko mutilek. Mahoneroek azken zazpi partiduetatik sei irabazi dituzte, eta denboraldi hasiera irregularra egin ondoren, 2019an ikusgarri dabilta. Horri esker, bosgarren posturaino egin dute salto, eta lehenengo postuan dagoen Muntarpek (26 puntu) alde polita badu ere, ondoren datozen lau taldeen artean bi puntuko alde baina ez dago. Horren harira, baina, Josetxo Muniategik garbi dauka partiduz partidu joan behar dutela: "Eta datozen bi partiduak -Bidasoa eta Elgoibar-, gainera, oso garrantzitsuak izango dira; izan ere, atzetik gertu datozen taldeen kontrakoak izango dira, eta horiek irabazita arnasa hartuko dugu".

Atzealdekoak urrun mantentzea

Bergarakoen lehenengo helburua da iazko estutasunak ez errepikatzea: "Jaitsiera postuetatik ahalik eta gehien urrundu gura dugu, eta lehenbailehen, gainera. Iaz, larri ibili ginen, baliteke aurten ere lau taldek maila galtzea, eta ez dugu borroka horretan egon gura".

Hala, lehia estu horretan, bihar (13:00), Bidasoa Irun kontrario zuzena izango da Labegaraletan:



Bergarako jokalaria airean, jaurtiketa egiteko puntuan. IMANOL SORIANO

"Bidasoa oso talde ona da, oso denboraldi hasiera ona izan zuten [zazpi partiduetatik sei irabazi zituzten]. Orain, seigarren postuan daude, hiru puntura ditugu, baina potentziala gorago egotekoa daukate", dio Josetxo Muniategik.

Liga amaiera gogorra

Datozen bi partiduen ondoren, bergararrek liga amaiera gogorra izango dute: "Hain zuzen, aurrealdeko postuetan dauden taldeen kontra jokaturako dugu. Momentu onean harrapatzen

bagaituzte, mahai gainean kolpe bat emateko moduan egon gaitezke, baina, badaezpada, azken fase horretara etxeko lanak eginda iritsi behar dugu, puntu kopuru polita lortuta.

Igoera fasea ere, parean

Hain zuzen, atzealdeko postuak zaintzen badabilta ere, Bergarak puntu-puntu du igoera fasea jokaturako dutenen multzoan sartzea: "Baina, aurreratu moduan, dugun liga amaiera gogorrek partiduz partidu joatera derrigortzen gaitu".

Mendi Astea aurrera doa

Pol-Pol Mendi Elkartaren Mendi Astea aurrera doa -argazkian, Mikel Valdiviesok martitzenean Ehun Miliak lasterketaren bueltan eman zuen berbaldia-, eta gaur, egubakoitza, *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentala erakutsiko dute (19:00).

Bihar, zapatua, berriz, mendi irteera egingo dute Arrasateko Galarra kobara.



A. ERANA

Sergio Gutierrez eta Iraitz Zubizarreta finalean dira

Martitzenean erabakiko dute ze pilotari sailkatuko diren Gutierrezekin eta Zubizarretarekin batera finaletarako

X.U. BERGARA

Soraluce Lau Eta Erdiko txapelketak baditu lehenengo finalista. Martitzenean jokatu zituzten lehen finalerdiak, eta promes mailan Sergio Gutierrezek eta senior mailan Iraitz Zubizarretak egin zuten aurrera. Hala, martitzenean erabakiko dituzte beste bi finalistak (19:30, Udal Pilotalekua).

Promesetan, 18-18 egon ziren

Sergio Gutierrezen eta Ander Ruiz de Larramendiren arteko partidua oso gorabeheratsua izan zen. Hasierako minutuetan bi pilotariek min handia egin zioten elkarri sakearekin. 18-18 zeudela, Gutierrez errioxarra ezker eskua bilatzen ahalegindu zen, eta hor lortu zuen finalerako txartela (22-19).

Senior mailan, Iraitz Zubizarretak partidu borobila egin



Gutierrez eta Ruiz de Larramendi. J.A.

zuen. "Arrietak hirugarren tantoan min hartu zuen atzamarean, eta horrek asko baldintzatu zuen partidua. Hala ere, Zubizarretak erakutsi zuen oso momentu onean dagoela eta finalean kontrario gogorra izango dela", adierazi du Julen Aranburuk.



Musika protagonista izango da Inauterietan

'Juven Rhapsody' kontzertua eskainiko dute Musika Bandak eta Bergarako Orkestrak gaur, Udal Pilotalekuan. Goienak grabatu egingo du emanaldia eta streaming bitartez eskainiko du 'Goiena.eus' atarian, zuzenean; eta martitzenean, Goiena telebistan

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA
Gaur hasiko dituzte Inauteriak ofizialki: kolorea, musika, alaitasuna... hori guztia ekarriko dute Bergarako Musika Bandako eta Bergarako Orkestrako kideek Udal Pilotalekura. *Juven Rhapsody* emanaldia eskainiko dute, 22:30ean. Sarrerak salgai jarri zituzten joan zen barikuan, eta ia denak saldu ziren momentuan —edizioa ixterakoan, hiru sarrera geratzen ziren salgai—. Herritarren interesa pizten duen emanaldia izaten da; aurten, gainera, Gonzalez Chirlaquek zuzenduko duen azkeneko emanaldia izango da eta horrek ere berezitasuna eman dio kontzertuari.

Goienak grabatu egingo du emanaldia eta *streaming* bitartez eskainiko du musika kontzertua, zuzenean, *Goiena.eus* atari digitaalera; Goiena telebistan, aldiz, martxoaren 5ean, martitzena, eskainiko dute kontzertu osoa, 23:00etan.



lazo emanaldia, Udal Pilotalekuan. GOIENA

Pailazoen 'Musua' ikuskizuna
Bihar, zapatua, etxeko gaztetxoek Inauteri festarekin gozatzeko aukera izango dute. 17:30ean, Bergarako Udal Pilotalekuan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Musua* ikuskizuna

Barikuetan, domeketan eta astelehenetan izango da zinema

Instalazio elektriko ia guztia amaitu dute Semimarixoan, eta datorren astean pantaila jartzea aurreikusten dute

A.E. BERGARA

Zinema komertzialaren denboraldia bitan banatuko dute: urtarriletik maiatzera bitartean eta urritik abendura arte. Maiatzean hasiko dira zinema eskaintzarekin, eta, udako etenaldiaren ondoren, urrian itzuliko dira eskaintza gehiagorekin.

Dagoeneko zehaztu dute ordutegia: barikuetan 22:00etan —hilean behin estreinaldi bat eskainiko dute—; domeketan, 19:30ean helduena eta 17:30ean haurrena; eta astelehenetan, 20:30ean helduena —ikuslearen eguna—.

Seminarixoko zinema programaziorako filmak hornitzea eta filmen proiektzio zerbitzuaren kontratazio adjudikazio deialdia zabalik dago, eta proposamenak aurkezteko epea martxoaren 11ra arte izango da. Horniketara eta instalazio lanak, aldiz, Bizkaiko Tecnica Cimatografica Loza enpresa dabil egiten. Instalazio elektriko ia guztia amaitu dute eta datorren astean pantaila eta horniketara guztia egitea aurreikusten dute. 2019ko horniketara eta proiektzio gastua 30.979,72 euro izango da.

eskainiko dute. Sarrerak *Ticket.kutxabank.es* atarian eros daitezke, sei euroren truke.

Horrez gain, goiz partean Txorrotxaranga taldeak herriko kaleak girotuko ditu eta 14:30ean moztorro bazkaria egingo dute Aranzadiko gimnasioan. Txartelak aurrez saldu dituzte, 16 euroren truke. Jai batzordeak dei berezia egin die herritarrei, tabernariei eta dendariei jai egun hauetan moztorrotu daitezkeen.

Erraldoien kalejira

Gaztetxoaren gozamenarekin jarraitzeko, Bergarako erraldoiak kalera irtengo dira zapatu arratsaldean. 18:30ean hasita, herriko erdiguneko kaleetan zehar ibiliko dira. Erraldoi handiak, ertainak eta txikiak, guztiak aterako dituzte. Herriko kaleetan ibiliko dira txistularien eta gaiteroen doinuek lagunduta.

Iluntzean, aldiz, Tximeleta musika taldeak girotuko du San Martin plaza. Saioa bi zatitan banatuko dute: 20:00etatik 21:30era egingo dute lehenengo saioa eta 22:30etik 00:00etara bigarren saioa.

Musika eskolako gaztetxoak

Zapatuko ekintzen ostean, Aratuste-martitzenak jarraituko du Inauteri festarekin. 16:30ean, musika eskolako txanda izango da. Musika eskolako gazte bandak kalejira egingo du herriko kaleetan, ohiko ibilbidea jarraituz. Ikasturtean zehar ikasitakoak eta jaiegun berezi horretarako propio ikasitakoak erakutsiko dituzte kaleetan zehar herriko musikari gazteek.

Musikak ez du etenik izango martitzenean. Izan ere, 17:30ean, DJ festa egingo dute San Martin plazan, Gauargi taldearen eskuetik. Amaia Txintxurretak gidatzen duen taldeak gaur egungo musika alai jarriko du. Musika dantzagarria izango da eta ko-reografia samurrekin edonork dantza egiteko moduko dantzak izango dira. Euskaraz izango dira kantak.

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS PAILAZOEN SAIOA IZANGO DA DATORREN ZAPATUAN

MIGUEL ALTUNA
Lanbide Heziketa

LANGILE ETA LANGABEENTZAT IKASTAROAK
%100ean DIRUZ-LAGUNDUAK

| LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE | | | |
|------------------------------------|---|--------|-----------------------|
| FABRIKAZIO MEKANIKOA | | | |
| IKASTARDEN IZENAK | | ORDUAK | DATAK |
| UF0453 | FABRIKAZIO MEKANIKOKO PROD. IRUDIKAPEN GRAFIKOA. SOLID WORKS | 40 | 2019/03/25-2019/04/18 |
| FMEH00750H | EGIAZTAPEN TRIDIMENSIONALA. M-COSMOS | 30 | 2019/05/06-2019/05/21 |
| FMEM00110H | CAM NX (2 1/2 ETA 3 EJE FRESAGAILUA) | 40 | 2019/03/25-2019/04/16 |
| FMEM00320H | 3D INPRIMAKETA BIDEZKO EKOIZPENERAKO DISEINUA | 15 | 2019/04/08-2019/04/15 |
| FMEM00550H | PNEUMATIKA | 40 | 2019/03/11-2019/04/04 |
| FMEM00400H | HIDRAULIKA | 50 | 2019/05/06-2019/05/30 |
| ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA | | | |
| FMEM0090P | ROBOTIKA DINAMIAK | 50 | 2019/03/20-2019/04/16 |
| ELEL00020H | MEKANIKENTZAT ELEKTRIZITATEA | 40 | 2019/05/06-2019/05/21 |
| ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA | | | |
| UF0321 | KALKULU-ORRIETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK. EXCEL | 50 | 2019/03/11-2019/04/10 |
| BESTE BATZUK | | | |
| FMEE00230H | XAFLEN ESTANPAZIOARAKO TROKELEN DISEINUA | 60 | 2019/03/11-2019/04/16 |

Lanbide
Euzko Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Fp
FEDERAZIOA
FEDERAZIOA

Unión Europea
Fondo Social Europeo
Fondul Sozial Europar

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA: Miguel Altuna Institutua - Ibargaral kalea 1, 20570 Bergara.
Tel: 943 76 70 49 // Eposta: ikastaroak@faltuna.eus // www.faltuna.eus

GOZATU

 DOLBY ATMOS[®]-EKIN

BERE INDAR GUZTIAREKIN

BAKARRIK

CINES
GORBEIA
ZINEMAK-EN



MARTXOAREN 1ETIK 7TRA
ZATOZ

BOHEMIAN
RHAPSODY
IKUSTERA

PREZIO BEREZIAK

★ **4€**

ASTELEHETIK
OSTEGUNERA

★ **5€**

ASTEBURUAN
(ostiral, larunbat
eta igandean)

 40 OSCARREN
IRABAZLEA



GORBEIA

 Parque Comercial Gorbeia



Erakin gehigarri bat izango du kiroldegi eraberrituak eta hori izango da egingo duten lehen lana. LKS

Zubikoak izango dituen aldaketak

Egungo eraikinari gehigarri bat egingo diote, berdeguneari espazioa kenduz, eta igerileku txikia egingo dute hor; handia trabes egongo da. Bost zatitan egingo dute lehen fasea eta aurtengo bigarren seihilekoan hasi eta 2020 amaieran bukatuko dute



Oskar Carrascal, Joxe Oleaga eta Borja Moiuu eguazteneko aurkezpenean. GOIENA

Oihana Elortza OÑATI

Urtearen bigarren seihilekoan hasiko dituzte LKSk garatu duen Zubikoa kiroldegia birgaitzeko eta handitzeko proiektua, eta albiste honetan datozen argazkien itxura izango du.

Ur putzuak, handiagoak

"Obraren beharrak eta Udalaren baliabide ekonomikoak kontuan hartuta" lanak bi fasetan gauzatuko dituztela azaldu dute, asteen, udal ordezkariak. Lehen faseak 8,4 milioi euroko aurrekontua izango du, BEZa barne, eta 2019ko udan hasi eta 2020ko urte amaieran bukatzea aurreikusten dute. Fase horretako lanak hainbat izango dira, baina nagusienetako bat gune hezea egokitzea izango da. Lehen solairuan mantenduko dira igerilekuak; igerileku handiak bederatzikale izango ditu eta txikia

ere egungoa baino handiagoa izango da. Eta, hori hala izan dadin, berdegunerantz eraikin zati bat gehituko zaio egungo espazioari. "Trabes egongo da, gero, igerileku handia. Hau da, igerileku txikiraino iritsiko da.

Eta igerileku txikia egiteko zati bat kenduko diogu berdeguneari. Erakin zati horren goialdea, baina, erabilgarria izango da. Hain zuzen, eraikin hori egiten hasiko dira obrak, hori eta gal-dara handi bat jartzea, igerile-


kuak itxita daudenean gune lehorreko aldageletan ur beroa egon dadin", azaldu du Kirol zinegotziak, Borja Moiuak, eguazten iluntzeko aurkezpenean.

Igerilekuen gunean, harmailak jarriko dituzte, ia 100 lagun-

dako, eta bi sauna ere egokitu-ko dituzte –bata lehorra eta bestea hezea–. Gune hezerako aldagelak igerilekuak izango diren solairu berean egongo dira. Eta berdegunean ur jolas batzuk ere jarriko dituzte ume

Bi fasetan egingo dituzte lanak

Infografia honetan ikusten den eraikin hau da Zubikoa kiroldegiak izango dituen azalera eta espazioak birgaitze eta handitze lanak egin ostean. Bi fasetan egingo dituzte lanak eta lehenengokoak aurten hasiko dituzte. Hor sartzen dira eraikin gehigarria eta bi igogailuak, esaterako. Padel pista estaliak eta tenis pista bigarren fasean egingo dituzte.



txikienendako. Igerilekuen azpian, txikiaren parean fitness-erako hiru gela egongo dira eta handiaren azpian galdarak jarriko dituzte.

Aurtengo Gabonetan itxi behar dute igerilekua urtebete inguruz, eta orain, erabiltzaileendako aukerak aztertzen ari dira. Federatuendako, beste kiroldegi batzuetako ordezkariekin harremanetan daude, entrenamenduak non egin erabakitzeko. Kirol eskolako eta adinekoen saioak eten egingo dituzte sasoi horretan eta abonatuendako aukerak aztertzen ari dira. Hala ere, asmoa da lanak egiten ari direla ere zerbitzua eskaintzea eta herritarrak ahalik eta denbora txikiena egotea kirol zerbitzuak erabili gabe. "Gimnasioa aparailuak, esaterako, beste gune batean jartzea ari gara aztertzen, lanak egin bitartean ere erabilgarri egon dadin", dio Moiuak. Oraindik, baina, ez dute ezer zehazki lotuta. Lan nagusiak hasten direnean, eskaladako eta karateko ekintzak eten egingo lirarteke.

Irisgarritasuna eta energia

Fitness guneari dagokionez ere, aurtengo Gabonetan itxiko dute, egin beharreko lanak egiteko. Beheko solairuan egokituko dute berria. Ekintza gidatuak egiteko hiru gela izango ditu, gimnasio handi bat, barruko kirolerako gela bat eta eskaladarako rokdromoa eta boulderra. Gune horrek aldagela propioak izango ditu aurrerantzean.

Lehenengo fasean egingo dituzten beste lan batzuk hauek dira: administrazio eta kontrol gunea beheko solairuan jarriko dute; kiroldegiko kantxa nagusian, berdean, aldagelak eraberrituko dituzte eta zorua konponduko dute; pilotalekuko harmailen edukiera handitu egingo dute; eta eraikin nagusiko eta pilotalekuko teilatuak eraberritu egingo dituzte, bes-telako lan batzuen artean.

Eraberritutako Zubikoaren zerbitzuak irisgarriak izango dira erabiltzaileendako eta energia kontsumoa ere kontuan hartu dute proiektua egiterakoan. LKSko Joxe Oleagak azaldu duen moduan, eraikinaren fatxadan babesa jarriko dute, aldageletan zoru erradiatzailea eta sarreran gidaridun atek jarriko dituzte barruko beroari hobeto eusteko.



Bi ur putzu egongo dira, egungoak baino handiagoak biak. LKS



Padel eta tenis pistak bigarren fasean egingo dituzte. LKS



Squash pistak dauden inguruan egongo da gimnasioa. LKS

Igeriketa ikastaroak

Lanak aurten hasi arren, igerilekua erabilgarri egongo da urtea bukatu bitartean; 2020an itxiko dute. Hala, Aloña Mendiko igeriketa taldeko igerilariak beste kiroldegi bateko zerbitzuak erabili behar izango dituzte entrenamenduak egiteko eta umeen eta nagusien ikastaroetan ere aldaketak egongo dira. Balea mailako umeek izango dute ikastaroa irailetik abendura, baina maila baxuagoan ari direnek ez. Nagusien ikastarorik ere ez da egongo.

Mikel Biain alkatearen esanetan, duela aste pare bat egindako Kirol batzorde berezian eta baita Hirigintza batzordean ere adostu dute alderdi biek lanen lizitazioa martxan jartzea. Bost sortatan aterako dituzte lanak. Orain, pleguak argitaratuko dituzte, eta maiatzerako eskaintzak jasotzea espero dute, ekainean lanak esleitu ahal izateko.

Bigarren fasean

Bigarren fasean, kantxa urdinean eta pilotalekuan ere egingo dituzte hobekuntzak, eta kanpoko urbanizazioan oinezkoen espazioa handituko dute, erraketen gunea indartzeaz gain. Fase horren aurrekontua 1,6 milioi eurokoa izango litzateke, BEZa barne, eta proiektu osoaren birgaitze eta handitze lanen aurrekontua hamar milioi eurokoa izango litzateke.

Bea Insaren antzezlanak, M8-ko aldarrikapenekin hasteko

Elkar Hezik antolatutako 'Paradigma' lanarekin hasiko ditu Oñatiko Sare Feministak martxoko ekintzak

Mireia Bikuña OÑATI

Bea Insa aktoreak Elkar Hezi ikastetxeko kultura klasikoko ikasleak izango ditu alboan *Paradigma* antzezlanean gaur, 19:00etan, Santa Anan. Genero ikuspegitik egungo gizartearen kritika egingo du, eta neoliberalismoak emakumeengan duen eragina salatu. Ostean, Santa Marina plazan, 21:00etan, *Pankantaldia* egingo dute.

Ekintza horiek izango dira Martxoaren 8aren harira herrian egingo diren ekintzetako bi. Ostean etorriko dira beste batzuk:

hitzaldiak, zinema-emanaldia, azoka, elkarretaratzea...

Martxoaren 3an, Lagun Lekun, zaintzen gainera solasaldia egingo dute, 16:30ean. Ostean, martxoaren 4an, pentsionisten elkarretaratzea egingo dute, 12:00etan; eta 19:30ean, *Fabricando mujeres* dokumentalaren aurkezpena Santa Anan. Emanaldiaren ostean, solasaldia egingo dute egileekin.

Martxoaren 8an, egun handia ospatuko dute: egun osoko greba feminista eta elkarretaratzeak 12:00etan eta 19:00etan.

Korrika Kulturala: Rafa Ruedaren emanaldia gaztetxean

Mungiako bakarlariak kontzertua egingo du Korrika 21 herri-heraldura heldu aurreko atzerako kontaketan. 12:30ean hasiko da kontzertua eta sarrera bost euro ordaindu beharko da. Korrikaren harira, Ruedaren kontzertuaren egunean eta bezperan, materiala salgai ipiniko dute, gaztetxean bertan, eta Foruen plazan.

Zuhaitz azoka eta Zuhaitz Eguna, aste bukaeran

Ingurumen Jardunaldiak bukatzeko egingo dituzte bi ekintzak. Zapatuan, hainbat mintegitako salmenta postuak egongo dira Foruen plazan (09:00-14:00). Zuhaitzak, fruta-arbolak eta landareak erosteko aukera egongo da. Domestikarako, aldiz, zuhaitzak landatzeko dei egingo dute antolatzaileek. Foruen plazan elkartzeko dira, 10:00etan.

NIRE USTEZ



ELIAS ZUMALDE

Berdintasun planak

Egungo gizartearen oso zaila da berdintasun kontzeptuarekin bat ez egitea. Berdintasuna oso demokratikoa da, zentzuzkoa, elkarrekin bizi behar duen gizarte batentzako ezinbestekoa. Baina, sarri askotan, kontzeptua eta praktika ez datoz bat. Pentsatzen duguna, edo esaten duguna, eta egiten duguna ez datoz bat. Arrakala handia dago esanetan eta egiten artean. Berdintasuna aldarrikatu eta ezberdintasunean sakontzeko milaka aitzakia bilatzen dugu. Urte askotako botere harremanek egoera honetara eramane gaituzte. Ikasteko, lan egiteko, kirola egiteko, hizkuntza erabiltzeko eta bizitzeko beste mila arlotarako ez dago aukera berdinek. Batean eta bestean arrazoiak antzekoak dira. Batean eta bestean berdintasun planak behar dira. Ezberdintasunetik berdintasunerako jauzian, gutxienez, bi bide garatu behar dira: batetik, harreman horretako katebegi ahulena indartzea, sendotzea, ahalduntzea; bestetik, harreman horretan pribilegioez gozaten dutenak, horretaz konturatzea eta pribilegio horiei uko egitea. Azken finean, ikaste eta desikaste prozesuak uztartu behar ditugu berdintasun harremanera iristeko.



Inauterietako dantzak, plazan. IMANOL SORIANO

Inauteri giroz blai dator asteburuko agenda

Bihar, 11:30ean hasita, Oñatiko Inauterietako dantzariak arituko dira kalez kale. Domekan, Luzaideko dantzen kalejira izango da herriko kaleetan. Eta martitzenean, pailazo ikuskizuna eta txokolate-jana solidarioa izango dira, besteak beste

Amaia Igartua OÑATI

Azken urteotako ohiturari eutsiz, bihar, 11:30ean, Olaitturitik irtengo dira Oñatiko Inauterietako dantzariak, eta kalez kale ibiliko dira egun osoan zehar.

Parte hartzeak gora egin du aurten ere, eta 300 pertsona inguru irtengo dira dantzan bihar. Bazkaria, urtero legez, Etxe-Aundi jatetxean izango da eta 250 lagun bilduko dira bertan.

"Berrikuntzaren bat edo beste ere badago aurten; esate baterako, dantza bat moldatu egin dugu, pausoak aldatu egin ditugu", azaldu du Zuriñe Lazkanok, Oñatiko Inauterietako lantaldeko kideak. "Sorpresa bat ere egongo da bihar", gaineratu du.

Egun osoko ibilbidea

11:30ean bilduko dira Olaitturin, eta Unibertsitatera abiatuko dira lehenik. Plazatik igaroko dira Portu kaleraino, eta ondoren, Txokolateixiara. Erremontari plazatik igaroko dira gero,

eta Kalegoienean emango diote amaiera goizeko ibilbideari.

Arratsaldean, oster, 17:30ean, Olakuan bilduko dira, eta bertatik Etxaluzera joango dira, ondoren, Santa Marinara eta, azkenik, 20:00 aldera, amaiera ekitaldia egingo dute plazan.

Luzaideko dantzak

Domekan, 18:00etan hasita, Luzaideko dantzen kalejiraz gozatzeko aukera izango da, Oñatz dantza taldearen eskutik.

Ikastetxeak

Herriko hiru ikastetxeek ere bat egingo dute Inauteri giroarekin.

Gaur, Txantxiku Ikastolakoan txanda izango da. Haur Hez-

kuntzako ikasleak lore jantziko dira eta Lehen Hezkuntzakoak, berriz, kirolari. Azken horiek kalejiran irtengo dira, 15:00etan, plazaraino.

Martitzenean, Urgaineko ikasleek goizeko hamaiketan emango diote hasiera Kalderero Jaialdiari, eskolako patioan. Eta Elkar Hezikoak, aldiz, kalejiran abiatuko dira, kalez kale, goizeko hamar eta erdietan, hippy jantzita.

Inauteri-martitzena

17:00etan, *Festaz blai* ikuskizuna eskainiko dute kiroldegian Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoez. Salneurria 2 euro da eta aurre-salmenta, *Onati.eus* atarian, Txokolateixian eta leihatila digitalean.

Arratsaldeko seietan, plazan, txokolate-jan solidarioa egongo da, Oñatiko elizbarrutiko misio taldeak antolatuta. Bildutako dirua Gineako herri txiki batean eskola eraikitzen laguntzeko erabiliko da.



Urgaineko ikasleak Josu Zubiarekin, Goienako platoan. GOIENA

Urgaineko ikasleek Josu Zubia elkarrizketatuko dute

Urgaineko ikasleak izango dira 'Galdegazte' saioaren denboraldi berriko bigarren saioan, Josu Zubiarekin

Amaia Igartua OÑATI

Atzo estreinatu zen *Galdegazte* saioaren bosgarren denboraldia. Hamar ikastetxetako ikasleek parte hartuko dute denboraldi berrian eta Debagoienean ezagun diren pertsonak elkarrizketatuko dituzte.

Datorren astean, oñatiarrak izango dira protagonista. Urgaineko ikasle talde batek egingo ditu kazetari lanak eta elkarrizketatua Josu Zubia izango da, Potx pailazoa. Saioa martitzenean eta eguenean, 21:30ean eta 23:30ean, ikusi ahal izango dute ikus-entzuleek.

Elkarrizketa "goxoa"

Hain zuzen ere, Potx pailazoren atzean ezkututzen den Josu Zubia gertutik ezagutzeko aukera izan dute Urgaineko ikasleek.

"Oso elkarrizketa goxoa iruditu zitzaidan, mimoz prestatutakoa. Elkarrizketa hau lagungarria da jendeak hobeto ezagutu dezan egiten dugun lana. Egia esan, oso pozik irten nintzen *Galdegazte* saiotik; nire kasuan, ez da ohikoa izaten elkarrizketa batetik horren pozik irtetea", azaldu du Josu Zubiak.

GORA ETA BEHERA




Bidegorria garbitzeko eskaera

Herritar bat kexu da Elorregi eta Zubillaga artean dagoen bidegorriaren egoera txarra dela eta. Izan ere, haren esanetan, ez du ulertzen nola den posible Oñatiko Udalak eta Foru Aldundiak elkarri errua botatzen dioten bitartean, bidegorriak zikin jarraitzea.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus



Pierra Menta, Alonsoren hurrengo helburua

Aurreko asteburuko bi garaipenekin, Axier Alonso oñatiarra hurrengo txapelketa prestatzen ari da, Pierra Menta, martxoaren 13tik 16ra egingo dena. Asteazkenean zehar korrika zein bizikletan aritzen da eta asteburuetan eski entrenamenduak egiten ditu

Maialen Regueiro OÑATI

Axier Alonso oñatiarra bi txapelekin itzuli zen etxera Izabatik aurreko asteburuan. Izan ere, Mendi Eskiko Euskal Herriko Txapelketa jokatu zen eta larunbatean zein igandean hartu zuen parte, lineako eta kronoigoerako lasterketetan. Lineakoan 2 ordu eta 20 minutu egin zituen eta kronoigoeran, 45 minutu eta 29 segundo.

Esperientzia berria

Alonso duela urte batzuk hasi zen mendiko lasterketetan parte hartzen, baina aurten hasi da mendi eskiko lasterketak lehiatzen: "Aurretik entrenamendu gisa hartu ditut txapelketa hauek eta aurten gehiago entrenatu naiz eskien modalitatean horiek lehiatzeko eta emaitzak lortzeko asmoz". Denboraldi honetan mendiko eskiko hainbat lasterketa egin ditu eta aurreko asteburuko txapelak "sorpresa" izan ziren oñatiarrentzat. Izabako txapelketak hasi aurretik, Alonso kontzientea zen gauzak ondo eginez gero aukerak izango zituela.

Azken igoera

Txapelketaren aurreko egunean, parte hartzaileek bilera tekniko bat izaten dute, non ibilbidearen



Axier Alonso, aurreko asteburuko lasterketan. JOAN LLIMI

zehaztasunak jasotzen dituzten. *Breefing* horren ondoren, Alonso azken igoera klabea izango zela ohartu zen. Izan ere, zati luzeena izanik, bertara "indartsu iristea" ezinbestekoa zen. Era horretan, bere estrategia ondo atera zitzaion: "Ez nuen hutsegiterik egin eta hasieratik indartsu ateratzea erabaki nuen".

Pierra Menta txapelketa

Oñatiarrak mendiko eskiko hainbat lasterketa egin ditu orain arte –Candanchukoa bertan behera gelditu zen, baina Lleidan

bi lasterketa egin ditu– eta da-goeneko hurrengo hitzordua prestatzen ari da: Pierra Menta txapelketa, martxoaren 13tik 16ra bitartean jokatu dena. Parte hartzaileek egun bakoitzean etapa bat egin beharko dute eta Alonsok Aitor Otxoa izango du bikotekide.

Entrenamenduak

Oñatiarrak prestatzaile fisiko bat du eta astean zehar korrika eta bizikletan aritzen da. Asteburuetan berriz, eski entrenamenduak egiten ditu.

'Ele! Lauxeta-Lorca' dantza eta musika ikuskizuna domekan

Jon Maia bertsolariak sortutako dantza eta musika ikuskizuna 20:00etan hasiko da, Santa Ana antzokian

M.R. OÑATI

Jon Maiak sortutako ikuskizuna da domekan 20:00etan Santa Ana antzokian ikusgai egongo dena. *Ele! Lauxeta-Lorca* da dantza eta musika ikuskizun horren izenburua eta frankismoak fusilatutako bi poetaren bizitzak eta testuak batzen ditu –Esteban Urkiaga *Lauaxeta* eta Federico Garcia Lorca–.

Lauaxeta eta Lorca idazleak

Esteban Urkiaga *Lauaxeta* eta Federico Garcia Lorca poetak modu berean hil ziren. Izan ere, urtebeteko aldearekin, fusilatua izan ziren diktaduraren hastapenetan.

Domekako ikuskizunean, bi poeten hitzak, musika, irudiak eta antzerkia erabiliko dira eta helburua da hain desberdinak diren kultura zein herriak poetaren eta artearen bidez bizi-



Jon Maia, sortzailea. GOIENA

tzaren balio sakonetan bat egin dezaketela adieraztea.

Sarreraren salmenta

Domekako emanaldirako sarre-
rak Txokolateixian, txarteldegi
digitalean eta Internet bidez
eros daitezke, hamar eurotan.

Etxegarai eta Oses, pilota txapelketako final-laurdenetan

Maddalen Etxegarai eta Uxue Oses Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketako final-laurdenetan arituko dira domekan, Gordexolako pilotalekuan. Oñatiarren aurkariak Enara Gaminde eta Nagore Bilbao izango dira, lehenik, eta Naroa Elizalde eta Aritz Eizagirre, ondoren. Kanporaketa 11:00etan hasiko da.

Lehen postua lortzeko partidua jokatu dute Aloñako neskek

Emakumezkoen gorengo mailako igoera fasean daude Aloña Mendiko futbol saileko neskek, eta bihar, 18:00etan, sailkapeneko lehen postuan dagoen Intxaurdi taldearen bisita izango dute Azkoagainen. Norgehiagoka irabaziz gero, oñatiarrak igoera faseko lehen postura igoko dira eta hamaika partidua izango dituzte aurretik.

GALDEGAZTE: JOSU ZUBIA

GOIENA TELEBISTA

MARTXOAREN 7AN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

OÑATIKO INSTITUTUKO IKASLEAK ELKARRIZKETATUKO DUTE JOSU ZUBIA,
'POTX' PAILAZOA, JOKIN BEREZIARTUAK GIDATUTAKO SAIOAN

goiena
Zu hemen zaude.



Xabier Urzelai ARRASATE

Angel Fernandez (1957) ametsa semea Lehenengo Mailan debuta egiten ikustea izan da. Aitorrek, baina, 27 urterekin eman du pauso hori, eta Angelek duela gutxira arte ez zuen argi ikusten amets hori inoiz beteko zuenik. 80ko hamarkadan Mondra Futbol Taldeko atezain izandakoak biriketako gaitz larri bati aurre egiten eman ditu azken urteak. Urriaren 17an egindako transplantean erreku-peratu zuen hauspoa, eta semea elitera iristen ikusteko gogoa. Egindako esfortzuaren ordaintan, eta osasuntsu, otsailaren 2an semearen debutaren testigu izan ziren Angel eta Miren Abarrisketa: "Aste hartan semeak jokatu egingo zuela sentitu nuen", dio Angelek.

Aitor, sentitzen dut elkarrizketa horrela hastea, baina komunikabideek aste osoa eman dute R. Madrilen kontrako ustezko penaltiaz berbetan, eta zu bertan zinen.

Aitor Fernandez: Bada, egia esateko, momentuan iruditu zitzaidan Dokourek Casemirori penaltia egin ziola, baina ondoren telebistan ikusi da ez dagoela kontakturik.

Orain, badakizu zer den Real Madrilen kontra galtzea...

Aitor: Bueno, masa sozial izugarria dute, eta ez da erraza euren kontrako erabakiak hartzea. Badirudi Real Madril goian ez badago ligak ez duela interesik. **Dagoeneko lau partidu egin dituzu Lehenengo Mailan. Ze balantze egiten duzu?**

Aitor: Balantze positiboa izan da, duda barik. Baina lehenengo partidu hauek ez dira batere errazak, dena egin nahi izaten dugulako ondo. Entrenatzaileak esaten dizu ez hartzeko azterketa baten moduan, baina norberak jartzen dio presioa bere buruari. Orain hasi naiz nire burua atepan errekonozitzen, lasai egoten; hasieran, urduri nengoen.

Duela hamabost egun Mendizorroztatik ez zinen pozik joan.

Aitor: Ez, futbol zelai hori kontrako eztaurritik sartu izan zait beti; duela urte batzuk, Bilbao Athletic taldean nengoela, bertan egin nuen sekula egin dudan partidurik txarrena, eta aurrekoan ere normalean baino urduriago nengoen, banekien harmailtan etxeakoak zeudela, gauzak ondo egin gura nituen... Bueno, pasa da. [Barre].



Aitor, Angelekin –aita– eta Jonerekin –arriba– berbetan, duela bi aste Mendizorroztan jokaturako partiduaren ostean. X.U.

Angel Fernandez: "Ez nuen Aitor atezain izatea gura"

AITOR ETA ANGEL FERNANDEZ LEVANTEKO ATEZAINA ETA MONDRAKO ATEZAIN OHIA **FUTBOLA** 80ko hamarkadan Mondrako atezain izan zen Angel Fernandez –gaixotasun larri bat gainditu berri– harmailtan dabil jarraitzen Lehenengo Mailan debuta egin berri duen semearen lana. Elitera iritsi da Aitor Fernandez, geratzeko asmoz

Erregularitasunaren saria

1980-81 denboraldian, Mondra Hirugarren Mailara igotzeko puntuan izan zen; Amorebietaren kontra jokatu zuten igoera faseko partidua, eta bizkaitarrek egin zuten gora. Erregularitasunaren saria jaso zuen Fernandezek, Areitio babeslearen eskutik. Fernandez ondoan dagoena Calleja masajista da. Erdiko haurra, berri, Aitor Lopez Rekarte *Bonba*.



Angel, bete duzu ametsetako bat, Aitor debutatzen ikustea.

Angel Fernandez: Azken batean, familia osoaren ametsa izan da, Aitorrek futboleko jokatu gura zuela esan zigunetik espero izan duguna. Kosta egin zaio, baina lortu du.

Gaztetan Athleticetako harrobian, Espainiako selekzioan jokatzeko... Gazte debutatzeko osagai guztiak zituen, eta ez da horrela izan. Erraza izango zen amore ematea.

Angel: Hogei urtez azpiko Munduko Txapelketan min hartu zuen eskuan, baina Marcelo Bielsak esan zion lehenengo taldean lekua zeukala. Ondoren lesio gehiago izan zituen eskuan, tartean ebakuntzak egin behar izan zituzten, eta atzetik Kepa Arrizabalaga zetorren. Barakaldora utzita joan zen, eta nik ere uste nuen hor amore emango zuela, behin Athleticetako harrobetik irtenda... Baina ez, lanean jarraitu zuen, eta iritsi da.

Aitor, aita Mondrako atezain izateak zenbaterainoko eragina izan zuen zuk ere postu bera aukeratzeko?

Aitor: Oso gauza kuriozosa da, nik ez dudalako aita sekula futboleko jokatzeko ikusi, ezta bideoan ere. Argazki zahar batzuk bai, baina... Gene kontua izango da. [Barre]

Angel: Nik ez nuen Aitor atezain izaterik gura, inondik inora, badakidalako zer den atezain izatea. Joma taldean hasi zen gaztetan; orduan, Palaciosekin kategoria txikietako torneoetara joaten ziren, eta hark proposatu zion atezain izatea. Eta nik ezetz. Aste bateko epea eman nion Aitorri birritan pentsa zezan; ideia ahaztuko zitzaion esperantza nuen, baina ez. Gero, Haron (Errioxa) jokaturako torneoneko batean Palacioi komentatu nion ea atezainekin lan egin nezakeen, Aitorrekin eta Iker Agirregabiriarekin. Atezainei normalean inork ez die kasurik egiten, eta berotze ariketak nirekin egiten zituzten. Bada, semearen lehenengo entrenatzailea izan nintzen. [Barre]

Semearen jarraitzaile handiena, baina neurri berean zorrotzera izan zara?

Angel: Bueno, beti egin izan dugu berba asko futbolaz, Aitor gazte gazte zenetik. Eta gauzak nik ikusten nituen moduan esan izan dizkiot beti, baina momentu egokia bilatuta, ez partidua amaitu eta berehala. Imajinatzen dut atepan egotea zer den ja-



Ezkeretik hasita, Luis Lopez *Bonba* –Mondrako entrenatzailea–, Luis Arrieta, Angel Fernandez *Txiu*, Luis Mari Uribesalgo, Iñaki Galdos eta Ramon Luengo; Agorrosingo berdegunean, denboraldi-aurreko Bergara Hiria torneoaren jokatzeko gertu. A.F

kiteak lagunduko zuela horretan, atezainaren postua zaila delako. Baina Aitorrek profesionalak izan ditu ondoan aholkuak emateko, atezain postua erakusteko, eta ez nuen nire gomendioekin semea nahastu nahi, beti ulertu izan dudalako entrenatzaileek nik baino gehiago zekitelako futbolarik.

Aitor: Atezain baten egunerokoa badaude momentu batzuk atezain izan denak bakarrik ulertzen dituenak, eta horretarako aita ondoan izatea lagungarria izan da. Baina berea eta nirea oso garai ezberdinak ziren. Futbola aldatu egin da, jokatzeko modua aldatu egin da, jokoaren abiadura aldatu egin da eta baloia bera ere asko aldatu da. Eta, tarteka, atezain batek huts egin duela esaten duenean, eztabaidatu egiten dugu. [Barre]

Angel, semeak badu zurekin antzekotasunik atezain moduan?

Angel: Ez, ni baino askoz inteligentagoa da. [Barre] Akaso, hanketan indar handiagoa neukan nik, baina hortik aurrera... Aitor ez da geldiketa ikusgarriak egiten dituen atezain horietakoa, baina oso azkarra da, eta etengabe dabil jokalariekin berbetan, taldea zuzentzen, aginduak ematen... Ni oso urduria nintzen, eta atepaan gozatu beharrean sufritu egiten nuen; Aitor, berriz, askoz lasaiagoa da.

Harreman estua izan duzue beti. Aitor, aitaren gaixotasunak eragina izango zuen zure egunerokoa...

Aitor: Etxean denok sufritu dugu asko. Nik kanpotik bizi izan dut prozesua, Vila-realera etorri nintzen hasi zelako aita ara-

zoekin [2013], eta, hain zuzen, kanpoan egoteagatik errudun sentitzen nintzen. Ez du zentzurik, baina halaxe sentitzen nintzen. Gaixotasun horrek, baina, gauzak beste modu batean hartzen lagundu digu denoi, indartsuago egin gaitu guztiok; akaso, horretarako lagundu dit Lehenengo Mailara iristen.

Angel, etxeok behar dena baino gehiago ez arduratzen ahalegindu zara.

Angel: [Isilunea] Barkatu, emozionatu egiten naiz eta. Nik duela hilabete gutxira arte garbi neukan hiltzen ari nintzela, gehienez hilabetean eutsi ahal izango niola. Denbora honetan guztian emaztea izan dut ondoan, eta, esaten ez banion ere, gauean konturatzen nintzen amata-

tzen ari nintzela; antsietatearekin esnatzen nintzen, eta oxigeno makina topera izanda ere ezin nuen arnasarik hartu. Baina ez nituen seme-alabak arduratu nahi, egunez kalean txarto egonda ere itxurakeriak egiten nituen, ondo nengoela erakusteko. Baina etxeok ez dira tontoak, garbi zuten egoera larria zela, oso txarto nengoela. **Aitor:** Aita gaixo ikusita ikasten duzu futbolarik harago bizitzaren honetan zerk duen benetan garrantzia. Esaterako, lehen, egin beharra zelako joaten nintzen entrenatzera. Orain, berriz, entrenamendu saio bakoitza beste modu batean bizi dut. Eta pasatakoak pasata, uste dut etxekooi tokatzen zaigula osterara ere bizitzaz disfrutatzea.



Angel, Aitorren partidua jarraitzen.



Aitor Fernandez, taldea zuzentzen.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

Mondra-Añorga

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Real Union-Aretxabal.

Zapatua. 16:00. Gal.

Amaiak Bat-Bergara

Zapatua. 16:30. Errotazar.

ERREGIONAL PREFERE.

Atsedena dute.

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Billabona

Zapatua. 15:30. Azkoaga.

Aretxabaleta-Ordizia

Zapatua. 16:00. Ibarra.

Mondra-Euskaldunak

Zapatua. 10:00. Mojategi.

Bergara-Beasain

Zapatua. 16:30. Agorrosi.

EMAKU. OHOREZKO E.

Leintz Arizm.-Añorga

Zapatua. 12:00. Mojategi.

Ostadar-Bergara

Zapatua. 16:30. Lasarte.

EMAKUM. GORENGO M.

Aloña Mendi-Intxaurdi

Zapatua. 18:00. Azkoaga.

OHOREZKO KADETEAK

Bergara-Real Sociedad

Zapatua. 11:30. Ipintza.

Eibar-Aretxabaleta

Domeka. 16:00. Unbe.

KADETEEN IGOERA FAS.

Arrasate-Allerru

Domeka. 17:00. Mojategi.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Mondrate-Eskoriatza

Zapatua. 17:30. Musako.

Sestao-Aretxabaleta

Zapatua. 17:00. Sestao.

*Gainontzeko

kategoriek atsedena

dute.

SASKIBALOA

EBA MAILA

MU-Santurtzi

Domeka. 18:30. Iturripe.

GIPUZKOAKO BIG. M.

Alkideba Ointxe-Leioa

Zapatua. 16:00. Iturripe.

*Gainontzeko

kategoriek atsedena

dute.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Ford Mugarri-Siglo XX

Zapatua. 17:30. Iturripe.

F. Industrial-Hondarri.

Zapatua. 16:30. Lasarte.

EMAKU. EUSKADIKO TX.

Ereintza-Aloña Mendi

Zapatua. 18:30. Zubikoa.

GIPUZKOAKO SENIORRA

Soraluce BKE-Bidasoa

Zapatua. 13:00. Labegar.

*Gainontzeko kategoriek atsedena dute.

ERRUGBIA

GAZTEAK

Gaztedi-Zarautz

Zapatua. 10:30. Lakua.

*Gainontzeko kategoriek atsedena dute.

PILOTA

Oñatin: Gaur. 19:00etan hasita, infantil mailako bi partidu.

Aretxabaletan: Gaur. 19:00etan hasita, alebinen eta infantilen partidu bana.

Arrasaten: Gaur. 20:30ean hasita, infantilen partidu bat.

Bergaran: Oharra: Aratusteak direla-eta, gaurko Bergarako bi partiduak (20:00) Elgetan jokatu dituzte.

XAKEA Debagoieneko eskolartekoa, martxoaren 10ean

Martxoaren 10ean egingo dute Debagoieneko Banakako Eskolarteko Xake Txapelketa. Ibarreko gaztetxoei zuzendutakoa izango da, eta 10:00etan hasiko dituzte partidak –Etxaluzeraikean izango dira xake partidak, Araba etorbideko 1. zenbakian–. Hala, hiru mailako gazteek hartuko dute parte: benjaminen –2009an eta 2010an jaiotakoak–

alebinek –2007an eta 2008an jaiotakoak–; eta infantilek –2005ean eta 2006an jaiotakoak–.

Txapelketarako izen-ematea egiteko, idatzi mezua *arrasate.artz@gmail.com* helbidera, edo deitu 639 36 76 26 telefono zenbakira –antolatzaileek *whatsapp* mezua ere erantzun dituzte–. Mezuan datu hauek jarri behar dira: txapelketan esku hartuko duen gaztearen izen-abizena, jaiotze urtea eta ikastetxea. Izena emateko azken eguna martxoaren 8a izango da.

FUTBOLA Bergararen ezohiko batzarra hilaren 14an

Martxoaren 14an, Bergara Kirol Elkartekoek ezohiko batzarra egingo dute, eta etorkizunari begira garrantzitsuak izan daitezkeen gaiak izango dituzte esku artean: Agorrosin futbolariek zehaztu behar diren zehazketak eta Agorrosingo jabetzaren esku aldatzea. 19:00etan egingo dute batzar hori, Irizar Jauregian.

FUTBOLA Kirol egokituko topaketa egingo dute 9an

Martxoaren 9an, futbol egokituko bigarren topaketa egingo dute Bergarako Ipintzako berdegunean, 10:00etan hasita. Topaketa hori oinez dabiltzan desgaitasun fisiko edo intelektuala duten jokalariek zuzendutakoa izango da. Izena emateko idatzi mezua *eskolakirolegokitua2@gmail.com* helbidera edo deitu 617 63 39 55 zenbakira.

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Ez dago guztiz garbi araua noiz jarriko den indarrean, ezta nola kudeatuko den ondoren, baina segituan piztu zuen sortzaileen, ostalarien eta kultura-zaleen haserrea. Araua aurrera atera duen Eusko Jaurlaritzako Ikus-kizun Zuzendaritzak dio arauak ez duela "kultur mailako eragirik, eta ostalaritza negozio guztietako aukerak berdintzeko" balio duela. Eta hauxe gaineratu du: "Ateak irekita utzi ditugu, egoera berezietan Udalekin adostasunak lortzeko".

Gasteiztik Erkidegora

Hori guztia ulertzeko iazko urteari begiratu behar zaiola dio Arteak Ireki plataformako kide Iker Zubiak: "Gasteizko Udala zigorrak jartzen hasi zen ekintza kulturalak egiten zituzten taberna batzuei; horien artean, gure Orbain Kultur elkarteari: 1.200 euroko multa jarri ziguten Udalarari ekitaldia egin behar genuela aurrez ez esatearren. Ez zaratarengatik edo bestelako arazoren batengatik, ez komunikatzeagatik baizik".

Udal ordezkariekin konpontzen saiatu ziren arren, ez zutela lortu gaineratu du Zubiak: "Eztabaida kalera zabaldu zen, orain moduan, eta Udalaren erantzuna, 24 emanalditara mugatuko zutela izan zen. Ez geundela ados esan genien, eta gaia *standby* utzi zuen Udalak, eta Eusko Jaurlaritzara eraman zuen, haren kompetentzia delako. Urtebete geroago etorri da erantzuna Jaurlaritzatik: 24 emanalditik 12ra jaitsita, eta dekretu bidez, hau da, Legebiltzarreko gainontzeko alderdiekin berba egin edo adostu barik, eta ezta ostalariekin ere; eta gutxiago, kultur eragileekin".



Arrasateko Sala anaiak Aramaioiko Azurmendi ahizpekin, Irati tabernan abenduan eskaini zuten emanaldian. IRATI TABERNA

Kultura kopuru bat baino gehiago dela aldarrikatzen dute

Eusko Jaurlaritzak kaleratu duen dekretu batek mugak jartzen dizkio tabernetan egin daitezkeen emanaldi kopuruari: urtean 12 emanaldi, gehienez; hilero bi, askoz jota. Indarrean ez dagoen arauak haserrea piztu du sortzaileen eta ostalarien artean

Apirilaren 22an

Ez dago argi oraindik indarrean jarriko duten, baina, horrela bada, data hori aipatu da. Gasteizko plataformarekiko atxikimenduak gora doaz, dagoeneko 3.000 gaituta dituzte: "Horrez gainera, Bilbon dagoen antzerako elkarte batek beste 12.000 lortu ditu. Jende askoren babes dugu, ostalariekin, arlo kulturalakoak eta auzoetako elkarrekoak ere bai".

Otsailaren 14an egin zuten kalean lehen ekintza; elkarretaratzea Gasteizen Legebiltzarrearen aurrean, musika emanaldiekin eta bestelakoekin. Debagoienetik ere gerturatu ziren; horien artean, Iker Martinez de Zuazo (Lenao) musikaria eta Oñatiko Pako eta Itturri tabernetako Josu Aiastui: "Egun bat lehenago zabaldu zen deialdia; hala ere, jende asko batu zen. Gazteak eta Gasteizkoak, gehienbat", dio musikariak, eta zera gaineratu du tabernariak: "Plataformakoek joateko proposamena egin zuten, eta babes ematera joan nintzen".

Aurreko egubakoitzean, Legebiltzarrean joan ziren plataformakoak eta hainbat sortzaile eta musikari; han zegoen Jon Zubiaga *Osoron* musikaria eta aktorea: "EH Bilduko Josu Estarronak dekretuari buruz galdetu behar zion Kultura sailburu Bingen Zupiriari, eta babes ematera joateko eskatu ziguten. Hotz utzi gintuen haren erantzunak; ez zutela kultura mugatu nahi zioen sailburuak, baizik eta beste batzuei ekitaldiak antolatzeke aukera emateko egiten dutela; gaineratuta lege malgua dela eta tokian tokiko udalena izango dela eskumena. Gogorrena da arazorik ez zegoen tokian euren sortu dutela".



**ARATUSTEETAKO ARGAZKIEN
GOIENA LEHIAKETA 2019**

LAGUNTZAILEAK:



**Bidali zure argazkiak eta
eskuratu otarre bikain bat!**

Jon harategiaren eta
Hankabeltz urdaitegiaren
produktuekin osatutako otarra.

☎ 688 69 00 07

Parte hartzeko epea: martxoaren 1etik 5era

Zozketa: martxoaren 6an



Zenbat eta argazki gehiago bidali, orduan eta aukera gehiago!

goiena
Zu hemen zaude.

Dekretua indarrean jarri aurretik, atzera botatzeko lanean jarraituko dute Arteak Irekikoek: martxoaren 11n Legebiltzarreko Kultura batzordean egongo dira eta martxoaren 23rako ahalik eta toki gehienetara zabaldu gura dute dekretuaren aurkako aldarrikapena. "Osorik ez bada ere, emanaldi kopuruarena ez ezartzeko ahalegin guztiak egingo ditugu".

"Arazoa: kopurua"

Emanaldi kopuruaz gainera, bestelakoak arautzen ditu dekretuak: ordutegiarekin, zaratarekin eta auzokoan elkarbizitzarekin lotutakoak. Horiekin guztiekin bat datoz plataformakoak, eta baita Debagoienean kontzertuak egiten dituzten ostalariak ere: "Ekitaldiak antolatzen dituzten tabernentzako eragozpen handia da. Zarata ez da aitzakia, edozein ikuskizun arautzen duelako. Domeka iluntzeetan egiten dugu, normalean, Iturrin eta Pakon, tartekatuta. Hilean, gutxi gorabehera, pare bat egiten ditugu, baina salbuespenak ere izaten dira, talderen baten eskaera edo proposamena jasozten badugu tokia egiten saiatzen gara", dio Aiastuik.

Bergarako Bule tabernan orain dela urtebete hasi ziren ekitaldiak antolatzen, baina lehenago Etxagi tabernan asko egin dituztela kontatu du Ignacio Etxabarrik: "33 urte daramagu ostalaritzan eta beti saiatu izan gara ahalik eta traba gutxien egiten bizilagunei. Ordutegia eta bolumena zaintzen dugu. Bulen aldaketaxo batzuk egiteko asmoa dugu, eta ondoren, sarriago programatan hasteko asmoa".

Eskoriatzako Inkernu tabernan ere aspalditik antolatzen dituzte kontzertuak; maiztasun zehatz barik, hilean behin egiten saiatzen dira, eskualdeko eta kanpoko sortzaileak gonbidatuta, baina emanaldi kopurua aldatu egiten da garaiaren arabera. "Gaur, egubakoitza, Kaleko Ur-dangak taldearen kontzertua izango da, eta martxoaren 23rako Trigger bakarlarria gonbidatu dugu Inkernura".

"DENBORA GUTXIAN 3.000 ATXIKIMENDU BAINO GEHIAGO LORTU DITUGU"

IKER ZUBIA, ARTEAK IREKI



Izaro eta haren taldea, Eskoriatzako Inkernu tabernan. IMANOL SORIANO



Arrasateko Los Galerna taldea Oñatiko Pako tabernan. JOSU AIASTUI



Iazko Elkartasun Eguneko emanaldia Arrasateko Taupa taberna kanpoan. I. S.

Arrasateko Irati taberna pres-tatuta dago ekitaldiak egiteko; berri-ritu zutenean beharrezko guztia jartzeko aprobetxatu zutela dio Gorka Morrarek: "Hala ere, ez dugu hirugarren taldeko lizentziarik, legeak baimentzen duena baino gertuago dagoelako maila horretako beste taberna bat. Iluntzen ere hainbat antolatuta izan ditugu, eta, normalean, ez da arazorik izan, eta, izan denean, bizilagunarekin kon-pontzen saiatu gara. Iratin hilean lauzpabost egiten saiatzen gara".

"ZARATA EZ DA AITZAKIA, IKUSKIZUN GUZTIAK ARAUTZEN DITU DEKRETUAK"

JOSU AIASTUI, TABERNARIA

"Beharrezko" agertokiak
Sortzaileek asko estimatzen dute tabernen aukera: "Areto handietara heltzeko aukerarik ez dugunontzako, ezinbestekoak dira", dio Lenao taldeko kideak, eta, zera gaineratu du Azkaiter Pelox bergararrak: "Tabernetan hasi ginen jotzen eta halaxe jarraitzen dugu; horregatik, ilusioa eta esperantza dugu araua bertan behera geratuko dela. Herriko musikari eta tabernari batzuk ari gara martxoaren 23rako zerbait antolatzeko pentsatzen".

"ARAZORIK EZ ZEGOEN TOKIAN EUREK SORTU DUTE DEKRETUAREKIN"

JON ZUBIAGA, MUSIKARIA ETA AKTOREA

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira otsaileko irabazleak!

- | | |
|--|---|
| TELEBISTA LG 32LJ50 Aitor Otadui Arana (Arrasate) | "TONI BRIGHT" MENTALISTARAKO SARRERAK Angel Mari Zabaleta Iturbe (Bergara) |
| KALAKAN "ELEMENTUAK II" Iñaki Idigoras Igartua (Oñati) | Heriberto Zubia Uribeetxeberria (Arrasate) |
| HARREMAN DENDAKO OTARREA Arantzasu Uribelego Muzika (Arrasate) | "HUMANITY ALT MUSIC" IKUSKIZUNERAKO SARRERAK Esther Merino madariaga (Arrasate) |
| ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK Haritz Anduaga Ailtuna (Bergara) | Arantzasu Uribe-Etxebarria Maliztegi (Aretxabaleta) |
| "OLATZ ZUGASTI" KONZERTUAREN SARRERAK Jose Luis Carnicero (Bergara) | "XABI BANDINI" KONZERTUAREN SARRERAK Angel Elkoro Aranberria (Bergara) |
| "UDA BATEZ" DANTZARAKO SARRERAK Juan Ramon Balenziaga Errasti (Arrasate) | "GHERO" ANTZEZLANAREN SARRERAK Aitziber Iturikastillo Plazaola (Bergara) |
| "MADAMA BUTTERFLY" OPERAKO SARRERAK Jose Luis Ugaldes Orobengoa (Arrasate) | MAIALDE JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA Jone Arregi Etxaniz (Bergara) |
| "LUR" HAUR ANTZERKIRAKO SARRERAK Arantxa Zeziaga Mondragon Aitziber Astola Elorza Maider Mora Garcia | MAULANDA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA Felix Arrese Garzia-Etxabe (Aretxabaleta) |
| "LINBO PLANETA" ANTZERKIRAKO SARRERAK Iker Larrea Sorraluze (Antzuola) | SANTA ANA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA Tere Azkarreta Jauregi (Bergara) |

SARIAK JASOTZEKO:

Ardurutzeko sareak: Goiena Klubaren irabazleak bira sarean jarri dituzte Ardurutzeko berridiegien. Gaurtik 3 irabazleko sari mugatutakoak dira: ARRIKUTZ KOBETAKO, Aretxabaleta, Oñati, 943 25 05 05. Oñatiko: Aretxabaletatik igandera 10:00 - 17:00 (Auzoak dituzte irabazleak egiteko) Harreman dendakoak Oñateko jasoetako joanaren berridiegien berridiegien. Harreman dendako: Aretxabaletatik igandera 10:00 - 17:00. Lehen saria jasotzeko, zuzenean GOIENAREN txartela erabiltzea da. BAZKIDEEN txartela erabiltzeko, zuzenean GOIENAREN txartela erabiltzea da. GOIENA Oñateko Lantegiaren 31. Arasate, 943 25 05 05. Oñatiko: Aretxabaletatik igandera 10:00 - 17:00. Egubakoitza: 08:00 - 14:00.

Irabazi bi lagunendako otordua

TABERNA BERRI JATETXEARI ESKER
Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 | klub@goiena.eus

KT UBA Jateitza | [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Bergarako Udalarri esker
"Txariboda" antzezlanean sarrerak ditugu.
Bergara | Seminarioa | Martxoaren 9an | 19:00etan

PARTE HARTZEKO: MARTXOAREN 7RA ARTE

E-posta: klub@goiena.eus | WhatsApp: KLUBA "Aretxabaleta"
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketak.
Inbentarioaren LPD/010000 legearen arabera pribatuak dira. Zerbitzuaren erabilera goiena.eus webgunean zehaztu da.
Guztizko erabilera goiena.eus webgunean zehaztu da.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu orain 2019rako
56€ ordainduta
Deitu: 943 25 05 05
klub@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104.ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Aretxabaleta. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 722 56 41 16

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan hartuko. 450-500 euro ordain ditzaket hilean. Telefonon: 612 20 35 71

4. LANA

402. ESKAERA

Arrasate edo Bergara. Asteburuetan nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka edo asteburu osorako. 632 89 09 42

Arrasate. Asteburuetan edo arratsaldetan nagusiak zainduko nituzke. 632 48 38 91

Arrasate. Emakume arduratsua gertu orduka edo egun solteka, arratsalde zain egingo nuke. 602 01 08 69

Arrasate. Garbiketan eta ume zein nagusien zaintzen lan egingo nuke. Legezko agiriari eta soziosanitario titulazioa dauzkat. 651 02 03 14

Bergara edo Arrasate. 15:00etatik aurrera garbiketarik egin eta nagusiak zaintzeko gertu nago. Telefonon: 631 14 27 02

Bergara edo inguruak. Egunean zehar nagusiak zainduko nituzke. Telefonon: 602 32 06 58

Debagoiena. Bertako neska, arduratsua eta esperientzia duena, gertu umeak zaintzeko, nagusiak inoan edota kalera laguntzeko eta orduka garbiketarik egiteko. Telefonon: 695 73 87 95

